eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Proteomic study of sperm-specific molecular mechanisms in human spermatozoa underlying sperm fertility

Giza espermatozoideen ahalmen ugalkorra erregulatzen duten mekanismo molekular espezifikoen azterketa proteomikoa

Doctoral Thesis

Doktore Tesia

Itziar Urizar Arenaza

Leioa, 2019

Supervisors/ Zuzendariak:
Nerea Subirán Ciudad/Jon Irazusta Astiazaran

(c)2019 ITZIAR URIZAR ARENAZA

ESKER ONAK

Erraza zela esan zidaten arren, tesia idazterakoan zailen egin zaidan pasartea dudarik gabe, hau da. Eskerrak eman nahi dizkizuet zuei, nire bizitzako etapa garrantzitsu honetan zehar nire ondoan egon izanagatik.

Lehenengo eta behin eskerrik asko nire zuzendaria den Nerea Subirani. Bost urte luze hauetan zehar ikerkuntzaren itsaso sakonean nire gidari izan zarelako. Mila esker nire zalantza guztiak erantzuten saiatzeagatik eta egunero egiten duzun lan gogorragatik. Eskerrik asko ere Jon Irazustari, zure prestutasun eta laguntzagatik.

Lan honen jaiotzerako bidean hazia jarri duzuen Gurutzeta Ospitaleko eta Quirón Bilbao klinikako profesional guztiei, batez ere beti irribarre eta atsegin handiz tratatzeagatik. Ezin ditut ahaztu tesiaren loraldiranzko bidean lagundu nauten Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak. Gorka Larrinagari, giza fisiologiarekiko nire interesa pizteagatik eta hasiera batetik ikerketan murgiltzeko aukera emateagatik. Lola Boyano eta Aintzane Asumendiri, gure lanean sinisteagatik eta hori aurrera eramateko tresnez hornitzeagatik. Alex eta Ricardori, prozesu honetan zehar teknika desberdinei buruz erakutsitako guztiagatik eta emaitza ulertezinei azalpena emateko ahaleginengatik. Josean Rodriguezi, ezertaz ezagutu gabe zure laborategiko ateak parez-pare zabaltzeagatik eta nire proiektuari hainbeste emateagatik. Plazer bat izan da zugandik ikastea.

Nereri. Ikerlari ezinhobea zarela erakutsi badidazu ere, lagun bikaina zarela egiaztatu dut. Milesker beti nigan sinisteagatik eta zure babes beroagatik. Ezingo dizut inoiz eskertu denbora honetan zehar nigatik egin duzuna. Ezingo dizut inoiz eskertu zure Odenseko familiarekin harremanetan jarri izana.

I would like to thank to my people from Odense, it has been a pleasure for me to have the opportunity to learn from all of you. Specially to Iñigo, Sten, Mogens, Sarah, Lea and Denis for your help and support in the lab. Also to Slava and Michele for your effort and patience. Thank you Slava for taking care of me and for showing me that Danish people can also dance salsa. I am willing to see how much you have improved during this year! I cannot forget Blagoy and Irina. Thank you for opening me your home and protecting me everytime I have been in Odense. Irina, I don’t have words to describe how much you mean to me, you are my shining star. Everyday you show me you are a fighter and I really admire the way you live your life. Thank you for always being behind my back.

A Silvia y Virginia, por los momentos tan especiales que vivimos en Odense y por demostrarme que a pesar de la distancia, seguimos siendo grandes amigas. To Otilia

for being always there, encouraging me and appreciating the work I do. Even we are far away, I always feel you close. To Bojana for having entered in “Flammen” two seconds after me. When you looked at me I knew you were going to have an important place in my life. Thank you for showing me to fight for your dreams.

Mila esker gure laborategitik pasa diren Gotzone, Izaro, Gabriela, Marta eta Haizeari, elkarrekin pasa ditugun momentu onengatik. Manu eta Sergiori, tesiko azken txanpan harrapatu nauzuen arren, ederra izango litzatekeelako etorkizun hurbilean zuekin lan egin eta denbora gehiago pasatzea. Lide eta Estiri, txapeldun batzuk zaretelako. Laborategi berdinekoak ez izan arren, beti izango zarete gure familia txikiaren parte. Biologia zelularreko Arantza eta Aitorri, emandako laguntza guztiagatik. Lankide apartak izateaz gain, pertsona hobeak zaretela erakutsi didazuelako. Migueli, lanpetuta bazaude ere beti nire zalantza eta eskarientzako denbora ateratzen duzulako. Zientzietako Nagore Elu eta Maria Sendinori, zuen prestutasunagatik. Anneri, urte hauetan zehar beti irribarre batekin emandako laguntzagatik eta animo amaigabeengatik. Ezin ahaztu uniko Erlantz, Nuria, Edur, Karmele eta Andoni, momentu ahaztezinengatik. Makina hutsak zarete!

Ondorengo lerroak etapa luze honetan zehar bidelagun izan ditudan eta niretzako ezinbestekoak izan diren hiru lagun bereziei eskainita doaz. Peio, eskerrik asko zure laguntasunagatik eta elkarrekin bizitako eta barrez betetako momentuengatik. Benetan miresten ditut urte guzti hauetan zehar erakutsi dizkidazun konstantzia eta indarra. Iraia, mila esker egoera zailenetan ere irribarrea ateraraz teagatik, zure positibotasun eta adiskidetasunagatik eta niretzako beti hor egoteagatik. Maider, ez daukat hitzik denbora honetan zehar nigatik egin duzuna deskribatzeko. Nire mugimendu guztietan nire itzala izateaz gain nire sostengurik handiena izan zara laborategi barruan zein kanpoan. MC, SG. Tesi honek eman didan oparirik handiena zara. Zuetako bakoitzak ematen didanagatik maite zaituztet.

Gora Pakotxotarrei, karreran zehar igarotako momentu ikaragarriengatik. Bereziki, Erikari, Irantzuri, Igorri, Lutxuri, Maiteri eta Leireri. Askotan ikusi ez arren, edozein momentutan zuengana jo dezakeedala badakidalako. Bihotzean daramatzat gure bizipen guztiak.

Bilboko Riples eta Torre kuadrilari. Eider, Edur, Sara, Txaber, Torre, Edorta, Jon eta Urkori, urteak aurrera joan ahala beti nirekin kontatzearren eta benetako lagunak zaretela erakustearren. Mila esker hainbeste ematearren eta nire bizitzan egoteagatik. Zuotariko bakoitza berezia da niretzat.

Lekitxoko Gaupaserak kuadrilari. Mila esker Nago, Ju, Ikerne, Lexu, Iratxe, Maita eta Mel zuen animoengatik eta aurrera egiteko bultzadagatik. Bereziki, Leireri nire kezkak,

zalantzak, kexak eta buruhausteak entzuteagatik. Zuk inork baino hobeto ulertzen nauzulako. Mila esker bizitzari buruz hainbeste erakusteagatik eta niretzako eredu izateagatik. Nola ez, Itsasori. Hausnarketaz beteriko portuko buelta amaigabeengatik eta beti nigan sinisteagatik. Kolonbian egon arren etxean sentitzen zaitudalako. Ezin dut ahaztu Amaia, Tafallako neskarik ederrena. Mila esker egiten dudan lana baloratzeagatik eta beti animatzeko prest egoteagatik.

Arantzazuko amabirjinari zure oihuarekin Durangoko jaietan juerga galanta bota zuen Nora esnatzeagatik. Geroztik, lagun handi eta berezi bat dudalako nire bizitzan. Siempre positivori geldigaitzak garelako!

Ezin dut Olatz ahaztu. Etapa guzti honetan zehar nire ondoan egoteagatik. Bere hitzek transmititzen didaten goxotasun, animo eta maitasunagatik.

Osaba-izebei zein lehengusu-lehengusinei nire lana miresteagatik eta zuen babesagatik. Uribetarrak, nire bihotzaren zati handi bat betetzen duzuelako eta familia baino askoz gehiago zaretelako.

A los de casa. Eskerrik asko Aita y Ama por haberme enseñado que con constancia y trabajo se consiguen las cosas. Por apoyarme en todas mis decisiones y siempre creer en mí. A Iñigo y Amaia por ser mi apoyo incondicional y mis dos grandes referentes. Por siempre estar ahí y animarme cuando más lo he necesitado. Amaia, eskerrik asko por tu sensibilidad y humanidad y por saber siempre elegir las palabras y acciones adecuadas. Cada día me enseñas a ser mejor persona.

Bukatzeko, zu. Eskerrik asko Ioritz, hasieratik bukaerara arte hor egon zarelako ni ulertzen saiatzen, laguntzen eta maitatzen. Beti nire erabakiak errespetatzen, nire borrokak zureak ere badirela sentiarazten eta zoriontsu egiten nauena aukeratzeko animatzen. Zoriontsu egiten nauzulako.

Hau guztiagatik eta askoz gehiagogatik, eskerrik asko bihotzez.

Laburpena
Summary

SUMMARY

Ejaculated human spermatozoa are immature and infertile and must undergo many biochemical and physiological modifications in the female reproductive tract to become fertile. Sequentially, human spermatozoa go through different processes such as motility capacitation, hyperactivation and acrosome reaction, being all these considered key functions in sperm fertility. Due to the fact that mature spermatozoa express a sperm-specific pool of proteins (around 30%), they could present unique features in their molecular mechanisms, which are important for the regulation of sperm fertility.

Sperm fertility is mainly regulated by ionotropic mechanisms through ionic channels and fast responses. However, the presence of numerous G-protein coupled receptors (GPCR) in the plasma membrane of human spermatozoa suggests that they also could be important regulators of the sperm fertility. However, the signaling pathways downstream these receptors in human spermatozoa remain uncharacterized. Using the opioid receptors as study model, phosphoproteomic and functional approaches revealed sperm-specific molecular mechanisms underlying GPCR in humans. Specifically, opioid receptors regulated the sperm fertility through the modulation of calcium channels and phosphorylation changes in sperm-specific proteins suggesting that could be considered as potential targets for reproductive management.

SPANX-A/D protein family belongs to the sperm-specific proteome in humans and its implication in fertility is largely unknown. Specifically, this family is part of a superfamily known as “Cancer Testis Antigens” (CTA), whose expression is limited to the testis and spermatozoa and to a wide variety of tumors. Thus, a better comprehension of the physiological function of SPANX-A/D in human spermatozoa could help us to understand its physiological role in cancer. By combining different approaches involving molecular biology and functional studies we provided a functional characterization of the physiological and physiological role of SPANX-A/D protein family. Specifically, SPANX-A/D protein family plays a multifunctional role in human spermatozoa. Moreover, it may act as a scaffold protein forming complexes into the nuclear envelope, promoting its physiological and physiopathological function by regulating nuclear processes in human spermatozoa and melanoma.

The results obtained in the following PhD thesis, could provide with valuable tools for a better comprehension of the sperm-specific molecular mechanisms underlying sperm fertility. This information could be essential for the identification of therapeutic targets for male infertility and skin tumors and to develop safer male contraceptives and tumor-directed pharmacological drugs.

LABURPENA

Eiakulatu berri diren giza espermatozoideak heldugabeak dira eta ugalkortasun ahalmena lortzeko emakumezkoaren ugaltze-traktuan zenbat aldaketa biokimiko eta fisiologiko pairatu behar dituzte. Sekuentzialki, espermatozoideek mugitzeko ahalmena, kapazitazioa, hiperaktibazioa eta erreakzio akrosomikoa bezalako prozesuak aurrera eraman behar dituzte obozito bat ernaldu ahal izateko. Jakina denez, gameto arrek espermatozoide-espezifikoak diren proteinak adierazten dituzte, proteoma guztiaren %30a osatzen dutelarik. Hori dela eta, giza espermatozoideen emankortasuna espermatozoide-espezifikoak diren mekanismo molekularren bidez erregula liteke.

Ezaguna denez, mekanismo ionotropikoek giza espermatozoideen emankortasuna erregulatzen dute kanale ionikoen eta erantzun azkarren bitartez. Hala ere, gaur egun, giza espermatozoideen gainazalean adierazten diren G-proteinetara loturiko hartzaileek (GPCR) emankortasunaren erregulazioan eginkizun garrantzitsua izan lezaketela uste da. Behin estimulua jasota GPCR hartzaileek G proteinen bidez seinaliztapen bidezidor intrazelular desberdinak pizten dituzte erantzun zelular espezifikoetan bukatu arte. Hartzaile hauek prozesu fisiologiko anitzetan parte hartzen dute eta gaur egun, industria farmakologikoan itu terapeutiko garrantzitsuak kontsideratzen dira. Giza espermatozoideetan, ordea, GPCR hartzaileen azpitik induzitzen diren seinaliztapen bidezidorrak aski ezezagunak dira. Hartzaile opioideak ikerketa eredu bezala erabiliz, azterketa fosfoproteomiko eta funtzionalek erakutsi dute giza espermatozoideek mekanismo molekular espezifiko eta bakarrak aurkezten dituztela GPCR hartzaileen azpitik. Bereziki, hartzaile opioideek giza espermatozoideen ahalmen ugalkorra erregulatzen dute kaltzio kanaleak modulatuz eta fosforilazio aldaketak sortuz espermatozoideek soilik adierazten dituzten proteina espezifikoetan.

Beste alde batetik, SPANX-A/D proteina familia espermatozoide-espezifikoa den proteomaren parte da eta emankortasunean betetzen duen funtzioa oraindik ez da argitu. Bereziki, ingelesezko “Cancer Testis Antigen” (CTA) taldearen barruan sartzen da, izan ere, bere adierazpena espermatozoideetara mugaturik egoteaz gain zenbait minbizietan ere agertu egiten da. Hori dela eta, SPANX-A/D proteina familiak giza espermatozoideetan betetzen duen funtzio fisiologikoa baliogarria litzateke minbizian duen funtzio fisiopatologikoa ulertzeko. Biologia molekularra aztergai duten teknikak eta azterketa funtzionalak erabilita, SPANX-A/D proteina familiaren karakterizazio funtzional fisiologikoa eta fisiopatologikoa egin ziren. Horien arabera, SPANX-A/D proteina familia funtzio nuklearraren erregulazioan dihardu giza espermatozoideetan eta melanoman.

Ondorengo doktore tesitik eratorritako emaitzek beraz, espermatozoide-espezifikoak diren proteinei eta horien mekanismo molekularrei buruzko informazio baliogarriaz hornitzen digute. Ezagutza hori gizonezkoaren antzutasuna zein azaleko minbizia tratatzeko itu terapeutikoen garapenerako erabilgarria izateaz gain, antisorgailuen eta tumoreetara zuzenduriko farmakoen sorkuntzan ezinbestekoa litzateke etorkizunean.

RESUMEN

Los espermatozoides liberados durante la eyaculación son inmaduros y deben sufrir una serie de cambios bioquímicos y morfológicos en el tracto reproductor femenino. Secuencialmente, los espermatozoides humanos deben adquirir la capacidad de movimiento para después sufrir la capacitación, hiperactivación y reacción acrosómica, y así poder fecundar un ovocito. Debido a que los espermatozoides presentan un proteoma único con un 30% de proteínas espermatozoide-específicas, los mecanismos moleculares por los que regulan la fertilidad podrían a su vez presentar características especiales.

Tal y como otros autores han descrito previamente, la fertilidad del espermatozoide está principalmente regulada por mecanismos ionotrópicos a través de canales iónicos y respuestas fisiológicas rápidas. Sin embargo, la presencia de numerosos receptores acoplados a proteínas G (GPCR) en la membrana plasmática de los espermatozoides humanos sugiere que estos podrían ser importantes reguladores de su fisiología. En respuesta a estímulos externos, los GPCR transducen señales a través de proteínas G para iniciar vías de señalización intracelulares que terminan en respuestas celulares específicas. Estos receptores participan en una gran variedad de procesos fisiológicos y a día de hoy se consideran una de las mejores dianas terapéuticas en la industria farmacológica. A pesar de ello, las vías de señalización subyacentes a los GPCR en espermatozoides humanos son desconocidas. Utilizando los receptores opioides como modelo de estudio, análisis fosfoproteómicos y funcionales revelaron mecanismos espermatozoide-específicos inducidos por los GPCR. Específicamente, los receptores opioides regulan la fertilidad del espermatozoide humano a través de la modulación de los canales de calcio y cambios de fosforilación en proteínas específicas de espermatozoides.

Por otra parte, la familia de proteínas SPANX-A/D pertenece al grupo de proteínas específicas de espermatozoides y su implicación en la fertilidad todavía no se ha elucidado. En concreto, es parte de una super familia de proteinas conocidas como “Cancer Testis Antigens” (CTA), expresadas unicamente en testículos y espermatozoides y en una gran variedad de tumores. Es por ello que una mayor comprensión de la función fisiológica de SPANX-A/D en los espermatozoides humanos podría ayudarnos a entender su función fisiopatológica en el cáncer. Combinando diferentes técnicas de biología molecular y estudios funcionales, presentamos la caracterización fisiológica y fisiopatológica de la familia SPANX-A/D. Concretamente, la familia de proteínas SPANX-A/D está involucrada en la regulación de funciones nucleares en los espermatozoides humanos y en el melanoma.

Los resultados obtenidos de esta tesis doctoral, podrían ser herramientas valiosas para tener un mayor entendimiento sobre las proteínas especificas de espermatozoides humanos y los mecanismos moleculares en los que éstas participan. Esta información podría ser de gran utilidad en la identificación de dianas terapéuticas en la infertilidad masculina y cáncer de piel, así como para desarrollar anticonceptivos masculinos y drogas farmacológicas dirigidas al tumor.

AURKIBIDEA
INDEX

AKRONIMOAK ETA LABURDURAK
ACRONYMS AND CONTRACTIONS

2n: Diploid
4n: Tetraploid
ABP: Androgen Binding Protein
ACN: Acetonitrile
ACR: Acrosin
ACRBP: Acrosin Binding Protein
ACTB: Actin, cytoplasmic
AKAP: A protein Kinase Anchoring Protein
ALH: Amplitude of Lateral Head Displacement
APN: Aminopeptidase N
AR: Acrosome Reaction
ATP: Adenosine Triphosphate
BCA: Bicinchoninic Acid
BSA: Bovine Serum Albumin
Ca^{+2}: Calcium
CAA: ChloroAcetamide
CABYR: Calcium-binding Tyrosine phosphorylation-Regulated protein
CAGE: Cancer Associated Gene
CaMK: Ca^{+2}/Calmodulin-dependent Protein kinase
cAMP: cyclic Adenosine Monophosphate
CBY: Chiby
CCDC: Coiled Coil Domain Containing
CGH: Chorionic Gonadotrophin Hormone
CNG: Cyclic Nucleotide Gated
COX: C Cytochrome Oxidase
CRH: Corticotropin Releasing Hormone
CTA: Cancer Testis Antigen
CTCF: Corrected Total Cell Fluorescence
DAG: Diacylcgycerol
DHT: Dihydrotestosterone
DNA: Deoxyribonucleic Acid
DNAH: Axonemal Dynein Heavy Chain
DOR: Delta Opioid Receptor
DPDPE: [D-Pen2,5]-Enkephalin hydrate
DTT: Dithiothreitol
ECL: Enhanced Chemoluminiscence
EGTA: Ethylene Glycol Tetra-acetic Acid

EIF4A3: Eukaryotic Initiation Factor 4A-III
EJC: Exon Junction protein Complex
EOP: Endogenous Opioid Peptide
EPAC: Exchange protein activated by cAMP
ERK: Extracellular-Signal- Regulated Kinase
FDR: False discovery rate
FH: Fumarate Hydratase
FS: Fibrous Sheath
FSH: Follicle-Stimulating Hormone
FSIP: Fibrous Sheath Interacting Protein
GAGE: G Antigen Gene
GDP: Guanosine Diphosphate
GnRH: Gonadotropin Releasing Hormone
GPCR: G protein coupled receptors
GRK: G protein Receptor Kinase
GTP: Guanosine Triphosphate
HA: Hyperactivation
HCO_3^-: Bicarbonate
HIST1H4A: Histone H4
HSPA8: Heat Shock Cognate 71 kDa Protein
IP_3: Inositol Triphosphate
IP_3R: Inositol Triphosphate Receptors
JNK: c-Jun N-terminal Kinase
K^+: Potasium
KOR: Kappa Opioid Receptor
LC-MS/MS: Liquid chromatography tandem mass spectrometry
LDH: Lactate Deshydrogenase
LH: Luteinizing Hormone
LIN: Linearity Progession
LMNA: Lamin A/C
MARCKS: Myristoylated Alanine-Rich C Kinase Substrates
MAGE: Melanoma Antigen Gene
MAGOH: Protein Mago Nashi Homolog
MAPK: Mitogen Activated Protein Kinase
MOR: Mu Opioid Receptor
MS: Mass Spectrometry
n: Haploid
NADH: Nicotinamide AdenosineDinucleotide Hydride
NDUFAF: Ubiquinone Oxidoreductase Complex Assembly Factor
NEP: Neutral Endopeptidase
NLS: Nuclear Localization Signal

NO: Nitric Oxide
NUP: Nucleoporin
ODF: Outer Dense Fiber
ON: Over Night
ORL: Opioid Receptor Like
PA: Phosphatidic Acid
PC: Phosphatidylcholine
PBS: Phosphate Buffered Saline
PDYN: Prodynorphin
PENK: Proencephalin
PFA: Paraformaldehide
PGK: Phosphoglycerate Kinase
PI4P5K: Phosphatidiylinositol 4-Phosphate-5-Kinase
PIP2: Phosphatidylinositol 4,5-bisphosphate
PKA: Protein Kinase A
PKC: Protein Kinase C
PLA: Phospholipase A
PLC: Phospholipase C
POMC: Propiomelanocortin
PRKAR1A: Protein Kinase cAMP-dependent type I Regulatory Subunit Alpha
PSA: Prostate Specific Antigen
pTyr: Tyrosine phosphorylated
PVDF: Polyvinylidene Fluoride
RhoGEF: Rho Guanine Nucleotide Exchange Factor
RIIAD: Regulatory Subunit of Typer PKA R-subunit
RIPA: Radioimmunoprecipitation Assay Buffer
RNA: Ribonucleic Acid
ROPN: Ropporin
RPL38: 60S Ribosomal Protein L38
RT-PCR: Reverse Transcriptase- Polymerase Chain Reaction
RT: Room Temperature
RyR: Ryanodine Receptors
SACY: Soluble form of Adenylyl cyclase
SDS: Sodium Dodecyl Sulfate
Ser: Serine
shRNA: short hairpin RNA
SLCO: Solute carrier organic anion Transporter
SNARE: Soluble N-ethylmaleimide-sensitive factor Attachment protein Receptors
SOC: Store-Operated Channels
SPA: Sperm Autoantigenic Protein
SPANX: Sperm Protein Associated with the Nucleus mapped to the X chromosome

SPATA: Spermatogenesis Associated Protein
SSX: Sinovial Sarcoma X breakpoint
STR: Straightness
TCGA: The Cancer Genome Atlas
TEKT: Tektin
TFA: Trifluoroacetic Acid
TGF: Transforming Growth Factor
Thr: Threonine
TM: Transmembrane
tmAC: transmembrane Adenylyl cyclase
TMEM190: Transmembrane 190 protein
TMT: Tandem Mass-Tag
tRNA: transfer Ribonucleic Acid
TRP: Transient Receptor Potential
U50488H: (−)-trans-(1S,2S)-U-50488 hydrochloride hydrate
VAP: Average-path Velocity
VCL: Curvilinear Velocity
VCP: Valosin Containing Protein
WHO: World Health Organization
ZP: Zona Pellucida

1. Sarrera

Introduction

1. SARRERA

1.1. GIZONEZKOAREN UGAL-APARATUA

1.1.1. Gizonezkoaren ugal-aparatuaren anatomia fisiologikoa

Gizonezkoen ugal-aparatua testikuluek, epididimoak, hodi deferenteak, hodi isurleak, guruin besikularrak, prostatak, guruin-bulbo uretralak, uretrak eta zakilak osatzen dute (1.1 Irudia). Ondoren osagai bakoitzaren deskribapen anatomikoa eta funtzionamendu biologikoa azalduko dira.

Testikuluak

Testikuluak gonada maskulinoak dira eta espermatozoideak sortzeaz eta metatzeaz gain, hormona sexualak (testosterona) ere jariatzen dituzte. Forma obalatua duten organo espezializatu hauek eskroto deituriko azal egitura batean biltzen dira zakilaren azpian (1.2 Irudia). Eskrotoa, testikuluak barrunbe abdominaletik at zintzilikatzeaz arduratzen da, hauek gorputzaren tenperatura ohikoena baino 2-3°C baxuagoan manten daitezen. Izan ere, testikuluen tenperatura behar bezalakoa baino altuagoa denean, espermatogenesian akatsak sor daitezke (Munkelwitz and Gilbert, 1998; Zorgniotti et al., 1980). Testikuluak tubulu seminiferoez eta sare testikularrez osaturik daude.

Tubulu seminiferoak testikuluen barneko ehunka hodixka bihurri eta era oso trinkoan paketaturik dauden egiturak dira. Tubuluetan espermatogenesia izeneko prozesua burutzen da, espermatozoidearen formakuntza helburu duena. Tubuluak 200-300 lobuluez osaturik daude, guztiek sare testikularra eratuz (Rhoades and Tanner, 1997; Tortora and Derrickson, 2013). Hain zuzen ere, tubulu seminiferoek euren edukia sare testikularra izeneko gune biltzailera jariatzen dute eta ondoren testikuluetako hodi eferenteetatik epididimora eramaten dituzte (Guyton and Hall, 1997).

Epididimoa

Epididimoa testikuluen atzean kokatzen den organoa da eta hodi deferentea eta testikulua lotzeaz arduratzen da. Testikulu bakoitzak epididimo bat dauka, beraz gizonezkoek bi epididimo dauzkate. Organo honek gizakian 5-6 metro neurtzen ditu luzeran eta espermatozoideek 3 egunetik gora behar dituzte bide hori egiteko (Wen and Yang, 2000). Epididimoa, hiru zatitan banatzen da: epididimoaren burua, gorputza eta isatsa. Ondoren, ikusiko dugun bezala, funtzionalki epididimoa espermatozoideen heltzeaz arduratzen da hauek mugitzeko ahalmena gara dezaten. Testikuluen eta epididimoaren jariakina hazi-likidoaren %5a bada ere, gametoen ugal-prozesurako ezinbestekoak diren propietateak berenganatzen laguntzen dute (Jequier and Crich, 1986).

Hodi deferenteak

Hodi deferenteak 45cm inguru duen hodia da eta epididimoaren edukia jasotzeaz arduratzen da, ondoren hodi isurlera eramateko. Funtzionalki hodi deferenteek epididimotik espermatozoideak helarazten dituzte uretrarantz mugimendu peristaltikoen bitartez. Bide horretan zehar dagoen anpulua hazia biltegiratzeaz arduratzen da. Hilabetetan biltegiratuta dagoen eta eiakulatzen ez den hazia birxurgatu egiten da (Tortora and Derrickson, 2013).



1.1 irudia. Gizonezkoen ugal-aparatuaren atalak. Azalpena testuan. (Tortora and Derrickson, 2013-tik moldatua).

Guruin osagarriak

Arestian aipatutako organo eta hodiek espermatozoideak biltegiratu eta garraiatzen dituzte baina guruin osagarriek giza haziaren likidoaren zatirik handiena jariatzeaz arduratzen dira. Hauen funtziorik nagusiena espermatozoidearen biziraupena eta ugalkortasuna mantentzea da (Jequier and Crich, 1986). Izan ere, espermatozoideak epididimotik uretraraino garraiatzeko prozesuan zehar guruin osagarrien jariakin guztiekin nahasten dira. Hain zuzen ere, ekintza horri emisio deritzo eta epididimoaren, hodi deferenteen eta hodi isurleen muskuluen uzkurketari esker gertatzen da (Rhoades and Tanner, 1997; Tortora and Derrickson, 2013). Guruin besikularrak, prostatak eta guruin bulbo uretralak guruin osagarriak dira.

Guruin besikularra

Guruin besikularrak gernu-maskuriaren azpian kokatuta daude, hodi deferenteen anpuluaren ondoan hain zuzen ere. Hauek, jariakin horixka eta gelatinotsua sortzen dute hazi-likidoaren %60-80a osatuz. Guruin besikularrek ez dute espermatozoiderik biltegiratzen eta ejakulazioan zehar gertatzen den muskulu leunaren uzkurketak jariakina uretrarantz bidaltzen du. Jariakin hori fruktosan, zitratoan, amino azidotan eta prostaglandinetan bereziki aberatsa da. Gainera bere izaera alkalinoak gizonezkoaren uretraren eta emakumezkoaren ugal-aparatuaren ingurune azidikoa indargetzeaz arduratzen da espermatozoideak bizirik iraun dezaten. Fruktosa espermatozoidearen ATParen sintesirako erabiltzen da eta prostaglandinek espermatozoideen mugikortasunean funtzio garrantzitsua betetzen dute, besteak beste (Tortora and Derrickson, 2013; Vaamonde et al., 2016).

Prostata

Prostata gernu-maskuriaren azpiko aldean dagoen guruina da eta uretrarekin konektatuta dago (Rhoades and Tanner, 1997). Prostatak izaera esnetsua eta zertxobait azidikoa (pH 6.5) duen jariakina sortzen du. Honek likido seminalaren %15-30a osatzen du eta zenbait sustantziaz konposaturik dago: (1) Azido zitrikoak espermatozoidearentzat baliogarria den ATPa sortzen du Krebs zikloaren bidez, (2) prostata-antigeno espezifikoa (PSA), pepsinogena, lisozima, amilasa eta hialuronidasa bezalako entzima proteolitikoek guruin besikularretik eratorriak diren koagulazio proteinak apurtzen dituzte, (3) funtzio ezezaguna duen fosfatasa azidoa eta (4) emakumezkoaren ugal-aparatuan dauden bakterioak suntsitu ditzazkeen seminalplasmina (Tortora and Derrickson, 2013; Vaamonde et al., 2016).



1.2. Irudia. Testikuluaren barne anatomia. Azalpena testuan. (Tortora and Derrickson, 2013-tik moldatua).

Guruin bulbo-uretrala

Guruin bulbo-uretralak "Cowper"-en glandulak deitzen dira eta hazi-likidoari azken bi jariakinak gehitzen dizkiote. Kitzikapen sexualean zehar guruin bulbo-uretralek jariakin alkalinoa isurtzen dute uretrara. Likido honek hazi-likidoaren %2-5a osatzen du, glukoproteinetan aberatsa da eta izaera gelatinotsua eta urtsua ditu. Jariakinaren edukiak ez du espermatozoiderik eta bere funtzio nagusienak uretraren lubrikazioa eta espermatozoideen babespena dira (Jequier and Crich, 1986; Tortora and Derrickson, 2013; Vaamonde et al., 2016).

Uretra

Uretra gernu-maskuritik gernua hustutzeaz arduratzen bada ere, gizonezkoen ugal-aparatuaren parte ere bada semena gorputzetik kanpo jariatzen baitu (Vaamonde et al., 2016). Izan ere, testikuluaren eta kanpo-ingurunearen arteko azken egitura da. Uretra zati prostatikoaz, zati menbranosoaz eta zati arolaz osaturik dago. Uretraren zati arola zakilaren barruan dago eta gorputz arolak inguratzen du. Haziaren-isurtzea hazia uretratik kanporatzean ematen da (Guyton and Hall, 1997).

Zakila

Zakila gizonezkoaren kopulaziorako organoa da. Pubisaren aurreko aldean eta eskrotoaren gainean kokaturik dago. Zakil bigunak bataz beste 10cm-ko luzera dauka eta forma zilindrikoa dauka. Zakil tentetuak ordea, bataz beste 16cm-ko luzera hartzen du eta prisma triangeluarraren forma dauka ertz borobilduekin. Zakila gernua eta hazia jariatzeaz arduratzen da.

Hazia espermatozoideen eta likido seminalaren arteko nahasketa da (tubulu seminiferoetatik, guruin besikularretatik, prostatatik eta guruin bulbo uretraletatik eratorritako jariakinez osaturik). Ohiko eiakulazio batean isuritako semenaren bolumena 2.5-5 ml-takoa da 50-150 milioi espermatozoide/ml-ko dituelarik. Jariakin prostatikoak izaera azidikoa badu ere, semenak pH alkalinoa dauka (pH 7.2-7.7) guruin besikularrek isurtzen duten jariakinaren pH eta bolumen altuari esker. Jariakin prostatikoak semenari izaera esnetsua ematen badio ere guruin besikularrek eta bulbo-uretralek isuritako konposatuek izaera likina ematen diote. Gainera, semenaren likido seminala espermatozoideentzat beharrezkoak diren nutrienteez osaturik dago eta zelulen garraioan eta babesean funtzio garrantzitsua dauka (Tortora and Derrickson, 2013; Vaamonde et al., 2016).

1.2. ESPERMATOGENESIA

Espermatogenesia testikuluetako tubulu seminiferoetan gertatzen den prozesua da. Prozesu hau hozi zelula ametatik espermatozoidera arteko desberdintzapenean oinarritzen da. Espezifikoki, espermatogenesian zehar espermatogonia diploideetatik gameto haploideak sortzen dira (Vaamonde et al., 2016). Prozesu biologiko konplexu hau pubertaroan hasten da eta gizonezkoaren bizitza guztian zehar mantentzen da, zahartzaroan urritze txikia nabarituz (Sadler, 2004). Espermatogenesiak testikuluen zeluletan gertatzen diren adierazpen genikoaren eta zatiketa zelularraren arteko sikronizazio konplexua behar du. Prozesuaren hasiera hormona gonadotropikoen (FSH eta LH) kontzentrazioaren igoerarekin gertatzen da eta ondorioz testikuluetako Leydig zelulak testosterona hormona jariatzen hasten dira.

Espermatogenesiak 64-74 egun inguru behar ditu espermatozoide helduak (zelula haploideak) espermatogonietatik (zelula diploideak) sortu arte. Hala ere, ziklo bakoitza bukatu baino lehen modu paraleloan 2-3 asteko erregulartasunez ziklo berriak hasten dira. Hori dela eta, tubulu seminifero bakoitzak garapen-egoera desberdinean dauden zelulak izango ditu garatuenak tubuluaren lumen aldera kokatuz. Sertoli zelulak tubulu horien alde basalean kokatzen dira eta espermatogenesia erregulatzen dute, odolaren eta tubuluaren arteko hesia edo muga hematotestikularra eratuz (Ogawa et al., 2005).

Espermatogenesiaren prozesua hiru fase desberdinetan bana daiteke (1.3 eta 1.4 Irudiak):

1.- ***Fase mitotikoa:***

Enbrioaren garapenean zehar, hozi zelula primordialak testikuluetara heltzen dira eta espermatogonia deituriko zelula germinatibo heldugabeetan bihurtzen dira. Lehenengo fase hau pubertaroarekin hasten da eta espermatogoniak mitosiaren bidez zatitzen hasten dira. Heldugabeak diren zelula germinatiboak edo espermatogoniek informazio genetikoa errepikaturik daukate (diploideak edo 2n). Giza testikuluan bi motako espermatogoniak aurki daitezke: A motako espermatogoniak (46, 2n), zatiketa mitotiko mugatua burutzeko eta populazioa mantentzeko gai direnak; eta B motako espermatogoniak (46,2n), aurrekoen zatiketa mitotikoetatik eratorriak direnak eta meiosiaren prozesua hasten dutenak (Clermont, 1972; Kierszenbaum and Tres, 2012).

2.- Fase meiotikoa:

Fase honetan zehar zelulen eduki genetikoa erdira murrizten da. Izan ere, zelulak diploide izatetik (2n) haploide (n) izatera pasatzen dira. Gainera, denbora tarte honetan zehar kromosoma homologoen errekonbinazioa gertatzen da gizonezkoak sortu ditzazkeen espermatozoide guztiek konbinazio geniko desberdinak izanik eta aldakortasun genetikoa handituz (Clermont, 1972; Kierszenbaum and Tres, 2012).



1.3. Irudia. Espermatogenesiaren faseak. Zelula diploideek (2n) 46 kromosoma dituzte eta zelula haploideek (n) 23. Zelula ama germinaletatik eratorritako A motako espermatogoniak, espermatogenesi prozesuaren lehenengo zelulak dira. Zelulen zatiketaren bidez zelula-klonak eratzen dira eta zelula berri horiek guztiak, zubi zitoplasmatikoen bidez, lotuak geratzen dira espermatozoideak hondakin-gorputzetatik banatzen diren arte. (Vaamonde et al., 2016-tik moldatua).

Etapa hau B motako espermatogonioen lehen zatiketa mitotikoarekin hasten da. Bertan, DNA bikoizten da eta espermatozito primario bihurtzen dira (46, 4n). Espermatozito hauek meiosiarekin jarraitzen dute lehen zatiketa meiotikoaren ostean bi espermatozito sekundario (23, 2n) sortuz.

Lehen zatiketa meiotikoak profase luzea dauka eta leptoteno, zigoteno, pakiteno, diploteno eta diakinesia izeneko azpifaseak ditu. Hauek oinarrizko lau gertakariek bereitzen dituzte: 1) konplexu sinaptonemalaren sorkuntza kromosoma homologoen arteko sinapsia errazteko, 2) sinapsia edo kromosoma homologoen arteko elkarketa, 3) kromosoma homologoen kromatida ez-ahizpen arteko geneen informazio-trukea eta 4) gurutzatutako kromosoma homologoen banaketa (Kierszenbaum and Tres, 2012).

Espermatozito sekundarioek bigarren meiosia egiterakoan karga genetikoa erdira murrizten dute bakoitzak 2 espermatida haploide sortuz (23, 1n). Beraz, fase honetan sartzen den

espermatogonia bakoitzak, lau espermatida sortuko ditu. Aipatzekoa da Sertoli zelulak garatzen ari diren espermatozoideak elikatzeaz eta babesteaz arduratzen direla (Clermont, 1972; Kierszenbaum and Tres, 2012).

3.- Espermiogenesia:

Fase honetan zehar espermatidak espermatozoide heldu bihurtzen dira. Hain zuzen ere, espermatidak ziklo mitotiko berrian sartzen dira, bakoitzak bi espermatida berri sortuz. Espezifikoki, fase horretan espermatozoidearen gorputzaren eta materia nuklearraren heltzea gertatzen da. Espermatogonietatik hasita eta espermatiden sorrerarekin bukatzen den prozesuan zehar ez da zitozinesi osoa gertatzen, eta horregatik zelula batetik eratorritako zelula-klon luzeak zubi zitoplasmatikoen bidez lotuak agertzen dira. Puntu horretan, axonemaren garapena gertatzen da erdiko piezaren eta mikrotubuluen lodierarekin. Gainera flageloa eratzen da zelula baten zentrioloetatik abiatuta. Nukleoaren heltzea DNA-ren kondentsatzio eta paketatzearekin hasten da, lehenengo proteina basikoekin eta ondoren protaminekin. Fase honetara heldu eta gero kromatina ez da inoiz gehiago transkripzionalki aktiboa izango. Ondoren akrosoma garatzen da Golgi aparatutik abiatuz eta zitoplasmaren zati nagusia desagertuko da (Kierszenbaum and Tres, 2012; Tortora and Derrickson, 2013; Vaamonde et al., 2016).

Behin espermatozoideak eraturik daudenean, espermazioaren bidez tubuluaren argira askatzen dira. Ezaguna da, egunero eta egoera normalean, gizonezko batek 50-150 milioi espermatozoide inguru jariatzen dituela tubulu seminiferoetara (Clermont, 1972).



1.4.Irudia. Tubulu seminiferoen anatomia mikroskopikoa eta espermatogenesiaren faseak. Espermatozitoen garapena tubulu seminifero baten zehar-ebakian. Xafla basalean, zelula ama germinalen populazioa dago (espermatogoniak). Zelula horiek zatitzean sortzen diren zelula alabak lumen aldera migratuko dute eta 64 egun eta gero, espermatozoideetara desberdintzen dira (Tortora and Derrickson, 2013-tik moldatua).

1.2.1. Espermatozoideen heltzea

Espermatogenesia bukatu ondoren espermatozoideak tubulu seminiferoko argira askatzen dira eta epididimoaren lehen ataletan ez dira gai obozitoa ernaltzeko. Aitzitik, epdidimoan 18 eta 24 ordu bitartean egon eta gero, mugikortasun gaitasuna garatzen dute (Amann and Howards, 1980). Hala ere, epididimoaren jariakinean dauden proteina inhibitzaileek eiakulazioa gertatu arte benetako mugikortasuna inhibitzen dute (Yoshida et al., 2008).

Espermatozoideek zenbait egun behar dituzte epididimoa zeharkatzeko baina aipatu bezala, hauek ez dira dira "heldutzat" hartzen eta ez dira obozito bat *in vivo* edota *in vitro* ernaltzeko gai. Hori dela eta, aldaketa morfologikoez gain, aldaketa fisiologiko eta biokimikoak jasan behar dituzte emakumezkoaren ugaltze traktuan. Aldaketa horiei guztiei espermatozoidearen heltze-prozesu deritze (De Jonde, 2005; Suarez, 2008a; Yanagimachi, 1994).

Mugimendu peristaltikoen bidez, espermatozoideak sare testikularra igaro eta hodi efereentatik epididimora heltzen dira. Alde batetik, epididimoaren burutik isatserainoko bidean, espermatozoideek mugikortasun ahalmena berenganatzen dute zitosoleko AMP ziklikoa (cAMP) eta ATParen mailak igoz eta epididimoaren isatsean metatuz. Beste alde batetik, espermatozoideek zenbait molekula trukatzen dituzte ingurunearekin, izan ere, gluzido, proteina eta lipido ugari mintzetik erauzi, eraldatu eta berenganatzen dituzte (Yanagimachi, 1994). Heltze-prozesuaren helburu nagusiak, beraz, mugikortasuna lortzea eta obozitoa ezagutu eta berarekin fusionatzeko beharrezkoak diren konposatuak berenganatzea dira (Gatti et al., 2004). Hala ere, geroago sakonduko dugun bezala, ernalketarako gaitasun osoa emakumezkoaren ugaltze traktuan bukatzen da, espermatozoidearen kapazitazioarekin, erreakzio akrosomikoarekin eta gametoen fusioarekin (Sadler, 2004).

1.2.2. Espermatozoideen isurtzea

Behin espermatozoideak "heldu" bilakatu direnean, gizonezkoaren ugal aparatutik kanporatuak izan arte, hodi deferentean eta haren anpuluan denbora luzez egon daitezke metaturik. Gizonezkoaren kitzikatze eta erekzioarekin batera, emisio izeneko prozesuari hasiera ematen zaio. Horretan, espermatozoideak likido seminala osatzen duten zenbait jariakinekin elkartzen dira. Behin uretra giza haziarekin bete denean, zentzumen-seinaleak sortu egiten dira eta hazia zakiletik kanpo isuri egiten da. Aipatzekoa da isurtzen den hazia osagai zelularrez (espermatozoideak, linfozitoak, Sertoli eta Leydig zelulak) eta osagai jariatuez (likido seminala) osaturik dagoela.

Likido seminala espermatozoideak emakumezkoaren ugal aparatuan barrena garraiatzeaz arduratzen da. Behin giza hazia emakumezkoaren ugaltze traktuan dagoenean, koagulazioa gertatzen da fibrinogeno eta semenogelinari esker, haziak baginatik alde egin ez dezan eta horren alde sakonetan manten dadin. Ondoren, fibriolisinari esker, koagulua 15 minutuan disolbatzen da espermatozoideen mugikortasuna areagotuz. Gainera, likido seminalean

dauden faktore inhibitzaileek kapazitazioa eta erreakzio akrosomiko espotaneoa sahiestu egiten dute, haien bideragarritasuna mantenduz (Guyton and Hall, 1997).

1.2.3.Espermatogenesiaren erregulazioa

Espermatogenesia hasten duten hasierako faktoreak ezezagunak badira ere, pubertaroan zehar hipotalamoan aurkitzen diren zelula neurojariakorrek gonadotropinaren hormona jariatzailea (GnRH) askatzen dute. Hormona honek aurreko pituitarian dauden gonadotrofoak estimulatzen ditu bi gonadotropinen jariaketa areagotzeko: hormona luteinizatzailea (LH) eta folikuluen estimulazioarako hormona (FSH). 1.5 irudian testosterona jariaketa eta espermatogenesia kontrolatzen dituen feedback negatiboa azaltzen da. Bereziki, LHak tubulu seminiferoetan agertzen diren zelula interstizialak edo Leydigen zelulak estimulatzen ditu testosterona hormona jariatzen hasteko. Hormona esteroide hau androgenorik nagusiena da eta testikuluetan sintetizatzen da kolesteroletik abiatuta. Gainera, bere izaera lipidiko solugarriak zelula interstizialetatik likido interstizialera igarotzeko ahalmena ematen dio ondoren odolera isurtzeko. Feedback negatiboaren bidez, testosteronak LHaren jariaketa inhibitzen du aurreko pituitarian agertzen diren gonadotrofoen bidez eta ondorioz hipotalamoaren zelula neurojariakorrek GnRHaren jariaketa inhibituko dute. Zenbait zelula ituetan (prostatan eta kanpoko genitaletan, esaterako), 5 alfa-redukatasa izeneko entzimak testosterona dihidrotestosteronan (DHT) eraldatzen du (Tortora and Derrickson, 2013).

FSHak zeharka espermatogenesia estimulatzen du eta testosteronak sinergikoki jokatzen du Sertoli zelulengan androgenoei-loturiko proteina (ABP) tubulu seminiferoen lumenera eta zelula espermatogenikoen likido interstizialera jariatzeko. Horrela, ABPa testosteronarekin lotzen da horren kontzentrazioa altu mantentzeko. Testosteronak tubulu seminiferoetan gertatzen den espermatogenesiaren azken faseak estimulatzen ditu.
Behin gizakiaren ugalketarako funtzioak asetzeko beharrezkoa den espermatogenesi maila egokia lortu denean, Setoli zelulek inhibina izeneko hormona jariatzen dute aurreko pituitarian FSHren jariaketa inhibituz. Espermatogenesia astiroegi gertatzen bada eta honen areagotzea beharrezkoa bada, inhibina maila gutxitzen da FSHaren jariaketa ahalbidetuz eta espermatogenesia bultzatuz.

Beste alde batetik, testosterona eta dihidrotestosterona androgenoa hartzaile berdinetara lotzen dira, zeinak itu zelulen nukleoetan aurkitzen diren. Hormona-hartzaile konplexu horrek adierazpen genikoa erregulatzen du, gene batzuk aktibatuz edota inhibituz. Ondorioz, androgenoek zenbait efektu sortuko dituzte (Tortora and Derrickson, 2013):

- **Garapen prenatala**: Jaiotza baino lehenago, testosteronak gizonezkoaren ugal aparatuaren eraketaren aurrekariak diren zenbait organoren eraketa estimulatzen du. DHTak kanpo genitalen garapena bultzatzen du eta testosterona estrogeno (hormona femeninoa) bihurtzen da gizonezkoaren garunaren garapenean parte hartu dezan.
- **Gizonezkoaren sexu-ezaugarrien garapena:** Pubertaroan, testosteronak eta DHTak sexu-organoen handipena eta ezaugarri sexual sekundarioen garapena bultzatzen

dituzte. Sexu-ezaugarri sekundarioek gizonezkoak desberdintzatzen dituzte eta laringearen handitzea suposatzen du ahotsaren sakontzearekin.

- **Funtzio sexualen garapena:** Androgenoek espermatogenesia eta gizakiaren jarrera sexuala kontrolatzen dute emakumezko zein gizonezkoetan. Aipatzekoa da, emakumezkoetan giltzurrun kortexa dela andorgenoen iturririk nagusiena.
- **Anabolismoaren estimulazioa**: Androgenoak hormona anabolikoak dira eta proteinen sintesia bultzatzen dute. Efektu hau argia da gizonezkoen muskuluen tamainan eta hezurren masan emakumezkoekin alderatuta.

Beraz, feedback negatiboak testosteronaren ekoizpena erregulatzen du. Odoleko testosterona kontzentrazioa altua denean, hipotalamoko zelulen GnRH jariaketa inhibitzen da. Ondorioz, hipotalamotik aurreko pituitara doan odol emarian GnRH maila txikitzen da. Hori dela eta, aurreko pituitariako gonadotrofoek LH gutxiago jariatzen dute, odol sistemikoan mailak jaitsiz eta ondorioz, Leydig zelulek testosterona gutxiago jariatuz. Aitzitik, odoleko testosterona maila oso baxua bada, hipotalamoak berriz ere GnRH jariatzen du aurreko pituitariaren bidezko LH jarioa areagotuz. LHak era berean testosterona sintesia aktibatzen du testikuluetan (Tortora and Derrickson, 2013).



1.5. Irudia.Espermatogenesiaren erregulazioa eta testosterona eta dihidrotestosteronaren (DHT) eragina. Azalpena testuan. Lerro gorriak feedback negatiboaren inhibizioari egiten dio erreferentzia. (Tortora and Derrickson, 2013-tik moldatua).

1.3. ESPERMATOZOIDEAREN MORFOLOGIA

Espermatozoidea gorputzean aurki daitekeen zelularik txikiena eta espezializatuena da. Egunero 300 milioi espermatozoide inguru sortzen dira espermatogenesi prozesuan zehar. Espermatozoideak 60 µm-ko luzera (5 µm buruak) du eta obozitoa ernaltzeko egitura bereziak behar ditu. Hain zuzen ere, espermatozoidea bi zati nagusitan banatzen da: burua eta isatsa.

1.3.1. Burua

Espermatozoidearen burua konikoa da formaz eta akrosomaz, nukleoaz eta zitoplasmaz osaturik dago:

- ***Akrosoma:*** Espermatozoidearen buruaren alde apikalean kokatzen den besikula da. Espezifikoki nukleoaren eta mintz plasmatikoaren artean kokatzen da eta espermatogenesian zehar eratzen da, Golgi aparatutik hain zuzen ere. Akrosoma mintz batez inguraturik dago eta barruan fosfatasa azidoa edota hialuronidasa bezalako entzima hidrolitiko desberdinak gordetzen ditu. Entzima hauek, espermatozoideak obozitoaren matrize estrazelularra (mintz peluzidoa) zeharkatzeko beharrezkoak dira. Izan ere, izaera proteolitikoa daukate eta mintz plasmatikoa disolbatzen laguntzen dute. Akrosomaren barneko entzimen askapenari erreakzio akrosomikoa deritzo eta aurrerago azalduko dugu.

- ***Nukleoa:*** Nukleoak espermatozoidearen buruan dagoen espazioaren zatirik handiena okupatzen du eta honen formak espermatozoidearen buruaren forma baldintzatzen du. Egitura hau mintz nuklear batez inguraturik dago eta normalean honen ondoan zentriolo proximala aurkitzen da. Espermatozoideak erreakzio akrosomikoa jasan eta gero, nukleoa obozitora sartzen du. Nukleoak DNA eta proteina basikoak gordetzen ditu eta ez du nukleolorik honen barnean (Alberts et al., 2002). DNA oso paketatutarik dago espermatogenesian zehar protaminek histonak ordezkatu baitituzte eta ondorioz, transkripzioaren prozesua inaktibo mantentzen da proteina berriak sortzeko makinaria badute ere (Balhorn, 2007).

  Kromatinaren kondentsazio handiagatik, ez da ARN mezulari (mRNA) berririk *de novo* sortuko, eta zitoplasmaren tamaina murritza dela eta, mRNA hori ez da proteinetara itzuliko. Espermatozoide helduek beraz proteinen adierazpena inaktibaturik izango dute (Miller and Ostermeier, 2006). Honek esan nahi du espermatozoideak ez direla proteina berriak eratzeko gai eta espermatogenesian zehar sortutako bildumarekin heldu beharko direla obozitora. Hala ere, ikusi izan da epididimoan zeharreko garraioan, likido seminalean kontaktuan dauden bitartean edota emakumezkoaren ugal-aparatuan barrena daudenean, proteina eta lipidoen trukea gertatzen dela euren fisiologia modulatu ahal izateko (Schuel and Burkman, 2005). Bestalde, badirudi orain dela hamarkada bat sortutako hipotesia mantendu egiten dela. Izan ere, zenbait ikerlarik proposatu izan dute proteina jakin batzuen mRNA-ren itzulpena

mitokondrioetan egiten dela (Miller and Ostermeier, 2006). Honez gain mRNA hau, badirudi baliogarria litzakeela zigotoaren garapenerako lehenengo faseetan.

- ***Zitoplasma:*** Espermatozoideek zitoplasma oso murritza dute, izan ere, espermatogenesiaren azken fasean edo espermiogenesian galtzen dute. Espezifikoki, espermatozoideak epididimoan heltzen direnean eta tubulu seminiferoen epiteliotik askatzera doazenean gertatzen da. Askatzen den zitoplasma zatiari "hondakin gorputza" deritzo. Testikuluen lumen tubularrean, Sertoli zelulek hondakin gorputzen zatirik handiena fagozitatzen dute eta geratzen den zitoplasma zatiari "tanta zitoplasmatikoa" deritzo (Huszar et al., 1998). Giza espermatozoideek tanta zitoplasmatikoaren zati txikia erdiko piezan atxikiturik dute (Rengan et al., 2012).



1.6. Irudia. Espermatozoidearen eta isatsaren ultraegituraren irudi eskematikoa. **A)** Gizakiaren espermatozoidea buruaz (akrosoma, nukleoa eta zitoplasma) eta isatsaz (lepoa, tarteko zatikia, zatiki nagusia eta bukaerako zatikia) osaturik dago. **B)** Tarteko zatiaren zehar-ebakiaren eskema. Bertan, kanpotik barrura, mintz plasmatikoa, mitokondrien geruza, 9 kanpo-zuntz dentso eta axonema eratzen duten egiturak [mikortubulu-bikoteen eraztuna, dineinazko besoak eta erdiko mikrotubulu-bikotea] daude. **D)** Zatiki nagusiaren zehar-ebakiaren eskema. Bertan, mintz plasmatikoa, 7 kanpo-zuntz dentso eta 2 zuntzezko mintz zutabe daude. Axonemako osagaiak ez dira aldatzen. **E)** Bukaerako zatiaren zehar-ebakiaren eskema. Bertan, mintz plamatikoa eta axonema agertzen dira. Azalpena testuan. (Turner, 2006-tik moldatua).

1.3.2. Isatsa edo flageloa

Espermatozoidearen isatsa edo flageloak gameto arrari mugitzeko ahalmena ematen dio. Zelula eukariotikoen flageloetan, mugimendua sortzeko motorrari axonema deritzo. Axonemaren egitura espermatozoideen isatsaren zatiki guztietan mantentzen den egitura komuna da eta mikrotubuluz eta proteinez osaturik dago. Kanpoko aldean, tubulinaz eraturiko 9 mikrotubulu bikotea agertzen dira eraztun bat osatuz eta erdian bi mikrotubulu azaltzen dira. Mugimendu flagelarra dineina izeneko proteina motore batzuen bidez gertatzen da eta hauek mikrotubulu bikoteetara loturik daude. Proteina horrek, ATP hidrolisiaren bidez, energia kimikoa energia mekaniko bihurtzeko ahalmena dauka mikrotubuluen arteko "irristadura" ahalbidetuz, eta ondorioz mugimendua sortuz (Alberts et al., 2002; Marigomez and Cajaraville, 1999). Isatsa lau zatitan banatzen da: lepoa, tarteko zatikia, zatiki nagusia eta bukaerako zatikia (Tortora and Derrickson, 2013):

-***Lepoa:*** Buruaren eta isatsaren arteko giltzadura da. Lepoa bi zentriolo motaz osaturik dago: zentriolo proximala eta distala. Bi zentrioloak oso hurbil kokaturik daude bata bestearengatik eta ernalkuntza prozesuan zehar nukleoarekin batera obozitora sartzen dira. Izan ere, bi zentriolo mota hauek beharrezkoak dira zigotoaren zatiketa zelularra hasteko. Ezaguna denez, zentrioloek ardatz mitotikoa sortzen dute. Aipatzekoa da zentriolo distalak espermatozoidearen isatsaren mikrotubuluen eraketan parte hartzen duela.

-Tarteko zatikia: Axonemaren inguruan, 9 kanpo-zuntz dentso daude eta haien inguruan mitokondrioz osaturiko geruza bat dago. Askotan, mitokondrio ugari agertzen dira fusionaturik zuntzen inguruan espiral bat sortuz. Mitokondrioek ATPa sortzen dute, zelularen mugikortasuna lortzeko. Dena inguratzen mikrotubuluz osatutako mintz plasmatikoa dago. Mintz horri "*manchette*" deitzen zaio.

-Zatiki nagusia: Espermatozoidearen flageloaren zatirik luzeena osatzen du eta axonema inguratzen duten kanpo zuntz-dentsoak daude, baina egitura honetako 3. eta 8. posizioetan zuntzezko bi zutabe agertzen dira. Antolaketa honek, bi konpartimentutan banatzen du zatiki nagusia: batek 3 zuntz izanik eta besteak 4, isatsaren bultzada areagotuz norabide baterantz. Zatiki honetan ere ATPa sortzen da.

-***Bukaerako zatikia:*** Axonema eta mintz plasmatikoaz osaturik dago.

1.4. ERNALKETA

Beste alde batetik, Agirregoitia eta lankideek (Agirregoitia et al., 2006), proposatu zuten opioideen jarduera aldakorra hartzaile desberdinen aktibazioaren ondorioz gertatzen zela. Hain zuzen ere, morfinak (MORen agonista espezifikoa) eta naltrindolak (DORen antagonista) giza espermatozoideen mugikortasuna inhibitzen badute ere, DPDPE-k (DOR-en agonista espezifikoa), ez du mugikortasunean eragin nabaririk sortzen. KOR opioide hartzaileari dagokionez, U50488H eta nor-binaltorfiminak (agonista eta antagonista espezifikoak, hurrenez hurren) ez dute efekturik sortzen espermatozoidearen mugikortasun progresiboan (Agirregoitia et al., 2006). β-endorfina peptido opioidea erabiliz espermatozoidearen mugikortasuna inhibitzen da baina hau naloxonarekin batera inkubatzean, bi efektu kontrajarri ikusi dira zenbait lanetan; mugikortasunaren inhibizioa ekiditzea eta ez ekiditzea hain zuzen ere (Fraioli et al., 1984; Mari et al., 2005).

Aldez aurreko ikerketek iradoki duten bezala, badirudi espermatozoideen mugikortasunaren efektu kontrajarri hauen azalpena opioide hartzaile desberdinen aktibazioari dagokiela (Subirán et al., 2011, 2008). Ildo beretik jarraituz, deskribatu izan da naloxonaren

kontzentrazio baxuek espermatozoidearen mugikortasuna mantentzen laguntzen dutela (Albrizio et al., 2005; Mari et al., 2005), kontzentrazio altuagoek mugikortasuna murrizten (Albrizio et al., 2005; Mari et al., 2005) edota areagotzen (Sastry et al., 1991) duten bitartean. Naltrindol antagonistari dagokionez, kontzentrazio baxuetan mugikortasuna areagotzen du, altuetan murriztu egiten duelarik (Albrizio et al., 2010). Aipatzekoa da, paradoxikoki hazi astenozoospermikoan topatutako met-entzefalina eta β- endorfinaren kantitatea normozoospermikoan topatutakoa baino txikiagoa dela (El-Haggar et al., 2006; Fujisawa et al., 1996).

Sistema opioideak giza espermatozoidearen kapazitazioan duen eraginari dagokionez, aipagarria da gure espeziean ez dela lan nahikoa egin. Hala ere, zaldien espermatozoideekin egindako *in vitro* esperimentuetan ikusi izan da naloxonak kapazitazioa induzitzen duela, erreakzio akrosomikoan eraginik aurkezten ez duen bitartean (Albrizio et al., 2005). Naltrindolari erreparatuta, ordea, DOR-en antagonistak kapazitazioa inhibitzen du.

Erreakzio akrosomikoari dagokionez, DAMME-ak dosiaren menpeko erreakzio akrosomikoa inhibitzeko gai da (Foresta et al., 1986) eta eragin berdina ikusten da naltrindol antagonistaren kontzentrazio baxuetan. Kontzentrazio altuetan berriz, kontrakoa gertatzen da (Albrizio et al., 2010).

Hartzaile opioideez eta BPOez aparte, barne-sistema opioidea eratuz, andeakuntza entzimak ere badaude. Entzimen-jarduerari dagokionez, APNa espermatozoideetan, likido seminalean eta prostasometan agertzen da, NEPa soilik prostasometan agertzen den bitartean (Fernández et al., 2002). APNa eta NEPa inhibitzean, espermatozoideen mugikortasuna mantentzen da denboran zehar, eta eragin hori naloxonak ekiditen du (Subirán et al., 2008). Bestalde, hazi astenozoospermikoek, normozoospermikoekin alderatuta, APN jarduera txikiagoa dute (Irazusta et al., 2004).

Aipatutako guztiari erreparatuta argi dago sistema opioideak espermatogenesian zein espermatozoideen ahalmen ugalkorrean eragin zuzena duela. Gaur egun bibliografian dauden lanek ikuspuntu orokorra ematen badigute ere hartzaile opioideek espermatozoidearen ugalkortasunean betetzen duten funtzioan sakontzea beharrezkoa da. Bereziki, hartzaile hauek espermatozoideen mugikortasunean, kapazitazioan eta erreakzio akrosomikoan jokatzen duten funtzioa ikertzea interesgarria litzateke, efektu hori lortzeko aktibatu/inhibitu behar diren seinaliztatze bidezidor intrazelularrak sakonki deskribatuz.

1.8. TESTIKULUETAKO PROTEINA ESPEZIFIKOAK

Azken hamarkadan egindako ikerketen arabera, giza espermatozoideen proteomaren ikuspuntu orokorra lortzerako bidean aurrerapen garrantzitsuak egin dira. Hori horrela izanda, seinaliztapen bidezidor anitzetan parte hartzen duten 6198 proteina identifikatu dira gaur egun arte, giza espermatozoidearen proteoma 7500 proteina inguruz konposaturik egon litekeela uste den arren. Identifikatutako proteinen % 78a beste sistema batzuetan identifikatu bada ere, gainerako % 22a espezifikoki espermatozoidearen proteomari dagokiola uste da (Amaral et al., 2014). Seinaleztapen molekula berriak identifikatu ahala, badirudi espermatozoideek, bakarrak, espermatozoide- eta espezie-espezifikoak diren seinaliztapen bidezidor intrazelularrak induzitzen dituztela, zelula somatikoengandik desberdinak kontsideratzen direlarik (Kaupp and Strünker, 2017).

Testikuluetan eta espermatozoideetan soilik adierazten diren proteinei erreparatuta, badaude ingelesezko "Cancer/Testis Antigen" (CTA) deritzen proteina talde bat. Bereziki, CTAk karraskari zein gizakien testikuluetako zelula germinaletan (zelula germinal primordialetan, espermatogonietan, espermatozitoetan, espermatidetan eta espermatozoideetan) adierazten dira baina zelula somatiko normaletan, orokorrean, ez dago horien arrastorik (Mirandola et al., 2011; Scanlan et al., 2004; Simpson et al., 2005). Aitzitik, CTAk minbizien %40an atipikoki aktibatu eta adierazten dira (Chen et al., 1997; Mirandola et al., 2011; Scanlan et al., 2004).

Teknika molekular desberdinak erabilita, gaur egun, CTA bezala sailkatzen diren 225 gene inguru identifikatu dira baina badirudi horien bilduma handiagoa izan daitekeela (Almeida et al., 2009; Hofmann et al., 2008). Aipatzekoa da, gaur egungo klasifikazio horrek ez dituela gene bakoitzaren ezaugarri antigenikoak frogatzen, izan ere, testikulu zein tumorean daukaten adierazpenaren arabera egin da (Whitehurst, 2014).

Tumoreetan egindako adierazpen azterketen arabera, CTAk birika, gernu-maskuri, melanoma zein ugatz minbizian maila altuan agertzen dira. Hala ere, maila baxuagoan adierazten dira leuzemian, linfometan, giltzurruneko, koloneko eta pankreako minbizietan (Old, 2001; Simpson et al., 2005). Horrez gain, badirudi CTA espezifikoak tumore jakin batzuetan adieratzen direla. Adibidez, melanoma metastatikoaren kasuen %70ak gutxienez MAGEA1-4 geneetako bat adierazita dauka (Brasseur et al., 1995). Era berean, ACRBP (acrosin binding protein) genearen maila altuak ikusi dira obarioko tumoreetan (%70) eta CTAG1B genearenak ugatz minbizian (%46) (Grigoriadis et al., 2009; Tammela et al., 2006).

Arestian aipatutako kasuak, adibide soilak badira ere "The Cancer Genome Atlas (TCGA) (http://tcga-data.nci.nih.gov/tcga/) izeneko datu basean CTA-en adirazpena biltzen dituen eta eskala handian egindako datu multzoak aurki daitezke.

1.8.1. CTA-en sailkapena

Gaur egun arte egindako ikerketen arabera CTAk maila baxuan adierazten dira ehun somatikoetan edota burmuina bezalako leku immuno-pribilegiatuetan (Whitehurst, 2014). Arestian aipatu bezala, CTA-ak existitzen diren arren, Old eta lankideek (Old, 2001), gene horien adierazpen diferentzialen profiletan oinarritzen den sailkapen sistema proposatu zuten (1.12 Irudia):

- Adierazpena testikuluetara mugatua: CTA hauek soilik testikuluetan adierazten dira.
- Adierazpena testikuluetara zein burmuinera mugatua: CTA hauek testikuluetan zein Nerbio Sistema Zentralean adierazten dira.
- Adierazpena testikuluetarako selektiboa: CTA hauek testikuluetan adierazten dira eta maila baxuago batean, gehienez bi ehun osagarritan agertzen dira.



1.12. Irudia. X-CT eta non-X-CT antigenoek minbizian duten adierazpen diferentziala. Gene bakoitzak testikuluetan, ehun normaletan eta zenbait minbizietan duen adierazpena deskribaturik agertzen da. Koloreek adierazpen mailari egiten diote erreferentzia, urdinez adierazpen maila baxua, berdez erdiko adierazpen maila eta gorriz adierazpen maila oso altua (Hofmann et al., 2008).

Horrez gain, kromosoman zeharreko CTAren kokapena ere sailkapenerako kontuan hartzen da:

- X kromosoman kodifikatutako CTAk: X-CT antigeno ere deritze eta gaur egun arte identifikatutako CTA guztien %50a dira. Normalean, X kromosoman zehar kluster antolatuetan agertzen dira familia multigenikoak osatuz (Akers et al., 2010; Zendman et al., 2003a).
- X kromosoma ez den kromosometan kodifikatutako CTAk: non-X-CT antigeno deritze, genoma osoan zehar banaturik agertzen dira eta kopia bakarra duten geneak dira (Simpson et al., 2005).

1.8.2. Funtzio fisiologikoa: gametoetan

CTA-ek gametoan duten funtzioa gaur egun oso ezaguna ez bada ere, adierazpen genikoan eta *knockout*-etan oinarritutako lanek argia daramate talde honetako proteinen funtzioa aztertzerako bidera. Esaterako MAGEA1 eta NY-ESO-1 bezalako X-CT antigenoak, espermatogenesiaren lehen faseetan beharrezkoak direla deskribatu da (Jungbluth et al., 2000). Bestalde, badirudi GAGE geneen adierazpena hozi zelulen funtziorako garrantzitsua dela (Gjerstorff et al., 2007). Aipatutakoa kontuan izanda, badirudi CTA-ek arraren ugalkortasunean funtzio garrantzitsua betetzen dutela.

Esaterako, jakina da CTA espezifikoek espermatogenesia kontrolatzen dutela. Espezifikoki meiosian zehar gertatzen den errekonbinazio homologoan parte hartzen duten antigenoen presentzia ezaguna da eta kromosomen parekatzea eta material genetikoaren trukaketa egokia ahalbidetzen dute. Gene horien ezabapenak beraz, errekonbinazio prozesuaren ahalmena mugatzen du eta saguen antzutasuna sortzen du (Schramm et al., 2011; Vries et al., 2005). Horrez gain, badirudi CTAk RNAren erregulazioan funtzio garrantzitsua betetzen dutela. Izan ere, genomaren osotasuna mantentzen zein mRNA-ren adierazpenaren erregulazioan parte hartzen dute (Whitehurst, 2014). Bestalde, badirudi CTA asko aurkitu direla gorputz kromatoideetan (Chromatoid body ingelesez), hau konpaktazio handia duen gunea da eta mRNA-z eta proteinez eraturik dago espermiogenesian zeharreko gene adierazpenaren erregulaziorako (Meikar et al., 2014).

Espermatozoideei dagokienez, hauek mugikortasuna berenganatzen dute flageloari esker. Arestian aipatu bezala flageloak axonema izeneko motore batez eraturik dago, zeina gutxienez 13 proteinez osaturik dagoen. Egitura hau osatzen duen proteina edo CTA nagusiena AKAP4 da. Izan ere, flageloaren %50a betetzen du. Horrez gain, AKAP3, CABYR, SPA17 edota ROPN1 izeneko antigenoak ere espermatozoidearen flageloaren osagai dira (Brown et al., 2003; Fiedler et al., 2008; Mirandola et al., 2011). Ikusi izan denez, AKAP4 eta ROPN-rik ez daukaten saguak ugalkortasun murriztua daukate flageloan ematen diren akatsengatik (Brown et al., 2003; Fiedler et al., 2008). Flageloaren mugikortasuna erregulatzen duten mekanismo molekularrak argiak ez diren arren, AKAP4 eta Rho proteinara elkartzen diren rophilin-1 eta ropporin proteinak zenbait seinaliztatze bidezidor erregulatzen dihardutela uste da. Horrekin erlazionatuta, ezaguna da PKA eta Rho, tumoreetan aberrantikoki aktibatzen direla. Hori dela eta, posible izango litzateke AKAP4 eta ROPN1 zitoeskeletoaren dinamika erregulatzen egotea

zelularen mugimendua, inbasioa edota mitosia aurrera ermateko (Bossis and Stratakis, 2004; Vega and Ridley, 2008).

Horrekin lotuta, jakina da CTA askok espermatozoideen energiaren produkzioa erregulatzen dutela. COX6B2, esaterako, espermatozoidearen espezifikoa den elektroi garraiatzailearen katearen IV.konplexua osatzen duen proteinetako bat da eta fosforilazio oxidatiboaren funtzionamendu egokian parte hartzen du (Hüttemann et al., 2003). SPATA19, mitokondrioetan agertzen den proteina bat da eta hauen paketatzea erdiko piezaren inguruan egokia izateaz arduratzen da (Suzuki-Toyota et al., 2007). SPATA19 zein COXB2 ezinbestekoak izan litezke espermatozoideak energia lortzeko. Beste alde batetik, laktato deshidrogenasa C (LDHC) espermatozoide-espezifikoa den entzima bat da eta laktatoa pirubatoan bihurtzeaz arduratzen da (Goldberg et al., 2010). Honen ezabaketak ugalkortasun murriztua sortzen du.

Hau guztia, kontuan hartuta eta CTA-k espermatozoidearen funtzionamendu egokia lortzeko beharrezkoak direla badakigu ere, horien mekanismo molekularrak sakonago ulertzea guztiz beharrezkoa da.

1.8.3. Funtzio fisiopatologikoa: minbizian

Gaur egun, tumoreek testikuluetako CTA espezifikoak aktibaturik dituztela jakina da. Hipotesi hau XX.mendean sortu zen 1904.urtean gizakiaren hormona koriogonadotropikoa (hCGH) gernu-maskuriko minbizian aurkitu zenean. Geroztik aurrera, CTA hau ugatzeko, giltzurruneko, obarioko, prostatako, pankreako eta koloneko minbizian agertzen zela deskribatu izan zuten (Acevedo et al., 1995) eta minbiziaren tratamedurako markatzaile pronostiko bezala erabiltzen hasi zen (Stenman et al., 2004). hCGH-ren kasua adibidetzat izanda, ikerlariek CTA espezifikoen mekanismo molekularrak ikasten saiatu izan dira, gutxi baitakigu tumoregenesian aktibatzen diren geneei buruz (Whitehurst, 2014). Gene hauek tumore zelulen proliferazioa eta biziraupena sustatzen dute eta minbiziaren aurkako terapiak sortzeko baliogarriak izan litezke.

CTA espezifikoen funtzio fisiopatologikoak guztiz ezagunak ez badira ere, azken aldian egindako ikerketek erakutsi dute gene hauek ziklo zelularraren erregulazioan, itzulpenaren kontrolean, zelularen biziraupenean edota apoptosian paper garrantzitsua joka lezaketela. Horrekin lotuta, ikerketek erakutsi dute CTA askok tumorearen migrazioan, inbasioan zein metastasian funtzio garrantzitsua betetzen dutela (Garg et al, 2008; Ghafouri-Fard, 2015; Whitehurst, 2014; Dang et al, 2018; Song et al, 2017).

CTA-en antigenizitatea dela eta, ikerketa asko minbiziaren aurkako txertoen diseinuan oinarritzen dira (Gjerstorff et al., 2007). Tradizionalki, antigenizitate hau testikuluen kokapen immuno-pribilegiaturekin erlazionatzen da (Whitehurst, 2014). Hau muga hematotestikularrari esker lortzen da. Izan ere, zelula immuneak epitelio seminiferotik (bertan espermatozoideen heltzea gertatzen da) banatzen dituen muga da. Hau, Sertoli zelulez eraturik dago eta zelula immuneen infiltrazioa sahiesten du. Izan ere, zelula hauek TGF- β, aktibina A, granzima B edota FAS ligandoa bezalako konposatuak jariatzen ditu epitelio interstizialean dauden zelula immuneen hazkundea eta biziraupena inhibitzeko. Hori dela eta, CTA-ek aurkezten dituzten

zelula tumoregenikoak txertoen diseinurako antigeno perfektuak lirateke, zelula immuneen itua tumorea izanez.

Arestian aipatutakoa kontuan hartuta eta gaur egun CTA jakinak tumoreen prozesuekin erlazionatu badira ere, proteina horiek induzitzen dituzten mekanismo molekularrak aski ezezagunak dira. Horri buruzko ezagutza zehatzagoa baliogarria litzateke minbizia tratatzeko immunoterapia zein beste farmakoen garapenerako.

1.9. SPERM PROTEIN ASSOCIATED WITH THE NUCLEUS MAPPED TO THE X CHROMOSOME (SPANX)

SPANX (Sperm Protein Associated with the Nucleus mapped to the X chromosome) familia multigenikoa X kromosoman kodeaturik dago eta bere adierazpena testikulu eta zelula espermatikoetara mugaturik dago. Proteinen superfamilia honek bi familia kodeatzen ditu gizakietan: SPANX-N azpifamilia, homologia handia erakusten duten 5 proteinez eratua (SPANX N1-N5) (Kouprina et al., 2007), eta SPANX-A/D azpifamilia, sekuentzian %90-98ko homologia erakusten duten SPANX-A1, -A2, -C eta –D (97 aminoazido) isomeroez eraturik eta hauekin %75-80ko antzekotasuna duen SPANX-B (103 aminoazido) isoforma adierazten dueña (Kouprina et al., 2004; Zendman et al., 2003b). Bi azpifamiliek adierazpen postmeiotikoa azaltzen dute espermatogenesian, lehenengo aldiz espermatida haploideetan eta espermatozoide helduetan adierazten dira (Kouprina et al., 2004; Salemi et al., 2004; Westbrook et al., 2001).

SPANX-N, SPANX-A/D azpifamiliako proteinen aitzindari filogenetikoa da. Ugaztun guztietan adierazten bada ere, SPANX-A/D familiaren sorkuntza hominidoen leinuan gertatu zen (Kouprina et al., 2004). SPANX-N familiari buruz gutxi badakigu ere, ikerketek erakutsi dute espermatozoide heldu guztietan akrosoman adierazten dela, ugalkortasunean paper garrantzitsua joka lezakeela iradokituz (Kouprina et al., 2004). Horrez gain, SPANX-N2 eta SPANX-N3 testikuluetan adierazteaz gain, prostata, ondestea, uteroa, birikiak edota urdaila bezalako ehun ez-gametogenikoetan aurkitu daitezke maila askoz baxuagoetan (Kouprina et al., 2007).

Bestalde, eta beste CTA batzuekin gertatzen den bezala, SPANX-N familia melanoma bezalako zenbait minbizi motetan agertzen da eta hauetan funtzio garrantzitsua bete lezake. Gaur egun, funtzio fisiopatologikoa egokitu ez bazaio ere, badirudi gene hauek minbizia tratatzeko immunoterapia itu garrantzitsuak izan litezkeela (Kouprina et al., 2004).

1.9.1. SPANX-A/D proteina familia

SPANX-A/D proteina azpifamiliari dagokionez, 15-20 kDa pisatzen dituen proteina txiki hauek, akrosomaren biogenesiaren Golgi fasean dauden espermatida gozitiarren nukleoaren azalean identifikatu ziren lehenengoz. Espezifikoki, nukleoaren kondentsazioa eta elongazioa hastean, SPANX-A/D proteinak nukleoaren gainazaleko domeinu postakrosomalera migratzen dute. Espermatida helduetan, SPANX-A/D azpifamilia tanta zitoplasmatikoarekin asoziaturik agertzen da. Espermatozoide helduei dagokienez, SPANX-A/D krater nuklearretan eta tanta zitoplasmatikoan adierazten da eta, zelulen %50an soilik agertzen da (Westbrook et al., 2001). SPANX-A/D familiak espermatida batzuen azpipopulazioan eta espermatozoideetan erakusten duen kokapenak espermatogenesian zeharreko proteinaren banaketa zehatza eta tenporala isladatzen du (Kouprina et al., 2004).

SPANX superfamiliaren funtzio biologikoa ezezaguna bada ere, espermatogenesi prozesuan eta giza espermatozoidearen ernaltzeko gaitasunean funtzio garrantzitsua bete dezakeela uste da (Kouprina et al., 2004; Westbrook et al., 2001). Hala ere, espermatozoide helduetan duen kokapenak iradokitzen du azpifamilia bakoitzak funtzio desberdina izan lezakeela. Bestalde, SPANX-A/D familia antzutasunarekin erlazionatu izan da.

Bereziki, SPANX-A/D adierazpen baxua espermatozoideen mugikortasun baxuarekin (astenozoospermia) (Hashemitabar et al., 2015; Shen et al., 2013), akrosomaren malformazioarekin (Liao et al., 2009) edota lagunduriko ugalketan zeharreko haurdunaldi tasa baxuekin erlazionatzen da (Wang et al., 2018). Beraz, SPANX-A/D azpifamilia zuzenean gameto arraren ugalkortasunarekin erlazionatuta badago ere, gaur egun, proteina hauen mekanismo molekularrak zein funtzio biologikoa guztiz ezezagunak dira. Hori dela eta, horren inguruko ikerkuntza ezinbestekoa litzateke espermatozoideen emankortasun gaitasuna zein antzutasun kasuak ulertzeko. Gainera, azken honen tratamendurako zein antisorgailu berriengarapenerako itu terapeutiko interesgarriak lirateke.

Arestian azaldu denez SPANX-A/D azpifamilia espermatozoidearen ahalmen ugalkorrarekin erlazionatuta dago baina gaur egun gero eta ikerketa gehiagok erakutsi dute proteina hauek CTA delako taldean sar daitezkeela. Izan ere, gizakiaren zenbait tumoreetan adierazten dira (Goydos et al., 2001; Wang et al., 2003; Westbrook et al., 2004). Azken urteotako lanen arabera, proteina azpifamilia hau melanoman, mieloman, glioblastoman; ugatz, prostata, eta obarioko kartzinoman eta birika zein gernu-maskuriko minbizian adierazita dago (Almanzar et al., 2009; Wang et al., 2003; Westbrook et al., 2004; Zendman et al., 1999). Esaterako, SPANX-A/D melanoma metastatikoen zitoplasma edota nukleoan adierazten da (kasuen %50) (Westbrook et al., 2004).

Horrez gain, zenbait tumoreetan SPANX-A/D adierazpena inbasioarekin eta metastasi espontaneoarekin erlazionatu bada ere (Hsiao et al., 2016; Maine et al., 2016), minbizian duen funtzio fisiopatologikoa ez da oraindik argitu. Hori dela eta, SPANX-A/D proteina azpifamiliak minbizian betetzen duen funtzioa zein induzitzen dituen mekanismo molekularrak sakonean

aztertzea interesgarria litzateke immunoterapia zein minbizia tratatzeko droga farmakologien garapenerako.

2.Hipotesia eta Helburuak

Hypothesis and Aims

3. Materialak eta Metodoak
Materials and Methods

3. MATERIALAK ETA METODOAK

Ondorengo atalean tesian zehar erabilitako material zein teknika desberdinak deskribaturik agertzen dira. Aipatzekoa da emaitzen atalean, kapitulu bakoitzean egindako esperimentuen deskribapen zehatzagoa ematen dela.

3.1. MATERIALAK

3.1. Taula. Teknika desberdinak burutzeko erabilitako gailuen zerrenda.

Gailua	Etxe komertziala
CO_2-dun inkubagailua	MCO-15AC Sanyo
Errotore baskulantedun zentrifuga	Heraeus MegaFuge 40R
FLUOstar OPTIMA fluorimetroa	BMG Labtech
Fluxu laminar bertikaleko Kanpaia	Faster Bio 48
Mikroskopio alderantzikatua	AxioscopeEclipseTS100 Nikon
Mikroskopio fase-kontrasteduna	H550S
Bideokamera	Basler
Mikroskopioari atxikitako kamera	D07739 Jenoptik
Mr Frosty edukiontzi izoztzailea	Thermo Fisher Scientific
Nitrogeno likidorako tankea	GT-40 Air Liquide
Ur-bainu termostatikoa	TBN-06/100, ICT SL
Shorting bidezko Fluxuzko zitometroa	BD FACSJazz (2B/4YG)
Mikroskopio konfokala	Zeiss Apotome 2 (Jena)
Heraeus Fresco 21 mikrozentrifuga	Thermo Fisher Scientific
NanoDrop ND-1000 espektrofotometroa	Thermo Fisher Scientific
Synergy HT espektrofotometroa	Bio-Tek
Termozikladoreak	Mycycler Life technologies
	BioRad Laser scanner
PerkinElmer CFX96 Real Time detekzio sistema	BioRad
SLM AMinco-Bowman espektrofluorimetroa	Microbeam
Chemidoc XRS sistema	Bio-Rad
FluoStar OPTIMA fluorimetroa	BMG Labtech
Heraeus Fresco 21 zentrifuga	Thermo Scientific
Hotcold S Inkubagailu lehorra	Selecta
Elektroforesi eta transferentzia euskarriak	Bio-Rad
PowerPac Basic Power Supply Energia hornidura	Bio-Rad
Labsonic Sonikatzaileaa	B.Braun International
Zelula homogenizatzailea	MICCRA D-1 30170
Magnetic Rack	NVIGEN
Labnet Mini Labrollerra	Labnet International
Apotome 2 mikroskopio konfokala	Zeiss
Olympus Fluoview FV500 mikroskopio konfokala	Olympus
Fluxuzko zitometroa	FACScalibur Becton Dickinson
Qubit Fluorimetroa	Thermo Fisher Scientific
Speedvac huts makina	Eppendorf
Q Exactive HF Mas espektrometroa	Thermo Scientific

3.2 Taula. Erabilitako erreaktiboen zerrenda.

Erreaktiboa	Erreferentzia	Etxe komertziala
G-IVF kultibo medioa	10135	Vitrolife
FBS S0415	Biochrom	GmbH
DMEM kultibo medioa	H3BE12-741F	Lonza
DMSO	D8418	Sigma
EMEM kultibo medioa	H3BE12-611F	Lonza
XtremeGENE 9 transfekzio erreaktiboa	XTG9-RO	Roche
Lipofectamine 2000 transfekzio erreaktiboa	11668027	Thermo Fisher Scientific
OPTI-MEM transfekzio medioa	31985062	Thermo Fisher Scientific
Polybrene transfekzio erreaktiboa	TR-1003	Sigma
L-glutamina 100X	G7513	Sigma
McCoy's 5A medioa	12-688F	Lonza
Pretoblue Viability erreaktiboa	A13261	Thermo Fisher Scientific
PBS 10X	BE17-517Q	Lonza
Penizilina-estreptomizina	P4333	Sigma
pEYFP-C1 plasmidoa		Clontech
Mutanteak eratzeko gBlocks DNA fragmentuak		IDT
SPANXA/D-ren shRNA lentibirusa		Origene
RPMI140 kultibo medioa	BE12-702F	Lonza
Tripsina-EDTA	T3924	Sigma
Mitomizina	Y0000378	Sigma
Crystal Violet	C3886	Sigma
Puromizina	P9620	Sigma
DEPCrekin trataturiko H_2O	750023	Thermo Fisher
Etanol absolutua	121086	Panreac Applichem
PureLink® RNA Mini kit	12183018A	Life Technologies
Quantitect Reverse Transcription Kit	205313	Qiagen
DNA polimerasa		Immolase
iScript cDNA Synthesis Kit	170-8891	Bio-Rad
Isopropanola	A3928	Panreac Applichem
Kloroformoa	CL01981000	Scharlau LabelIT
SYBRGreen AmpliTaq	1725121	BioRad
TRIzol erreaktiboa	15596026	Invitrogen
Fura-2 2AM		Molecular Probes
Azido pluroniko detergente ez-zitotoxikoa		Molecular Probes
30% akrilamida-bis akrilamida	1610158	Bio-Rad
Bicinchoninic Acid (BCA)	23225	Thermo Fisher Scientific
Bovine serum albumin (BSA)	A7906	Sigma Aldrich
PVDF mintza	10600021	GE Healthcare Life
TEMED	T9281	Sigma Aldrich
Proteasen inhibitzaile koktela	04693159001	Roche
Fosfatasen inhibitzaile koketela	04906845001	Roche
Merck Fluoromont G muntatzailea	00-4958-02	Thermo
Ponceau	P3504	Sigma Aldrich
Vectashield Mounting Medium with DAPI	H-1200	Vector Laboratories
TMT-6 plex Isobaric Labeling Reagent	90061	Thermo Fisher Scientific

Trietilamonio bikarbonato tanpoia (TEAB)	T7408	Sigma Aldrich
Urea	U5378	Sigma Aldrich
Guanidinio klorhidrikoa	G4505	Sigma Aldrich
Ditiotreitola (DTT)	DTT-RO	Sigma Aldrich
Kloroazetamida	C0267	Sigma Aldrich
Sekuentziaziorako Tripsina eraldatua		Promega
Pierce LysC Proteasa		Promega
Azetonitriloa HPLC	A998-1	Fisher Chemicals
Azido Triofluoroazetikoa	T6508-M	Sigma Aldrich
Amonio Bikarbonatoa (ABC)	285099	Sigma Aldrich
Azido Azetikoa	A6283	Sigma Aldrich
Bikarbonato tanpoia	T7408	Sigma Aldrich
NH3 tanpoia	09682	Sigma Aldrich
ReproSil-Pur, 1,9 μm, 120A beads		Dr. Maich, GmbH
Titansphere (5 μm) TiO2 beads	IN5020-75000	Life Science
Sodio Fluoridikoa (NaF)	S7920	Sigma Aldrich
Beta-glizerofosfato disodio gatz hidratoa	251291	Sigma Aldrich
Sodio ortobanadatoa	S6508	Sigma Aldrich
PureProteome Protein A Bolatxo magentikoak	LSKMAGA02	Millipore
Qubit Proteina neurtzeko Kit-a	Q33211	Thermo Fisher Scientific
Azeton	BPA181	Fisher Chemicals
L-Lysin	L5501	Sigma Aldrich
Nu- PAGE 4-12% Gelak	NP031BOX	Thermo Fisher Scientific
Coomassie Urdina	LC6065	Thermo Fisher Scientific
C18 diskoak		3M Empore™ SPE Extraction Disks
C8 diskoak		3M Empore™ SPE Extraction Disks
C18 diskoetako xiringak		Waters

3.3 Taula. Laborategian prestatutako soluzioen zerrenda.

Soluzioa	Osagaiak
Ripa eraldatua (mRIPA)	50 mM Tris–HCl pH 7.5, 150 mM NaCl, 1% NP-40, 1 mM EDTA, 0.25% sodium deoxycholate, 1 mM sodium pervanadate, 5 mM beta-glycerophosphate, 5 mM NaF.
Detergenterik gabeko Ripa eraldatua	50 mM Tris–HCl pH 7.5, 150 mM NaCl, 1 mM EDTA, 1 mM sodium pervanadate, 5 mM beta-glycerophosphate, 5 mM NaF.
Blokeo soluzioa	Blotto; %5 BSA
Urea tanpoia	8M urea, 10 mM TrisHCl pH 7,5.
Guanidinio hidroklorikoa tanpoia	8M Gu-HCL, 25mM ABC pH 7,5.
Garbiketa indargetzailea (blotto)	Tris 20 mM, NaCl150 mM, Triton X-100 % 0,1
Elektroforesi-indargetzailea – 10X	pH 8,3 250 mM Tris-Base; %1 (p/b) SDS; 2 M Glizina
Kimioluminiszentzia areagtotzailea (ECL)	1,25 mM luminol; 0,2 mM azido p-kumariko 0,1 M TrisHCl; pH: 8,5 *Erabiltze-egunean, nahasturara %0,3 H_2O_2 (%30) gehitu behar zaio.
Kargatzeko tanpoia 5X SDS	%10 p/b, Tris pH 6,8 %25 b/b,bromofenol urdina %0,025 p/b, glizerola %50 b/b, DTT %5 p/b Persulfato amonikoa (PSA) - %10 1 g persulfato amoniko 10 ml H_20-etan
Persulfato amonikoa (PSA) - %10	1 g persulfato amoniko 10 ml H_20-etan
Sodio dodezil sulfatoa (SDS) %10	10 g SDS 100 ml H_2O-etan
Transferentzia indargetzailea - 10X pH 8,3	250 mM Tris-Base; %0,25 (p/b) SDS; 1,92 M Glizina. *Diluitzean, % 20 (b/b) metanol gehitu behar zaio.
Tris-HCl 0,5M pH 6,8	1L: 62,07 g Tris-Base; HCl pH 6,8-an kokatzeko
Tris-HCl 1M pH 8,8	1L: 121,14 g Tris-Base; HCl pH 8,8-an kokatzeko

3.4 Taula. Tesi honetan erabilitako antigorputzen zerrenda. WB: Western Blot; IF: Immunofluoreszentzia; ON: Overnight; RT: Room Temperature.

Antigorputz Primarioak	Erreferentzia	Etxe komertziala	Ostalaria	Diluzioa	Inkubazio Denbora
Anti-Propio Melanokortina (POMC)	sc-20148	Santa Cruz Biotech.	Untxia	1:500 (IF) 1:200 (WB)	ON
Anti-FITC-CD46	555949	BD Biosciences	Sagua	5 µl/100 µl	RT 1 ordu
4G10 Antifosfo-Tirosina	05-231	Millipore	Sagua	1:1000 (WB)	RT 1 ordu
Anti-Fosfo PKC sustratuak	#2261	Cell Signaling	Untxia	1:500/ 1:750 (WB)	ON
Anti-Fosfo PKA sustratuak	#9624	Cell Signaling	Untxia	1:750 (WB)	ON
Anti-Fosfo MAPK sustratuak	#2325	Cell Signaling	Sagua	1:750 (WB)	ON
Anti-alfa Tubulina	T5168	Sigma Aldrich	Sagua	1:4000 (WB)	RT 1 ordu
Anti-KOR	ABN456	Millipore	Untxia	1:500 (IF) 1:1000 (FC)	ON
Anti-pKOR	PA5-40216	Thermo Scientific	Untxia	1:1000 (WB)	ON
Anti-MOR	ABN5509	Millipore	Untxia	1:1000 (FC)	ON
Anti-DOR	ABN1560	Millipore	Untxia	1:1000 (FC)	ON
Anti-SPANX	ab119280	Abcam	Untxia	1:500 (WB/IF)	ON
Anti-NUP98	sc-74578	Santa Cruz Biotech.	Sagua	1:50 (IF)	ON
Anti-TEKT1	sc-398507	Santa Cruz Biotech.	Sagua	1:50 (IF)	ON
Anti-Fumarato Hidratasa	sc-393992	Santa Cruz Biotech.	Sagua	1:50 (IF) 1: 200 (WB)	ON
Anti-Lamin A/C	A0249	Abclonal	Untxia	1:100 (IF) 1: 1000 (WB)	ON
Anti-GFP-Trap_MA	gtma-20	Chromotek	Alpaca	25 µl	ON/3 orduz RT
Untxi IgGa	X0903	DAKO	Untxia	1:200 (IF)	ON
Anti-GFP	3H9	Chromotek	Arratoia	1:1000	ON

Antigorputz Sekundarioak	**Erreferentzia**	**Etxe komertziala**	**Ostalaria**	**Diluzioa**	**Inkubazio Denbora**
2° Anti-untxia HRP	sc-2004	Santa Cruz Biotech.	Ahuntza	1:1000	RT 1 ordu
2° Anti-untxia HRP	ab6112	Abcam	Ahuntza	1:3000	RT 1 ordu
2° Anti-sagua HRP	sc-2314	Santa Cruz Biotech.	Astoa	1:2000	RT 1 ordu
2° Anti-rat HRP	sc-2006	Santa Cruz Biotech.	Ahuntza	1:1000	RT 1 ordu
Alexa Fluor 488 Anti-untxia	A1108	Thermo	Astoa	1:2000	RT 1 ordu
Alexa Fluor 555 Anti-sagua	A28180	Thermo	Ahuntza	1:1000	RT 1 ordu
Alexa Fluor 663 Anti-untxia	A21070	Thermo	Ahuntza	1:1000	RT 1 ordu
Ioduro Propidioa	81845	Sigma-Aldrich	----------	100 µg/ml	RT 10 min
Hoescht	H3569	Thermo	----------	0,1µg/ml	RT 2 min

-

-

3.2. ZELULAK

Jarraian tesia burutzeko erabilitako zelula motak azaltzen dira.

3.2.1. Espermatozoideak

Espermatozoideen laginak Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Lagunduriko Ugalketa Unitatean edota Quiron Bilbao ugalkortasun klinikan jasotzen ziren Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU) xedatutako hitzarmenari esker. Emaile guztiak osasuntsuak eta Osasunerako Munduko Erakundearen (OME) (ingelesezko World Health Organization, WHO) (WHO, 2010) arabera normozoospermikoak ziren. Aipatzekoa da ikerketa hau UPV/EHUren Batzorde Etikoaren oniritziarekin burutu dela (CEISH-UPV/EHU (M10/2016/254)).

Hazi-laginak masturbazio bidez lortu ziren 3 edo 4 eguneko abstinentzia eta gero. Hazi gordinetik espermatozoide ez-mugikorrak eta haziaren bestelako zelulak baztertzeko, klinikan bertan *swim-up* teknika aplikatzen zitzaien lagin guztiei. Horretarako, hazia eppendorf saio-hodi etan banatzen da (250 µl eppendorfeko) eta horren gainean 10% BSArekin aberastutako G-IVF medioa gehitzen da (500-600 µl), 2 fase eratuz. 3 orduz 37°C eta %5 CO_2tan mantentzen dira. Ondoren, eppendorf saio-hodi bakoitzaren goiko geruzan geratzen diren espermatozoide mugikorrenak berreskuratzen dira. Horren ostean, espermatozoideen morfologia eta kontzentrazioa aztertzen dira fase-kontrasteko mikroskopioarekin (3.1 Irudia).

3.1 Irudia. Swim up teknikaren deskribapena. Iturria: http://www.jinepol_ivf.com. Moldatua.

3.2.1.1. Espermatozoideen tratamenduak

3.5 Taula. Espermatozoideak tratatzeko erabilitako konposatu kimikoak.

Konposatu kimikoa	Kontzentrazioa	Funtzioa	Etxe komertziala
Beta-endorfina	10^{-5}M, 10^{-7}M, 10^{-9}M	MOR eta DOR hartzaileen agonista	Sigma-Aldrich
Naloxona	10^{-5}M, 10^{-8}M	10^{-5}M: MOR, DOR eta KOR hartzaileen antagonista 10^{-8}M: MOR hartzailearen antagonista	Sigma-Aldrich
Morfina	1 µM	MOR hartzailearen agonista	Sigma-Aldrich
CTOP	1 µM	MOR hartzailearen agonista	Sigma-Aldrich
DPDPE	1 µM	DOR hartzailearen agonista espezifikoa	Sigma-Aldrich
U50488H	1 µM	KOR hartzailearen agonista espezifikoa	Sigma-Aldrich
U73122	3 µM	Fosfolipasa C inhibitzailea	Sigma-Aldrich
Mibefradil	30 µM	Kaltzio kanale aktibatzailea	Tocris Biosciences
NNC55-0395	10 µM	CatSper inhibitzailea	Sigma-Aldrich
SQ2336	200 µM	tmAC inhibitzailea	Sigma-Aldrich
Forskolina	50 µM	tmAC aktibatzailea	Sigma-Aldrich
HCO_3^-	50 mM	SACY aktibatzailea	Sigma-Aldrich
BARK1	126 µM	GRK inhibitzailea	Calbiochem
IBMX	0,5 mM	Fosfodiesterasa inhibitzailea	Sigma-Aldrich
Progesterona	1µM/10µM	Catsper kanalaren aktibatzailea. Erreakzio akrosomikoaren kontrol positiboa	Sigma-Aldrich
DMSO	10 µM	Progesteronaren disolbentea	Sigma-Aldrich

Giza espermatozoideen hartzaile opioideen azpitik induzitzen diren seinaliztapen bidezidor intrazelularrak aztertzeko eta hartzaileek ahalmen ugalkorrean duten funtzioa ikasteko, konposatu desberdinak erabili ziren (3.5.Taula). Alde batetik, MOR eta DOR hartzaileetara lotzen den beta-endorfina erabili zen. Horrez gain, naloxona izeneko antagonista ere erabili zen. Bestalde, (−)-trans-(1S,2S)-U-50488 hydrochloride hydrate (U50488H) izeneko konposatua erabili zen KOR hartzailearen agonista espezifikotzat. Kaltzioaren bidezidor intrazelularra aztertzeko U73122 fosfolipasa C inhibitzailea, Mibefradil kaltzio kanaleen aktibatzailea eta NNC55-0395 CatSper kanalearen aktibatzailea erabili ziren.

cAMP/PKA bidezidorra aztertzeko, SQ2336 mintzeko adenilato ziklasaren (tmAC) inhibitzailea, forskolina mintzeko adenilato ziklasaren (tmAC) aktibatzailea eta HCO_3^- adenilato ziklasa solugarriaren (SACY) aktibatzailea erabili ziren. MAPK-en bidezidorra ikasteko ordea, BARK1 GRK inhibitzailea eta IBMX fosfodiesterasa inhibitzailea erabili ziren. Aipatzekoa da, analisi funtzionaletarako konposatuak 1 edota 60 minutuz inkubatu zirela.

3.2.2. Zelula-lerroen kultiboa

Lan hau aurrera eramateko zelula-lerro desberdinak erabili ziren (3.6. Taula). Zelula-lerro guztiak komertzialak dira.

3.6. Taula. Biologia zelularreko teknikak burutzeko erabilitako zelula-lerroen zerrenda.

Zelula mota	Zelula lerroa	Etxe komertziala	Kultibo medioa
Melanoma Primarioa	A375	ATCC (CRL-1619)	DMEM 2mM L-Glutamina + 10% FBS+ 1% Pen/Strep
	Mel-Ho	Innoprot (ACC62)	RPMI 1640 Glutamax+ 10% FBS+ 1% Pen/Strep
Melanoma mestatatikoa Nodo linfatikoak	HS294T	ATCC (HTB140)	DMEM 2mM L-Glutamina + 10% FBS+ 1% Pen/Strep
	COLO-800	Innoprot (ACC153)	RPMI 1640 Glutamax+ 10% FBS+ 1% Pen/Strep
Melanoma Metastatikoa Larruazalpekoa	HT144	ATCC (HTB63)	Mc Coy´s+ 2mM L-Glutamina+ 10% FBS+ 1% Pen/Strep
Ondesteko Adenokartzinoma	HCT-8	ATCC (CCL244)	DMEM 2mM L-Glutamina + 10% FBS+ 1% Pen/Strep
	SW480	ATCC (CCL-228)	
Ugatzetako Adenokartzinoma	MCF-7	ATCC (HTB22)	
Giza enbrioiaren giltzurrun zelulak	HEK293T	ATCC (CRL-1573)	DMEM 2mM L-Glutamina + 10% FBS+ 1% Pen/Strep
Cervix-eko epitelioko kartzinoma	HeLa	ATCC (CCL2)	EMEM 2mM L-Glutamina + 10% FBS+ 1% Pen/Strep
Neuroblastoma	SMS-KCNR	Texas Tech University	RPMI 1640 Glutamax+ 10% FBS+ 1% Pen/Strep

Aipatzekoa da zelula guztiak behi umekiaren sueroa edo FBS (ingelesetik fetal bovine serum), penizilina-estreptomizina (Pen/Strep) eta L-Glutaminarekin osatutako kultibo espezifikoarekin, 37°C eta %5 CO_2 inkubatzailean mantendu zirela.

Zelulak hazkuntzan mantentzeko, 25 edo 75 cm^2-etako fraskoak erabiltzen ziren eta %90 inguruko konfluentziara heltzean, zelulak frasko berrira eramaten ziren. Horretarako, zelula-lerroei EDTA-dun tripsina gehitzen zitzaien eta 37°C-tako inkubadorean sartzen ziren 1-3 minutuz.

Ondoren, zelulak 5 minutuz zentrifugako tubo konikoetan sartu eta 1500rpm-tan zentrifugatzen ziren hauek hodiaren hondoan sendimentatzeko. Bukatzeko, zelulak medio berrian birsuspenditzen ziren ondoren frasko berrira pasa eta bertan hazten jartzeko.

3.3. TEKNIKAK

3.3.1. Espermatozoideen mugikortasunaren analisia

Mugikortasunaren analisia fase-kontrastedun mikroskopioarekin eta ordenagailu bidezko Sperm Class Analyzer 2005® softwarearekin neurtu zen, 3.7. taulako konfigurazioa erabiliz. Aztertu beharreko konposatua espermatozoideekin kontaktuan jarri ondoren, espermatozoideen mugikortasuna 1 eta 60 minutuz neurtu zen.

3.7.Taula: erabilitako CASA sistemaren konfigurazioa.

Parametroak	
Frame/segundoko: eskuratutako irudiak segundoko	25
Frame zenbatekoa: grabatutako irudiak	25
LVV muga (µm/s): espermatozoide geldo baten abiadura maximoa	10
MVV muga (µm/s): espermatozoide ertain baten abiadura maximoa; hortik gora, azkartzat hartuko da	35
STR minimoa (%): azkarrak ez ezik, progresibotzat hartzen diren espermatozoideen kopurua adierazteko balioa	80
Fase-kontrastea: mikroskopioak erabilitakoa irudiak grabatzean	PH+
Handipena	x20

Giza espermatozoideak 50 $x10^6$ zelula/ml-ko kontzentraziora egokitu ziren eta lagin bakoitzetik Makler zenbaketa kameran 10 µl jartzen ziren. Espermatozoideen mugikortasuna adierazteko, Osasunerako Munduko Erakundearen (WHO, 2010) irizpideen araberako nomenklatura erabili zen:

- Mugikortasun progresiboa (lerro zuzena eta azkarra) (abiadura ≥ 10 µm/s).
-Mugikortasun ez-progresiboa (abiadura < 10 µm/s) (zirkulu txikietan igerian).
-Mugimendurik ez duten espermatozoideak.

Mugikortasun hiperaktiboa espermatozoidearen higiduraren aldaketa da zeinetan espermatozoidea azkarrago mugitzen da eta flageloa indar handiagoarekin astintzen da. Mugikortasun hiperaktiboa ondorengo parametroen arabera finkatu zen: abiadura lerromakurra (VCL) 100 m/s, linealtasuna (LIN) %60 eta buruaren albo-desplazamenduaren anplitudea (ALH) 5 µm.

Aipatzekoa da espermatozoideen mugikortasun azterketatik zetozen emaitzak ondorengo erara normalizatu zirela: [(Tratamendua-Kontrola)/(Kontrola)x100]. Ondoren emaitzak SPSS (v.22) programa estatistikoarekin aztertu ziren, T-Student eta ANOVA (Bonferroni post hoc-a) test estatistikoak aplikatuta. Emaitza estatistikoki esanguratsuak zirela onartu zen *p < 0.05 eta estatistikoki oso esanguratsuak **p < 0.01 zenean.

3.3.2. Fluxuzko zitometria

Alde batetik, beta-endorfinak, U50488H agonista espezifikoak eta beste konposatuek espermatozoideen erreakzio akrosomikoan duten eragina aztertzeko, fluxuzko zitometria erabili zen. Laburki, fluxuzko zitometriak laserraren erabilpenaren bidez, zelulen zenbaketa eta sailkapena egiten du denbora laburrean ezaugarri morfologikoen edota biomarkatzaileen presentziaren arabera. Horrela, likido batean dauden zelulak kolorerik gabeko hoditxo batean zehar igarotzen dira, zeinetan laser batek argia igortzen dien. Gailuak daukan detektagailuak zelulek igorritako eta dispertsatutako argia detektatuko dute zelulen konplexutasunaren eta tamainaren araberako informazioa jasoz.

Kasu honetan, zelulen tindaketarako Fluoreszeina Isotiozianato (FITC)-anti-CD46 antigorputz konjokatua (5 µg/ 100 µl) erabili zen ordu betez ingurugiro tenperaturan. Espezifikoki, erreakzio akrosomikoa pairatu duten espermatozoideen barne-mintz akrosomalean CD46 proteina eskuragarri dago antigorputzarentzat. Horrez gain, bideragarritasun espermatikoaren test bat egin zen soilik bizirik zeuden zelulekin lan egiteko. Beraz, hilik zeuden zelulak baztertzeko Hoechst 33258 (0,1 µg/ml) markatzailea erabili zen. Izan ere, markatzaile hau hilda dauden zelulen nukleoan barneratzeko eta DNAn batzeko gai da. Ondoren, lagin guztiak fluxuzko zitometriaren bidez aztertuak izan ziren.

Aipatzekoa da erreakzio akrosomikoaren azterketatik zetozen emaitzak ondorengo erara normalizatu zirela: [(Tratamendua-Kontrola)/(Progesterona-DMSO)x100. Ondoren emaitzak SPSS (v.22) programa estatistikoarekin aztertu ziren, T-Student eta ANOVA (Bonferroni post hoc-a) test estatistikoak aplikatuta. Emaitza estatistikoki esanguratsuak zirela onartu zen *p < 0.05 zenean eta estatistikoki oso esanguratsuak **p < 0.01 zenean.

Beste alde batetik, beta-endorfinak giza espermatozoideen PKC proteinaren seinaliztapen bidezidor intrazelularrean zuen efektua aztertzeko, fluxuzko zitometria erabili zen. Kasu honetan, PKC-ren sustratu fosforilatuak zelularen barnean daudenez, espermatozoideak %4 paraformaldehidoarekin fixatu ziren 30 minutuz eta ondoren %0,5 Tritoi X-100 erabili zen 10 minutuz zelulak permeabilizatzeko. Zentrifugazioz hiru garbiketa egin ondoren, laginak %10 FBS-ko soluzioarekin blokeatu ziren 30 minutuz. Ondoren anti-PKC ren sustratu fosforilatuen aurkako antigorputza (1:500) (Cell Signalling) gehitu zen eta laginak gau osoan zehar inkubatu ziren 4°C-tan. Hurrengo egunean, antigorputz primarioa kendu eta laginak zentrifugazioz garbitu ziren PBS erabiliz. Ondoren, astoan sortutako eta untxiaren aurkakoa den Alexa Fluor 488 antigorputz sekundarioa (1:2000) gehitu zen ordu betez giro tenperaturan eta iluntasunean inkubatuz. Nukleoak tindatzeko Hoechst markatzailea erabili zen. Kontrol negatiboak soilik antigorputz sekundarioa gehituz eta untxiaren

immunoglobulinak erabiliz egin ziren. Fluxuzko zitometriatik eratorritako emaitza guztiak aztertzeko Summit v.4.3 softwarea erabili zen.

3.3.3. Kaltzio intrazelularraren neurketa

Beta-endorfinak eta U50488H agonistak, giza espermatozoideen kaltzio intrazelularraren kontzentrazioan duen eragina aztertzeko, Fura-2 zunda erabili zen. Horretarako, espermatozoideak 10 x 10^6 zelula/ml-ko kontzentraziora egokitu ziren giza albumina seruan. Ondoren, espermatozoideak azido pluroniko detergente ez-zitotoxikoaren (%0,1) presentzian zegoen Fura-2 zundaren azetoxymetil ester formarekin (Fura-2/AM 8x 10^{-6}M) inkubatu ziren 60 minutuz giro tenperaturan. Ondoren, zelulak 2-7 orduz G-IVF medioan birsuspenditu ziren. Horren ostean, espermatozoideen alikuotak (1 ml) kuartzozko kubeta batean sartu eta espektrofluorimetroaren bidez aztertu ziren 37 °C-ra. Igorritako fluoreszentzia 510nm-tan neurtu zen. Kaltzioaren kontzentrazioa neurtzeko laginak bi uhin luzeratan kitzikatu ziren (340nm eta 380nm) eta kitzikatutako bi uhin luzeren argi fluoreszentea 510nm-ko filtroa duen foto-biderkatzaileari esker neurtu zen. Autofluoreszentziaren seinalea kentzeko 5 nM $MnCl_2$ erabili ziren eta F340/F380 ratioa kaltzio intrazelularraren kontzentrazioaren adierazle bezala hartu zen.

Progesterona (1 µM) erabili zen beta-endorfinak eta U50488H agonistek progesteronak-induzitutako kaltzio intrazelularraren mailan duten eragina aztertzeko. Kaltzio intrazelularraren kontzentrazioaren kalibraziorako Tritoi X-100 (%5) detergentea erabili zen, kaltzio kontzentrazioaren erantzun maximoa sustatzen duena. Erantzun minimoa, ordea, EGTA ioi kelantearen (40 nM) gehipenarekin lortu zen.

3.3.4. Western blot (WB)

Western Blot edo immunoblot teknikaren bidez edozein proteina nahasketan intereseko proteina ezagutzen duen antigorputz espezifikoen erabilpenean datza. Horrela, intereseko proteinaren identifikazioa lortzeaz gain, kuantifikazio erlatiboa ere azter daiteke.

3.3.4.1. Proteinaren erauzketa

Espermatozoideen proteinaren erauzketarako, 60x10^6 zelula zenbatu ziren eta zentrifugazioz (1600rpm, 5 minutu) kultibo medioa kendu zitzaien. 3 aldiz PBS-arekin garbitu eta gero proteasa eta fosfatasen inhibitzaileak zituen modified RIPA lisi medioa (detergentearekin) gehitu eta izotzean 10 minutuz utzi ziren. Ondoren, 30 segunduz zelula homogenizatzailearekin zelulak apurtu ziren eta laginak 30 minutuz izotzetan mantendu ziren. Horren ostean, zelulak sonikatu ziren (%70 anplitudea, 0,5 ziklo, 10 pultso, behin eta %40 anplitudea, 0,5 ziklo, 10 pultso, birritan) eta berriz ere izotzetan jarri ziren, 45 minutuz, astintzen. Ondoren, zelulak 4°C-tan, 15.000 x g-etan, 15 minutuz zentrifugatu ziren proteina zatiki solugarria eta solugaitza banatzeko. Proteina zatiki desberdinak 80°C-tan mantendu ziren hurrengo erabilera arte.

Zelula lerroen proteinaren erauzketarako, zelulak tamaina desberdineko plaketan hazi (P6, P24 edo T25) eta %80-90-ko konfluentziara heltzean, izotzean jarri ziren. PBS hotzarekin zenbait garbiketa egin eta gero, proteasa eta fosfatasen inhibitzaileak zituen modified RIPA lisi medioa gehitu eta

izotzetan utzi ziren 10 minutuz. Zelula guztiak apurtzeko scraper bat erabili zen eta zelulak altxatu ostean mikrozentrifugako hodi batera transferitu ziren ondoren 4°C-tan, 15.000 x g-etan, 15 minutuz zentrifugatzeko. Laginen proteina solugarria edo gainjalkinak, -80°C-tan mantendu ziren hurrengo erabilerara arte.

3.3.4.2. Proteinaren kuantifikazioa

Proteinaren kuantifikaziorako BCA edo ingelesezko Bicinchoninic acid metodo fotometrikoa erabili zen. Proteina estandartzat BSA (ingelesetik Bovine serum albumin) erabili zen eta hau ur distilatuan disolbaturik erabili zen hurrengo kontzentrazioetan: 0; 0,2; 0,4; 0,6; 0,8 eta 1 µg/µl. Metodoaren detekzio mailaren barruan lan egiteko, espermatozoide zein zelula lerroetako lagin guztiak uretan diluitu ziren. Ondoren, 12,5 µl estandar eta lisatuak birritan plakeatu ziren P96 plaka batean. Lagin bakoitzaren gainean 100 µl BCA nahasketa (BCA erraktiboa eta CuSO4-ren arteko nahasketa, 50:1 proportzioan) gehitu zen eta plaka 37°C-tan, 30 minutuz inkubatu zen.

Ondoren plaka OPTIMA espektrofotometroan sartu zen eta absorbantzia 562nm-tan neurtu zen, absorbantziaren balioak laginen proteina mailarekin zuzenki erlazionatzeko. Hau estandarraren absorbantzia eta kontzentrazioa erreferentzi bezala izanda egin zen. Proteina kontzentrazioa kalkulatu ondoren, laginak eraldatutako RIPA lisi tanpoiarekin diluitu ziren konparatu beharreko lagin guztiek proteina kantitate berdina izan zezaten. Ondoren, lisatu bakoitzari 4X karga tanpoia edo karga tanpoia gehitu zitzaion kontzentrazio finala 1X izan zedin. Laginak 10 minutuz 95°C-tan termoblokean berotu ziren proteinen desnaturalizazioa lortzeko. Aipatzekoa da esperimentu batzuetarako, espermatozoideen proteina ez zela erauzi ezta kuantifikatu ere egin. Jarraian 500.000 zelula zenbatu eta lisi tanpoia gehitu zitzaien, ondoren desnaturalizatzeko eta gelean kargatzeko.

3.3.4.3. Western Blot-aren prozedura

Western Blot teknikaren prozedurarekin hasteko lehenengo eta behin elektroforesirako akrilamidazko gelak prestatu behar dira. Gelen osagaiak eta proportzioak gel banatzailerako eta gel kontzentratzailerako 3.8. eta 3.9. tauletan biltzen dira hurrenez hurren.

3.8. Taula. Western blot teknikarako erabilitako gel banatzailearen osagaiak.

	%10eko akrilamida	**%12ko akrilamida**
H_2O	Bolumena bete arte	Bolumena bete arte
Tris-HCl pH 8,8	%25 (bol)	%25 (bol)
Akrilamida %30	%33,3 (bol)	%40 (bol)
SDS %10	%1 (bol)	%1 (bol)
PSA %10	%0,5 (bol)	%0,5 (bol)
TEMED	5 µl	5 µl

3.9. Taula. Western blot teknikarako erabilitako gel kontzentratzailearen osagaiak.

	Edozein %-ko gela
H_2O	Bolumena bete arte
Tris-HCl pH 6,8	%25 (bol)
Akrilamida %30	%13,3 (bol)

SDS %10	%1 (bol)
PSA %10	%0,5 (bol)
TEMED	5 µl

Behin konparatu nahi ziren laginen proteina kantitatea berdindu eta desnaturalizatu zenean, hauek akrilamidazko gelean kargatu ziren pisu molekular ezaguneko markatzaileekin batera. Ondoren 100V-tako potentzial diferentzia aplikatu zitzaien proteinak tamainaren arabera banatu ziren arte. Behin elektroforesia bukatuta, proteinak PVDF mintz batera transferitu ziren Mini Trans-Blot III euskarriak erabilita eta hotzetan ordu betez 100V-tako potentzial diferentzia aplikatuz. Aipatzekoa da, sandwich itxurako muntaia egin zela 3.2. irudian deskribaturik agertzen den bezala.



3.2. Irudia. Western blot teknikan tranferentziarako erabilitako sandwicharen osagaiak. Iturria: Ekaitz Agirregoitia.

Transferentzia bukatzean, PVDF mintza %5-eko BSAdun blokeo soluzioarekin ordu betez inkubatu zen giro tenperaturan, antigorputz primarioaren espezifikotasuna bermatzeko. Ondoren, mintza antigorputz egokiarekin inkubatu zen gau osoan zehar 4°C-tan. Antigorputz bakoitzaren diluzioa eta inkubazio denborak 3.4. taulan agertzen dira. Hurrengo egunean antigorputz primarioa kendu eta mintza Blotto tanpoiarekin garbitu zen 5 minutuko hiru garbiketa eginez. Ondoren HRPari (ingelesezko Horseradish peroxidase) konjokaturiko antigorputz sekundario egokiarekin ordu betez inkubatu zen giro tenperaturan eta bukatzean 5 minutuko hiru garbiketa egin ziren. Mintza errebelatzeko ECL sustratu kimioluminiszentea erabili zen, HRParen aktibitatea neurtuz. Kimioluminiszentzia detektatzeko ChemiDoc XRS gailua erabili zen. Proteinen banden intentsitatea eta tamainaren arteko ratioa kalkulatzeko Image J softwarea erabili zen. Aipatzekoa da, lagin bakoitzaren banda *housekeeping* gene batekiko normalizatu zela, kasu guztietan alfa-tubulinarekin.

3.3.5. Proteina (Co)-immunoprezipitazioa (IP) (Co-IP)

SPANX-A/D proteina familiaren interaktoma aztertzeko, proteina (co)-immunoprezipitazioaren teknika erabili zen. Espermatozoideen eta A375 melanoma zelulen proteina erauzketa 3.3.4.1. atalean azaltzen da. Aipatzekoa da A375 zelulak YFP-SPANX-A mutantearekin transfektatu zirela aurretiaz.

Espermatozoideen SPANX-A/D proteina endogenoa prezipitatzeko 500 µg proteina hartu (lau aldiz) eta 25µl anti-SPANX antigorputzarekin inkubatu zen 4 orduz, 4°C-tan biraka. Aipatzekoa da, antigorputz primarioa aurretiaz bola magnetikoetara konjokatu zela. Horretarako, antigorputz primarioa Pure Proteome Protein A bolatxo magnetikoakin ordu betez biraka inkubatu zen giro tenperaturan. Ondoren, 45 minutuz giro tenperaturan borato tanpoiarekin biratzen inkubatu zen eta hori bukatzean, dimetil pimelimidato dihidroklorhidrikoa erreaktiboarekin inkubatu zen, beste 45 minutuz (biraka, giro tenperaturan). Bukatzeko, 0,2 M trietanolaminan, pH 8,2an disolbatuta zegoen 20 mM DMP-tan inkubatu zen ordu betez giro tenperaturan. Kontrol negatibotzat untxiaren-IgG inespezifikoak erabili ziren, eta hauek ere aurretiaz bolatxo magnetikoekin konjokatu ziren arestian azaldu bezala (lau aldiz). Behin immunoprezipitazioa bukatuta, bola magnetikoak lisi tanpoiarekin 3 aldiz eta detergenterik gabeko mRIPA soluzioarekin beste 3 aldiz garbitu ondoren, proteinak eluitzeko 8M Gu-HCL (100 µl) gehitu zitzaien, 70°C-tan 15 minutuz inkubatuz.

A375 melanoma zelulen kasuan, proteina erauzi ondoren, YFP-SPANX-A proteina mutantea prezipitatzeko 500 µg proteina hartu (lau aldiz) eta 25 µl anti-GFP trap_MA antigorputzarekin (bolatxo magnetikoetara konjokatua, komertziala) inkubatu zen 3 orduz, 4°C-tan biraka. Kontrol negatibotzat YFP bektorea erabili zen (lau aldiz). Behin immunoprezipitazioa bukatuta, bola magnetikoak lisi tanpoiarekin 3 aldiz garbitu eta gero, Western Blot teknikarako bideratutako laginak eluitzeko karga tanpoian x1 birsuspenditu ziren eta arestian azaldutako protokoloarekin jarraitu zen. Masazko espektrometriarako bideratutako laginak eluitzeko 8M Gu-HCL (100 µl) gehitu zitzaien, 70°C-tan 15 minutuz inkubatuz.

Ondoren, 3.3.14.3.2 atalean azalduko den protokoloarekin jarraitu zen.

3.3.6. Zeharkako immunofluoreszentzia (IF)

Immunofluoreszentzia teknika zeluletan proteina espezifiko baten presentzia eta bere sakabanaketa aztertzeko teknika da. Intereseko proteina detektatzeko fluoreszentea den antigorputz bat erabiltzen da eta ondoren horrek igorritako fluoreszentzia mikroskopioaren bidez aztertzen da.

Espermatozoideen kasuan, 50.000 zelula zenbatu eta polilisinadun estalkien gainean itsatsi ziren, ondoren estalkiak 24 putzutzutako plaketan sartzeko. Zelula-lerroeidagokienez, zelulak estalkidun 24 putzutzutako plaketan hazten jarri ziren eta %60-70 bitarteko konfluentziara heltzean kultibo medioa kendu eta PBS-arekin garbitu ziren. Ondoren, zelula mota guztiak %4 paraformaldehidoarekin 30 minutuz giro tenperaturan fixatu ziren. Horren ostean, paraformaldehidoa kendu eta zelulak hiru aldiz garbitu ziren PBS-arekin. Espermatozoideak %0,5 tritoi X-100 detergentearekin 10 minutuz permeabilizatu ziren. Zelula-lerro desberdinen kasuan permeabilizazioa suabeagoa izan zen, %0,2 tritoi X-100 10 minutuz erabiliz. Permeabilizazioaren ostean, laginak PBS-arekin garbitu eta gero, zelulak %10ko FBSan ordu betez blokeatu ziren. Behin laginak blokeatuta, %3ko FBSan diluituriko antigorputz primarioa gehitu zen, 4°C-tan hurrengo egunera arte inkubatzen utziz.

Hurrengo egunean, antigorputz primarioa kendu eta PBSarekin hiru garbiketa egin ondoren, konposatu fluorogenikoarekin konjokatutako antigorputz sekundario egokia gehitu zen ordu betez

giro tenperaturan inkubatuz. Zelula mota bakoitzaren nukleoak tindatzeko, Hoechst 33258 markatzailea erabili zen giro tenperaturan 2 minutuz inkubatuz. Behin tindaketa bukatuta, estalkiak banaka eta buruz behera porta baten gainean muntatu ziren Fluoromont muntai medioa erabiliz. Ondoren portak ilunetan eta -20°C tan gorde ziren mikroskopioan analizatu arte. Laginak mikroskopio konfokalaren bitartez (Apotome) aztertu ziren Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) mikroskopia zerbitzu orokorrean (SGIker) eta irudien analisia Image J softwarea erabiliz egin zen.

3.3.7. Polimerasaren kate-erreakzio kuantitatiboa (RT-qPCR)

Espermatozoideetan POMC prekurtsorearen presentzia ikusteko eta SPANX-A/D Sh A375 zeluletan SPANX-A genearen isilpena berresteko RT-qPCR teknika erabili zen. Hau adierazpen genikoaren neurketan datza polimerasaren kate-erreakzioaren (ingelesezko Polymerase Chain Reaction) edo PCR teknikaren bidez. Bereziki, DNAren anplifikazio esponentzialean eta kuantifikazio erlatiboan datza, polimerasa entzimaren bitartez intereseko oligonukleotidoen kate osagarria sintetizatuz.

3.3.7.1 RNAren erauzketa

Zelulen RNA, PureLink® RNA Mini kit-a erabiliz erauzi zen hornitzailearen argibideak jarraituz.

3.3.7.2. RNAren kontzentrazioa, purutasuna eta integritatearen neurketa

RNAren kuantifikazioa NanoDrop eta Synergy HT izeneko espektrofotometroaren bidez egin zen. Laginaren RNAren kontzentrazioa neurtzeaz gain, absorbantzia ere neurtu zen eta uhin-luzera desberdinen arteko ratioa kalkulatu zen laginen purutasuna zehazteko. RNA purua zela onartzeko A260/280 eta A260/230 ratioen balioak 2 inguruan egon behar dira. Beste alde batetik, RNAren integritatea berresteko, laginak %1eko agarosa gelean kargatu ziren eta elektroforesia 125V-ra burutu zen. 18S eta 28S bandak integritatearen adierazle ziren.

3.3.7.3. Alderantzizko transkripzioa (RT)

Espermatozoideen DNA osagarriaren sintesia burutzeko Quantitect Reverse Transcription Kit-a erabili zen hornitzailearen argibideak jarraituz.

A375 melanoma zelulen DNA osagarriaren sintesia burutzeko iScript cDNA Synthesis Kit komertziala erabili zen. Laburki, 1 µg RNA, 1 µl iScript alderantzizko traskriptasa eta 4 µl iScript erreakzio nahasketarekin termozikladorean inkubatu zen hurrengo zikloetan zehar: 5 minutu 25°C-etan, 30 minutu 42°C-etan eta 5 minutu 85°C-etan.

3.3.7.4. Polimerasaren kate-erreakzio kuantitatiboa (qPCR)

qPCRa burutzeko POMC eta SPANX-A/C/D geneak ezagutzen dituzten primer espezifikoak diseinatu ziren. Lehenik eta behin, intereseko genea ezagutzen duen primer espezifikoa diseinatu zen Primer3 softwarea erabiliz (3.10. Taula) (Untergasser et al., 2012).

POMC-ren kasuan anplifikazioa ondorengo konposatuak zituen 25 µl PCR tanpoian egin zen: 3 µl cDNA erreakzio nahasketa, 2,5 mM $MagCl_2$, 200 µM dNTP eta 1.5U DNA polimerasa termoegonkorra. PCR-a 35 ziklotan burutu zen ondorengo parametroak finkatuz: 15 segunduz 94 °C-tan, 20 segunduz 60 °C-tan eta 20 segunduz 72 °C-tan. POMC generako diseinatutako *primer*rak exoietan lotzen ziren. Bukatzeko, RT-PCR produktuak 2,5%-ko gel elektroforesian banatu ziren. Anplikoien tamaina DNA-ren markatzaile molekularrak erabiliz kalkulatu zen eta produktuen identifikazioa anplikoien sekuentziazioaren bidez burutu zen.

SPANX-A/D-rako ordea, erreakzioak 10 µl-ko bolumen osoan burutu ziren ondorengo osagaiak izanik: 50 ng cDNA, 5 µl of SYBR Green eta 200 µM atzerako eta aurrerako primerrak.

3.10. Taula. RT-qPCR teknika burutzeko erabilitako primeren sekuentzia.

Izena	**Genea**	**Sekuentzia (5'-3')**
Giza Propiomelanokortina	POMC	(f) CTCACCACGGAAAGCAACC (r) ATCGGTCCCA GCGGAAGT
Giza Beta-aktina	ACTB	(f) TCCCTGGAGAAGAGCTACGA (r) ATC TGCTGGAAGGTGGACAG
Sperm protein associated with the Nucleus A, C eta D	SPANX-A/C/D	(f) AACGAGATGATGCCGGAGAC (r) TTTGGAGGGGGTTGATTCTG

Aipatzekoa da POMC eta SPANX-A/C/D geneen espresioa hiru esperimentu independentetan neurtu ziren eta esperimentu bakoitzean hiru erreplika erabili ziren. Termozikladorean lortutako Ct-ak 2-ΔΔCt bihurtu ziren konparaketa taldeen arteko kuantifikazio erlatiboa lortzeko.

3.3.8. Klonazio entseguak

SPANX-A/D proteina familiaren funtzioa ezagutzeko mutagenesi esperimentuak burutu ziren plasmido erabiliz. Mutanteak kodetzen zituzten cDNA-k Hind III/BamHI zatiki bezala sintetizatu ziren (gBlocks Gene Fragments, IDT) eta pEYFP-C1 plasmidoan (Clontech) azpiklonatu ziren. Diseinatutako cDNA zatikiak kodetzen dituzten aminoazido sekuentziak ondorengoak dira (3.3. irudia):



3.3. Irudia. Diseinatutako cDNA zatikiak kodetzen dituzten aminoazido sekuentziak pEYFP-C1 bektorean azpliklonatuta.

Laburki azalduta, liofilizatuta zetozen cDNA fragmentu desberdinak Hind III eta Bam I entzimekin digeritu ziren 3 orduz 37°C-ra ur-bainuan, eta hornitzailearen argibideak jarraituz QIAquick PCR purifikazio Kit-a (Qiagen) erabiliz purifikatu ziren. Ondoren, cDNA-k (1 µl) aurretiaz entzima berdinez moztutako, defosforilatutako eta inaktibatutako pEYFP-C1 plasmidoarekin (1 µl) ligatu ziren gau osoan zehar (4°C) ATP (0,75 µl), Ligasa (1 µl), ligasaren tanpoia (1 µl) eta ura (4,75 µl) erabiliz. Kontrol negatiboa egiteko, ez zen cDNA-rik erabili eta plasmidoa intserturik gabe ligatu zen. Aipatzekoa da, plasmido honek kanamizina antibiotikoarekiko erresistentzia duela. Gainera fluoreszentea den EYFP proteina kodeatzen duen sekuentzia dauka.



3.4. Irudia. pEYFP-C1 bektorearen mapa. Bektoreak kanamizinarekiko erresistentzia ematen dio eta MCS izeneko gunean gure mutanteen cDNA sartzen da HindIII eta BamHI entzimentzat errestrikzio guneak dituelako.

Hurrengo egunean, ligazio bakoitza DH5α bakterio erresistenteekin transformatu zen, shock elektrotermikoaren metodoaren bidez. Horretarako, lehenengo eta behin, ligazioak bakterioekin nahastu ziren eta ordu betez izotzetan inkubatu ziren. Bakterioek ligazioak barnera zitzaten 30 segunduz 37°C-tan inkubatu ziren.

Transformazioa burutu eta gero, baldintza esteriletan, bakterioak Lysoni Broth (LB) medioarekin inkubatu ziren ordu betez, 37°C-tan (220rpm). Ondoren, bakterioak kanamizinadun agar plaketan erein ziren eta gau osoan zehar inkubatu ziren 37°C-tan.

Hurrengo goizean, agar plaketan hazitako bakterioen "mini prep" bezala ezagutzen den kultiboa egin zen anplifikatutako plasmidoak erauzteko. Aipatzekoa da, hazitako bakterio guztiek kanamizinareko erresistentea den plasmidoa barruan dutela. Izan ere, horrek ahalbidetzen die kanamizina antibiotikoarekin aberastutako medio batean haztea. Behin koloniak pikatuta, kanamizinadun LB medioarekin nahastu eta gau osoan zehar astitzen inkubatu ziren, 37°C eta 220 rpm-tan. Ondoren, hornitzailearen argibideak jarraituz QiaPrep Spin Miniprep Kit-a eta QIAquick PCR purifikazio Kit-ak (Qiagen) erabili ziren plasmidoen erauzketarako eta purifikazioarako. Horren ostean, plasmido bakoitzaren kontzentrazioa neurtu zen Nanodrop espektrofotometroa erabiliz.

Aipatzekoa da, mutante guztien DNA sekuentziatu zela (Stabvida, Caparica, Portugal) eta nahigabeko mutazioen presentzia berretsi zela.

3.3.9. Mutante desberdinen gainadierazpena

SPANX-A/D proteina familiaren funtzioa aztertzeko zenbait esperimentu burutu ziren A375, HEK293T eta HeLa zelulak plasmido desberdinekin transfektatuz. Horretarako, zelula mota desberdinak transfekzioa baino 24 ordu lehenago 24 putzutako plaketan hazi ziren estalki esterilen gainean eta kultibo medio oso egokiarekin inkubatuz (3.6. Taula).

HEK293T eta HeLa zelula lerroen transfekzioak XtremeGENE 9 izeneko transfekzio erreaktiboa erabilita egin ziren. Transfekzio medioa prestatzeko, FBSrik gabeko kultibo medioa XtremeGENE erreaktiboarekin nahastu zen (100 µl kultibo medioko, 3µl XtremeGENE). Mutante bakoitzaren 600 ng transfekzio medioarekin inkubatu zen 25 minutuz. Bitartean, zelulei kultibo medioa aldatu zitzaien (750 µl). Ondoren, kultibo medio berriaren gainean tantaka plasmido + transfekzio medioaren nahasketa gehitu zen (37 µl) eta plakak 37°C-ko inkubagailuan sartu ziren gau osoan zehar.

A375 zelula lerroaren transfekzioak Lipofectamine 2000 izeneko transfekzio erreaktiboa erabiliz egin ziren. Transfekzio medioa prestatzeko, lehenengo eta behin OPTI-MEM medioa (putzu bakoitzeko 50 µl) Lipofectamine 2000 erreaktiboarekin (putzu bakoitzeko 3 µl) nahastu zen. Beste alde batetik, plasmidoa (1 µg) OPTI-MEM medioarekin (putzu bakoitzeko 50 µl) nahastu zen. Ondoren, 5-10 minutuz, transfekzio medioa eta plasmido diluitua nahastu ziren. Bitartean zelulei kultibo medioa aldatu zitzaien (500 µl) eta gero, putzu bakoitzean nahasketa (90 µl) gehitu zen tantaka. Plakak 37°C-ko inkubagailuan sartu ziren gau osoan zehar.

Transfekzioak egiaztatzeko, estalki esterilen gainean ereindako zelulak, PBS %3,7 formaldehidoarekin fixatu ziren 30 minutuz eta PBS-a erabiliz hirutan garbitu ziren. Ondoren, estalkiak portetan muntatu ziren Vectashield Antifade muntaketa medioa erabiliz. Aipatzekoa da erreaktibo honek zelulen nukleoak tindatzeko 4',6-diamidino-2-fenilindola edo DAPI-a duela. Mutanteen lokalizazioa eta kuantifikazioa aztertzeko Zeiss Apotome 2 mikroskopio konfokala erabili zen erresoluzio handiko mikroskopia zerbitzuan (SGIker UPV/EHU).

3.3.10. Knock down bidezko isilpena

Proteina jakin batek zelulan betetzen duen funtzioa aztertzeko, proteina horren adierazpena gutxitzeko edo isiltzeko metodoak ezagunak dira. Horietariko bat shRNA zelulan transfektatzearena da. Izan ere, hori intereseko proteinaren mRNAra itsatsi eta bere transkripzioa blokeatzen du.

Kasu honetan, proteina jakin baterako eskasa den zelula-lerro egonkorra eratzeko, A375 giza melanoma zelulak GFP eta puromizinarako erresistentzia lortzeko geneak dituzten scramble edo shRNA jakinerako lentibirus partikulekin infektatu ziren. Partikula lentibirikoen zelula barnerako sarrera bultzatzeko polybrene (4ng/ml) izeneko transfekzio erreaktiboa erabili zen. Ondoren, zelula transfektatuen hautatzea egiteko, GFP maila altua zuten zelulak, zelulen sailkapenean (ingelesezko *sorting*) oinarritutako fluxuzko zitometroa erabili zen. Zelula-lerro egonkorrak eratzeko, hauek puromizinarekin (5µg/ml) mantendu ziren eta proteina jakinaren isilpena aldizka egiaztatzen joan zen Western Blot bidez.

Jarraian lan honetan erabilitako hiru shRNA-en sekuentziak zehazten dira:

SPANX-A/D shRNA 1: CCAAATGGAGGAGGAGGAATTCAT
SPANX-A/D shRNA 2: AAGAACATCTCCAGAGGAACTG
SPANX-A/D shRNA 3: CTAGTGGTTCGCTACAGGAGGAAC

3.3.11. Zelulen bideragarritasuna egiaztatzeko entsegua

Zelulen bideragarritasuna Prestoblue izeneko bideragarritasun erreaktiboarekin neurtu zen hornitzailearen argibideak jarraituz. Espezifikoki, erreaktibo honek resazurina izeneko osagaia dauka zeina zelulen barruan sartzen den eta zelula bizien ahalmen erreduzitzailearen bidez bideragarritasun indikatzaile bezala jokatzen duen. Izan ere, zelula bideragarrien ingurunearen erredukzioa bultzatzen du, fluoreszentzia altua duen kolore gorria xurgatuz edo igorriz.

SPANX-A/D proteína familiaren isilpenak A375 melanoma zeluletan duen efektua ikasteko, Scramble Sh eta SPANX-A/D Sh zelulak 96 putzutako plaketan hazi ziren (5 x 10^3 zelula) kultibo medio osoarekin (%10 FBSeta L-Glutaminarekin osagarritutako DMEM kultibo medioa) gau osoan zehar. 18 ordura T=0a finkatu zen. 24 ordura, zelulen bideragarritasuna Prestoblue bideragarritasun erreaktiboarekin neurtu zen. Laburki, kultibo medioa, Prestoblue-rako 1/10 diluiturik zeukan medio osoarengatik aldatu zen eta bideragarritasuna neurtu zen 2 orduz inkubatu ondoren. FLUOstar OPTIMA fluorimetroan produktuaren absorbantzia 570 nm-etan neurtu zen, absorbantzia maila bideragarritasun mailarekin zuzenki erlazionatzeko. Proteinaren isilpenak eragindako absorbantzia aldaketa portzentaietan kalkulatu zen. Baldintza bakoitzaren bideragarritasuna hiru esperimentu independentetan neurtu zen eta esperimentu bakoitzean sei erreplika erabili ziren. Esperimentu independenteen errepliken batazbestekoa kalkulatu zen eta bideragarritasuna portzentaietan adierazi zen kontrolarekiko erlatibizatuz (Scramble Sh).

3.3.12. Wound Healing bidezko migrazio entsegua

Wound healing teknika zelulen migrazioa aztertzeko teknika da. Hau, zelulek zonalde hutsa betetzeko gaitasunean oinarritzen da. Bereziki, SPANX-A/D proteina familiak zelulen migrazioan betetzen duen funtzioa aztertu genuen. Horretarako, SPANX-A/D Sh eta Scramble Sh A375 melanoma zelulak P24 plaka batean hazi ziren 18 orduz. Ondoren, kultibo medioa aldatu zitzaien mitomizinaz (5µg/ml) osatutako kultibo medioaz ordezkatuz eta 1h eta 30 minutuz inkubatu ziren. Ondoren, 20-200 µl-tako pipetaren punta batekin plakaren erdian zauri bertikala eratu zen. Altxatutako zelulek zeramaten kultibo medioa deuseztatu eta PBSarekin bi aldiz garbitu ziren, ondoren, kultibo medio garbia gehitzeko. Horren ostean, zelulak inkubatzen utzi ziren plakaren hondoan sortutako zauria zelulez guztiz bete arte.

Ondoren, eta T=0 finkatzeko, zelulei argazkiak atera zitzaizkien alderantzizko argiko mikroskopioarekin (Axioscope). 24 ordura zelulei argazkiak atera zitzazkien zauriaren azaleraren aldaketa neurtzeko (T=24). Zauriaren azalera denboran zehar aztertzeko, Image J softwarearen *MRI Wound Healing Tool* tresna erabili zen. Baldintza bakoitzaren migrazio gaitasuna hiru esperimentu independenteetan neurtu zen (T=0 – T=24) eta esperimentu bakoitzean hiru erreplika erabili ziren. Esperimentu independenteen errepliken batazbestekoa kalkulatu zen eta bideragarritasun maila kontrolarekiko (Scramble Sh) erlatibizatu zen.

3.3.13. Zelulen transwell migrazioa neurtzeko entsegua

Zelulen migrazio ahalmena neurtzeko transwell migrazio entsegua erabili zen. Honetan, zelulek 8 µm-tako poroak zeharkatzeko duten ahalmena neurtzen da. Espezifikoki, SPANX-A/D proteína familiak tumoreen migrazioan duten funtzioa aztertu zen. Horretarako, SPANX-A/D Sh eta Scramble Sh A375 zelulak ($1,5 \times 10^4$) 8 µm-tako poroak dituzten mintz intsertuen gainean erein ziren kultibo medio osoarekin eta zelulak 20 orduz migratzen utzi ziren. Ondoren, intsertuak %4 paraformaldehidoarekin fixatu, PBS-rekin hidratatu eta % 0,5 Crystal Violet izeneko erreaktiboarekin tindatu ziren, 15 minutuz, mikroskopioaren bidez aztertu ahal izateko.

Baldintza bakoitzaren inbasio gaitasuna hiru esperimentu independenteetan neurtu zen esperimentu bakoitzean ausazko sei eremu aztertzen zirelarik. Esperimentu independenteen errepliken batazbestekoa (migratutako zelulen zenbakiarena 20x-ko eremuan) kalkulatu zen eta inbasio maila kontrolarekiko erlatibizatu zen (Scramble Sh).

3.3.14. Masa espektrometria (MS)

Masa espektrometria proteomikan erabiltzen den ioi molekularren masa/karga (m/z; ingelesetik mass-to-charge) ratioak neurtzen dituen teknika analitikoa da. Teknika honek proteinen presentzia edo absentzia, abundantzia eta identifikazioa ahalbidetzen ditu.

Aipatzekoa da proteinen kuantifikazio zehatzerako, laginak egoera esperimental berdinetan oinarrituta egon behar direla. Horretarako, esperimentuaren diseinuan eta emaitzen analisirako

estrategietan arreta handia jartzea beharrezkoa da (Hu et al., 2005). Gaur egun, markaketarik gabeko (ingelesezko *Label-free*) edota isotopo egonkorrez markatutako (ingelesezko stable isotope labelling) kuantifikazio estrategiak ezagunak dira (Schulze and Usadel, 2010).



3.5. Irudia. Masa espektometria kuantifikazio estrategia komunak. Lauki urdinek eta laranjek bi lagin desberdinei egiten diete erreferentzia. Lerro horizontalak agertzen direnean laginak konbinatzen direla esan nahi du. Lerro etenak agertzen direnean, esperimentazioan aldaketak eman daitezkeela esan nahi du eta ondorioz kuantifikazio akatsak sor daitezke (Bantscheff et al., 2007-tik moldatua).

Tesi honetan, bi motako kuantifikazio estrategiak aurrera eraman dira.

3.3.14.1. Markaketarik gabeko kuantifikazio estrategia edo *Label-free* kuantifikazioa

Teknika honetan laginak independenteki prozesatzen dira eta banaka sartzen dira masazko espektrometroan.

3.3.14.2. Isotopo egonkorrez markatutako kuantifikazio estrategia

Isotopo egonkorrez markatutako kuantifikazioaren bitartez, bi lagin desberdinetan aurkitzen den peptido bera isotopo desberdinarekin marka daiteke eta bi laginak nahastu ondoren, laginaren prozesamendua elkarrekin egin daiteke. Peptido biak kromatografian eta MS analisian berdinak izango dira eta soilik masan desberdinak izango dira. Hori dela eta masa espektrometroak bi laginak desberdindu ditzazke. Kuantifikaziorako peptido berdinaren bi bertsioen intentsitateak konparatzen dira MS edo MS/MS mailan, jarraitutako estrategiaren arabera.

Tesi honen atal batean, markaketa kimikoaren (ingelesezko *chemical labeling*) estrategia erabili zen, eta bereziki Tandem Mass Tag-ean oinarritutako teknika burutu zen. Laburki, teknika hau masa isobarikodun etiketen (ingelesezko *isobaric mass tags*) erabilpenean datza. Etiketa isobariko bakoitza moztu daitekeen aminoazido jakin batekin erreakzionatuko duen talde funtzional batez, masa erreportari batez eta masa orekatzaile talde batez loturik dago. Etiketa hauek amino talde askeekin erreakzionatzen dute eta markaketa peptido mailan gertatzen da. Aipatzekoa da etiketa bakoitzaren erreportari eta orekatzaileen masa desberdina bada ere, bien arteko gehiketa berdina dela. Beraz, etiketa guztien masa osoa berdina da. Ondorioz, era desberdinean markatutako peptidoak kromatografia likidoan ko-eluitzen dira eta ezin dira MS mailan desberdindu. Hori dela eta, peptidoen fragmentazioa beharrezkoa da, izan ere, prozesu horretan zehar masa erreportari desberdinak askatuko dira eta MS/MS mailan desberdinduko dira. Erreportarien intentsitateek, lagin bakoitzean zegoen peptido kopuruari buruzko informazioa emango digute. Hori dela eta, lagin bakoitzean zegoen peptido berdinaren kuantifikazioa erreportarien intentsitateak konparatuta egingo da MS/MS mailan (3.6. irudia).



3.6. Irudia. Marketa isobarikoan oinarritutako kuantifikazioa. Etiketa isobarikoen bidez markatutako peptidoak masa osoan berdinak dira, horregatik kromatografia likidoan era berean eluitzen dira eta ezin dira MS mailan desberdindu. Fragmentazioa eman eta gero, erreportariaren eta orekatzailearen arteko lotura mozten da. Hori dela eta erreportarien masak masa espektrometroaren bidez desberdindu daitezke eta intentsitateen konparazioaren bidez MS/MS mailan peptidoen kuantifikazioa ahalbidetzen du.

3.3.14.3 Masa espektrometria prozedurak

Jarraian estrategia bakoitzean jarraitutako prozedurak azalduko dira:

3.3.14.3.1. Gelean egindako liseriketa edo *In-gel digestion*

Alde batetik, giza espermatozoideetan eta A375 melanoma zeluletan endogenoki aurkitzen diren SPANX-A/D proteina familiaren isoformak eta fosforilazio lekuak aztertu ziren. Horretarako, bi zelula moten proteina zatiki solugarria eta solugaitzak Nu-PAGE 4-12% gelean kargatu eta gero gelean zeharreko liseriketa edo ingelesezko *in-gel digestion* deritzon metodologia jarraitu zen.

Akrilamidazko gela Coomassie urdinarekin tindatu zen proteinen bandak antzemateko eta baldintza esteriletan zenbait zatitan moztu ondoren, hauek banaka liseritu ziren. Laburki, akrilamidazko gel zatiak hodietan jaso eta garbiketa tanpoia (25 amonio bikarbonatoa, %50 etanola) eta etanola erabiliz, kolorantea kendu zitzaien giro tenperaturan. Behin gel zatiak gogor zeudela eta kolore zuria zutela, 10 mM DTT erabiliz proteinak erreduzitu ziren 45 minutuz, 56 °C-tan. 5 minutuz etanolarekin inkubatu eta gero, proteinak 55 mM kloroazetamida (25mM amonio bikarbonatoan) erabiliz alkilatu ziren, 30 minutuz, giro tenperaturan eta iluntasunean. Ondoren, gel zatiak 20 minutuz garbiketa tanpoiarekin garbitu eta 10 minutuz etanola gehitu zitzaien. Prozesu hau gelak erabat deshidratuta egon arte errepikatu zen. Bukatzeko, gel zatiak 12.5 ng/µl tripsinarekin gau osoan zehar inkubatu ziren, 37 °C-tan. Liseriketa eta gero, peptidoak gel zatietatik atera ziren 10 minutuko %30 azetonitrilo (ACN) eta %3 azido triorofluoriko (TFA) eta 10 minutuko %100 ACN inkubaketekin (bi tanpoi bakoitzarentzat). Ondoren, zatikiak konbinatu egin ziren eta Speedvac hutsean sikatu ziren.

3.3.14.3.2. Soluzioan egindako liseriketa edo *In-solution digestion*

Arestian azaldutako immunoprezipitazio prozeduratik zetozen laginak 8M Gu-HCl-an birsuspenditu eta 75 °C-tan 15 minutuz inkubatu ziren proteinak antigorputzarengandik eluitzeko. Ondoren, bolatxo magnetikoak kendu eta gainjalkinak beste hodi batera transferitu ziren. Ondoren, 2 mM DTT erabiliz proteina 30 minutuz giro tenperaturan erreduzitu ziren. Hori bukatzean, proteinak 11 mM kloroazetamida erabiliz alkilatu ziren 30 minutuz giro tenperaturan eta iluntasunean. Liseriketarako, laginak 8M Gu-HCL-an izatetik, 2M-ko kontzentrazioa izateko 25mM ABC-rekin diluitu ziren. Ondoren, LysC (1mg/ml stock-a) entzima gehitu zen 1:100 proportzioan eta 4 orduz inkubatu zen giro tenperaturan. Denbora hori pasa eta gero, tripsina (1mg/ml stock-a) entzima gehitu zen 1:100 proportzioan eta gau osoan zehar inkubatu zen giro tenperaturan. Hurrengo egunean, tripsina entzima inaktibatzeko %10 TFA gehitu zen eta pH-a azidikoa zela frogatu zen.

3.3.14.3.3. C18 Stage Tip bidezko purifikazioa

Masa espektrometroan kargatu beharreko lagin guztiak lehenik eta behin purifikaturik eta gatzik gabe egon behar ziren. Horretarako Stage Tip deritzon purifikazioa aurrera eraman zen. Lehenengo eta behin, C18 diskoez egindako stage tip-ak metanolarekin garbitu ziren. Ondoren %60 ACN eta %0.5 azido azetikoa zuen nahasketa gehitu zitzaien eta horren ostean, bi aldiz garbitu ziren %0.5 azido azetikoarekin. Ondoren, lagina C18 diskoaren gainean kargatu zen eta xiringa baten laguntzaz lagina diskoan barrena sartu zen. Hori egitean, peptidoak %60 ACN eta %0.5 azido azetikoa zuen nahasketarekin eluitu ziren. Jasotako eluzioak Speedvac deritzon hutsean sikatu ziren 2 µl geratu arte

eta lagin bakoitzaren gainean %2 ACN eta %0.3 TFA-z osaturiko 7.5 µl buffer gehitu zen, masa espektrometroan kargatzeko prest egon zitezen.

3.3.14.3.4. Tandem Mass Tag 6-plex

Espermatozoideen Kappa-opioide hartzailearen azpitik dauden seinaliztapen bidezidor intrazelularrak aztertzeko fosfoproteomika kuantitatiboa burutu zen. Horretarako, markaketa isotopikoan oinarritutako Tandem Mass Tag 6-plex erreaktiboa erabili zen.

Laburki, U50488H (1 µl) agonista espezifikoak 1 eta 60 minutuan giza espermatozoideen fosfoproteomikan duen eragina aztertu zen. Horretarako, agonistarekin tratatutako eta tratatu gabeko (kontrola) giza espermatozoideen lagin bakoitzeko hiru erreplika biologiko erabili ziren, esperimentua denbora bakoitzerako sei laginekin hasiz. Ondoren, lagin bakoitzaren proteina solugarriaren eta solugaitzaren zatikiak erauzi ziren 3.3.4.1. atalean azaltzen den bezala.

3.3.14.3.4.1. Espermatozoideen proteomaren azterketa

Proteina solugarriari dagokionez, *in-solution digestion* protokoloa jarraitu zen (3.3.14.3.2 atalean), proteinak DTT-arekin (2mM) erreduzituz eta kloroazetamidarekin (11mM) alkilatuz. Proteina soluziotik detergenteak kentzeko laginak azetonarekin prezipitatu ziren eta ondoren urea 8M tanpoian disolbatu ziren. Proteina solugaitzari dagokionez, laginak 8M GuaHCL tanpoiarekin nahastu eta sonikatu ziren. Ondoren proteinak erreduzitu eta alkilatu ziren. Puntu honetan, jarraian deskribatzen den protokoloa berdina izan zen proteina zatiki solugarri zein solugaitzarentzat (1 eta 60 minututik eratorriak). Ondoren, lagin guztiak 1 mg proteinara egokitu ziren. Ondoren LysC eta tripsina bidezko liseriketarekin jarraitu zen eta hurrengo egunean, SekPak C18 zutabe batekin laginak purifikatu eta garbitu ziren.

Lagin bakoitzeko 100 µg peptido hartu ziren espermatozoideen proteoma osoa aztertzeko eta hori TMT 6-plex markaketa kimikorako erreaktiboa erabiliz egin zen. Laburki, proteinak Speedvac izeneko hutsean lehortu eta TEAB tanpoian (100 µl) disolbatu ziren. QUBIT espektrofotometroa erabilita peptidoen kontzentrazioa neurtu zen eta lagin guztiak 25 µg-ra egokitu ziren. TMT kit bakoitzak 100 µg peptido markatzeko ahalmena dauka eta gure peptidoen kontzentrazioa laurdena zenez, kit erdia erabili genuen. Horretarako, markaketa hodi bakoitzari 41 µl azetonitrilo gehitu zitzaion eta 5 minutuz giro tenperatura orekatzen mantendu eta gero, lagin bakoitzari 20 µl zegokion markaketa erreaktiboa gehitu zitzaion. Jarraian lagin bakoitzean gehitutako markaketa etiketa isotopikoak aurkezten dira:

3.11. Taula. Lagin bakoitzean gehitutako markaketa isotopoa.

Lagina	Markaketa etiketa isotopikoa
Kontrol 1	126
Kontrol 2	127
Kontrol 3	128
U50488H 1	129
U50488H 2	130
U50488H 3	131

Ordu betez eta giro tenperaturan, laginak eta markaketa etiketa isotopikoak nahastu ondoren, erreakzioa gelditu zen 8 µl %11 L-lisina gehituz (15 minutuz). Ondoren, lagin guztiak elkartu ziren eta pH altuko frakzionamendua egin zen nahasturaren izaera oso konplexua zelako.

Pausoz pausoko pH altuko alderantzizko fasean oinarritutako frakzionamendua

Proteinen identifikazioa eta kuantifikazioa handitzeko, lagin guztien nahastura 17 zatikitan banatu zen. Horretarako lagin bakoitzeko 100 µg hartu eta 10 mM amonio hidroxido erabiliz, pH 10-ra egokitu ziren. Ondoren laginak ReproSil-Pur, 1.9 µm 120A bolatxoez osatutako punta baten gainera transferitu ziren. Horren ostean 1.75, 3.5, 5.25, 7, 8.75, 10.5, 12.5, 14, 15.5, 17.5, 21, 24.5, 28, 31.5, 35, 50 eta %70 azetonitrilo edukia zuten tanpoiarekin eluzio sekuentzialak egin ziren eta hauek C18 Stage Tip desberdinetan purifikatu eta garbitu ziren.

3.3.14.3.4.2. Espermatozoideen fosfoproteomaren azterketa

Fosfoproteomaren azterketarako, TiO_2 bidezko fosfopeptidoen aberasketa protokoloa jarraitu zen. Horretarako, liseriketaren ostean proteina solugarri eta solugaitzetik eratorritako (1 eta 60 minutuetatik eratorriak) lagin bakoitzeko 900 µg peptido erabili ziren. Lehenengo eta behin, TiO_2 bolatxoak tanpoi orekatzailearekin (%50 ACN, %0.1 TFA, 30 g/l DHB) orekatu ziren eta 30 minutuz giro tenperaturan biratzen utzi ziren lagin bakoitzeko peptidoekin. Zentrifugazio azkarren bidez, bolatxoak garbiketa tanpoiarekin garbitu ziren (%50 ACN, %0.1 TFA) hiru aldiz. Fosfopeptidoen eluziorako, bolatxoak C8 diskoz egindako Stage Tip baten gainera transferitu ziren. Ondoren, eluzio tanpoia (%40 CAN, %15 NH3) gehitu eta xiringa baten laguntzarekin laginak diskoan barrena pasa ziren. Eluzio tanpoiak zeukan amonioa neutralizatzeko 10 µl %2 ACN, % 0.3 TFA tanpoia gehitu zen. Bukatzeko laginak Speedvac hutsean lehortu ziren eta TMT bidezko markaketa kimikorako egokitu ziren. Horretarako laginei 100 µl TEAB tanpoia gehitu eta ondoren arestian aipatutako isotopoen bidezko markaketa protokolo berdina jarraitu zen (3.3.14.3.4.1. atala, 3.11. Taula). Kasu honetan ez zen laginaren frakzionamendurik egin eta laginen nahasketei C18 Stage Tip bidezko purifikazioa egin zitzaien ondoren masa espektrometroan sartzeko.

3.3.14.4. Masa espektrometroa eta datuen analisi estatistikoa

Aurretiaz azidifikatutako peptidoen nahasturak C18-z osatutako alderantzizko fasedun kromatografia likido bidez banatu eta tandem bidezko masa espektrometria erabiliz (LC-MS/MS) aztertu ziren. Masa espektrometria (MS) analisi guztiak EASY-nanoLC 1000 Sistemara konektatutako Q-Exactive HF masa espektrometroan burutu ziren, *nanoelektrospray* ioi iturria erabiliz (Proxeon Biosystems, Odense, DK).

MS espektro osoak (m/z irismena, 200-2000; erresoluzioa 60,000 m/z 400-ean), Orbitrap-a erabiliz lortu ziren eta karga anitzeko 12 ioi intentsoenen fragmentazioa burutu zen. MS/MS-rako hautatutako ioiak 45 segunduz esklusio dinamiko lista batean utzi ziren. Masa zehaztasuna hobetzeko, masa kalibrazioa burutu zen. Horrez gain, 2.3 kV-ko spray boltaia erabili zen, ez zen gas fluxu osagarririk erabili eta kapilarraren tenperatura 275 °C-takoa izan zen. Fitxategi gordin (ingelesezko *raw file*) guztiak 2015.08 Uniprot (42122 sekuentzia sarrerekin) eta TrEMBL (49496 sekuentzia sarrerekin) datubaseekin konparatu ziren Andromeda bilatzailea duen MaxQuant plataforma (1.5.2.8 eta 1.5.3.30 bertsioak) erabiliz.

Prekurtsoreen eta fragmentuen tolerantziak 4.5 eta 20ppm-takoak izan ziren, hurrenez hurren. Pikuen lista bat eratu zen MaxQuant programaren Quant elementua erabiliz eta ondorengo parametroak finkatuz. Entzima espezifikotasuna tripsina entzimarako ezarri zen, prolinaren N-muturrean eta azido aspartikoaren eta prolinaren erdian mozketa ahalbidetuz eta gehienez 2 mozketa akats (ingelesezko *missed cleavage*) baimenduz. Horrez gain, aldaketa finkotzat karbamidometilazioa (C) kontuan hartu zen, aldaketa aldagarritzat Oxidazioa (M), deamidazioa (NQ) eta Phospho_STY (STY) aintzat hartu ziren bitartean. Peptido eta proteina FDR-a (ingelesezko false discovery rate) 0,01-ean ezarri zen, gune FDR-a 0,01-ean, peptido luzera minimoa 7-an, eta peptido unikoen eta peptidoen kantitatea 1-ean finkatu zen bitartean.

Proteina kuantifikaziorako, soilik aldatu gabeko eta azetilatutako (proteinak N-terminalean), oxidatutako (Met) eta deamidatutako (NQ) peptidoak kontuan hartu ziren. MaxQuant programaren bidez esleitutako proteina taldeei dagokienez, identifikatutako proteina zerrendari kontaminanteak, errebertsoak eta soilik gune bidez identifikatutakoak baztertu zitzaizkien. Horrez gain, soilik aintzat hartu ziren identifikatutako peptidoak ≥ 2 eta peptide unikoak ≥ 1 zituzten proteinak.

Beste alde batetik, fosfopeptidoei zegozkien emaitzak FDR < 1% zenean eta soilik 0,75 baino handiagoko lokalizazio probabilitatea zuten fosfopeptidoak fidagarritzat definitu ziren (Class I sites).
Masa espektrometriatik eratorriak ziren emaitzen estatistika egiteko eta laginen arteko ratioak (ingelesezko Fold change) kalkulatzeko Perseus programa erabili zen. Horrez gain, gene ontologian oinarritzen diren analisiak egiteko Panther tresna informatikoa erabili zen. Bestalde, proteinen arteko elkarrekintzak aztertzeko, GENEMANIA sare interaktiboa erabili zen. Elkarrekintza hauek irudikatzeko Cytoscape plataforma bioinformatikoa erabili zen.

Aipatzekoa da, emaitzen atalean kapitulu bakoitzean egindako masa espektrometria esperimentuen analisi bioinformatikoaren deskribapen zehatzagoa ematen dela.

3.3.15. Datuen analisi estatistikoa

Tesi honetatik eratorritako emaitzen analisi estatistikoa SPSS Statistics (v.22), GraphPAD Prism (v.6.2) eta Perseus (v.1.6.0.7) softwareekin egin zen. Emaitza estatistikoki esanguratsuak kontsideratu ziren*$p < 0.05$ eta estatistikoki oso esanguratsuak **$p < 0.01$. Horrez gain, emaitzen analisirako eta tratamendurako ondoren deskribatzen diren tresna informatikoak erabili ziren.

3.12. Taula. Erabilitako tekniketatik eratorritako emaitzen azterketarako erabilitako trensa informatikoen zerrenda.

Tresna informatikoa	**Bertsioa**	**Erabilpena**
Computer-assisted sperm analysis (CASA)	2005	Mugikortasun espermatikoa
IBM SPSS Statistics	v.22	Analisi Estatistikoa
Image J Softwarea	v.1.49	Irudien tratamendua
Summit Softwarea	v. 4.3	Fluxuzko zitometria analisia
Perseus Softwarea	v. 1.6.0.7	Emaitzen tratamendua
GraphPAD Prism Softwarea	v.6.2	Emaitzen tratamendua
Panther tresna bioinformatikoa	v.13.1	Gene Ontology analisiak
MaxQuant softwarea	v.1.5.2.8 v1.5.3.30	Proteomikaren analisia
Genemania tresna bioinformatikoa		Interaktomaren analisia
Cytoscape plataforma	v.3.5.1	Emaitzen tratamendua

4.Emaitzak
Results

1.Kapitulua

Chapter 1

4. RESULTS

4.1. CHAPTER 1

The opioid peptide beta-endorphin stimulates acrosome reaction in human spermatozoa

Itziar Urizar-Arenaza[1], Haizea Estomba[1], Iraia Muñoa-Hoyos [1], Roberto Matorras [2], Antonia Esposito [2], Luz Candenas [3], Francisco Pinto [3], Asier Valdivia [4], Jon Irazusta[1] and Nerea Subiran [1]

[1]Department of Physiology, Faculty of Medicine and Dentistry, University of the Basque Country (UPV/EHU), Leioa, Bizkaia, Spain, [2] Human Reproduction Unit, Cruces Hospital, BioCruces, University of the Basque Country, Basque Country, Spain, [3] Biological Chemistry Chemical Research Institute – CSIC/University of Seville, Seville, Spain, and [4] Department of Cellular Biology and Histology, Faculty of Pharmacy, University of the Basque Country (UPV/EHU), Vitoria-Gasteiz, Alava, Spain

SUMMARY

The acrosome reaction occurs *in vivo* following sperm capacitation and is essential for the acquisition of sperm fertilization ability. However, little is known about the molecular identity of the physiological acrosome reaction regulators. In addition to progesterone, which is produced by cumulus oophorus cells and known to regulate acrosome reaction by activating the specific calcium channel CatSper, endogenous opioid peptides such as beta-endorphin and met-enkephalin are present at high concentrations in the follicular fluid suggesting that the opioid system may be involved in the mechanisms regulating the acrosome reaction in humans. By using Reverse Transcription-PCR, western blot and immunofluorescence approaches, we described the presence and localization of the beta-endorphin precursor, pro-opiomelanocortin in the middle section and in flagellum of human spermatozoa, and inside the seminiferous tubules of human testis. Flow cytometry and intracellular calcium analyses showed that beta-endorphin causes an inversely dose-dependent increase in the percentage of acrosome-reacted sperm cells by a calcium-independent protein kinase C pathway. These findings are important for future studies of sperm physiology and provide new insight into the function of the opioid system as a target of fertility management.

INTRODUCTION

After ejaculation, human sperm cells are immature and infertile and must undergo many modifications to become fertilization competent (Suarez, 2008a, 2008b). Several morphological and biochemical changes occur during the transit through the female tract. These sperm modifications include different processes such as capacitation (sperm membrane reorganization), hyperactive motility (changes to the motility pattern needed to penetrate oocyte vestments) and acrosome reaction. The acrosome reaction of spermatozoa is a complex calcium-dependent process and is essential for the spermatozoa to fertilize an egg. Fusion at multiple sites between

the outer acrosomal membrane and the cell membrane causes the release of the acrosomal contents and the loss of the membranes surrounding the acrosome (Florman et al., 2008). Progesterone produced by cumulus oophorus cells is known to be the main physiological regulator of acrosome reaction (Baldi et al., 2009) as the binding and the respond of progesterone are compromised in spermatozoa derived from infertile men (Gadkar et al., 2002; Smith et al., 2013).

Progesterone-induced acrosome reaction causes a multicomponent intracellular Ca^{+2} increases (Darszon et al., 2011). In mammalian spermatozoa, the progesterone-induced intracellular Ca^{+2} increase is controlled by a sperm-specific Ca^{+2} channel called CatSper (cation channel of spermatozoa) (Lishko et al., 2011; Quill et al., 2001; Tamburrino et al., 2014). However, several chemical molecules including vitamin D, chemokines, small peptides, the gas NO, neurotransmitters, analogues of cyclic nucleotides, and odorants can also affect the acrosomal exocytosis *in vitro* (Brenker et al., 2012; Eisenbach and Giojalas, 2006; Florman et al., 2008; Suarez, 2008a, 2008b). To date, the underlying signalling mechanisms of acrosome reaction are ill-defined. Endogenous opioid peptides (EOPs) are a type of small peptides known to participate in the regulation of reproductive physiology at multiple sites and, particularly, the opioid system seems to be involved in the regulation of sperm physiology (Subirán et al., 2011).

Previously, we described the presence of three types of opioid receptors (mu, delta, kappa) and other components of the opioid system in human sperm cells and we described its role in sperm motility. (Agirregoitia et al., 2006; Fernández et al., 2002; Subirán et al., 2012, 2008). Nevertheless, the role of the opioid system in acrosome reaction is poorly understood and to date, there have been no relevant *in vivo* studies. Beta-endorphin immunoreactivity has been detected in spermatozoa but the main role of this peptide in human spermatozoa is completely unknown.

Together with progesterone, beta-endorphin is secreted in the oviduct (Petraglia et al., 1986, 1985), raising the possibility that EOPs may be involved in human acrosome reaction regulation. Here, we describe for the first time that the EOP beta-endorphin precursor, proopiomelanocortin (POMC), is present in human testis and sperm cells and that beta-endorphin regulates human acrosome reaction by specific calcium-independent protein kinase C (PKC) pathway.

MATERIALS AND METHODS

Samples and isolation of spermatozoa

Ethical approval for this study was obtained from the Ethics Committee of the University of the Basque Country (CEISH/61/2011). Freshly ejaculated semen was collected from 80 donors (18–35 years old) with normal sperm parameters according to World Health Organization standards (WHO, 2010). Samples were obtained by masturbation after 3–4 days of sexual abstinence and processed immediately upon liquefaction (at 37 °C for 30 min). Spermatozoa were capacitated by a swim-up procedure (Cejudo-Roman et al., 2013) and resuspended in G-IVF (Vitrolife, Goteborg, Sweden) supplemented with 1%

bovine serum albumin for 3 h at 37 °C under 5% CO_2.

Reverse transcription-PCR (RT-PCR) analysis

Total RNA was extracted from a sperm pool containing spermatozoa from eight different donors using TriReagent (Sigma, San Luis, MO, USA) and cDNA was synthesized using the Quantitect Reverse Transcription kit (Qiagen, Venlo, The Netherlands). Specific oligonucleotide primer pairs used for PCR were synthesized and purified by Sigma Genosys (Cambridge, UK) and their sequences were as follows: human Pomc, forward 5′-CTCACCACGGAAAGCAACC-3′ and reverse 5′-ATCGGTCCCA GCGGAAGT-3′ (151-bp product); and human Actb (b-actin), forward 5′-TCCCTGGAGAAGAGCTACGA-3′ and reverse 5′-ATC TGCTGGAAGGTGGACAG-3′ (362-bp product; exon spanning), used as an internal control. A pool of cDNAs from 20 different human tissues (human total RNA master panel, BD Biosciences, Clontech, Palo Alto, CA, USA) was used as a positive control of amplification. Amplification was carried out in 25 μL of PCR buffer containing 3 μL of cDNA reaction mixture, 2.5 mM MgCl2, 0.2 μM primers, 200 μM dNTPs and 1.5 U of heat-activated thermostable DNA polymerase (Immolase; Bioline, London, UK). PCR was performed for 35 cycles with cycling parameters being: 15 s at 94 °C, 20 s at 60 °C and 20 s at 72 °C. The primers for hPomc were located on the same exon of each respective gene (i.e. they did not span introns). Thus, we verified the possible carry-over of genomic DNA during the extraction process by performing PCR in the absence of reverse transcriptase. Expression of CD4 and acrosin was also analysed to exclude the presence of leucocyte contamination and to verify the presence of sperm complementary DNA respectively (data no shown). The RT-PCR products were separated by 2.5% gel electrophoresis. The amplicon sizes were verified by comparison with a DNA size-ladder and the identity of the products was established by sequencing of amplicons.

Western blotting

Sperm proteins were prepared as described elsewhere (Subirán et al., 2012), modifying the lysis buffer (phosphate-buffered saline, PBS and 1% [v/v] Triton-X100, with protease inhibitor cocktail). Membrane pellets were suspended in lysis buffer, and then protein extracts were diluted in Laemmly sample buffer containing b-mercaptoethanol (5% vol/vol) and boiled for 5 min. Proteins (50 μg sperm protein; 30 μg kidney protein) were loaded onto 12% resolving gels and separated by one-dimensional sodium dodecyl sulfate polyacrylamide gel electrophoresis (SDS-PAGE). Proteins were then transferred to polyvinylidene fluoride membranes using the Mini Trans-Blot electrophoretic transfer system (Bio-Rad Laboratories, Hercules, CA, USA). After transfer, the membrane was blocked with Blotto (20 mM TrisHCl, pH 7.5, 0.15 M NaCl, 1% Triton X-100) containing 5% nonfat dry milk (blocking buffer) for 1 h and then incubated with a dilution of polyclonal rabbit anti-POMC antibody (1 : 200) After washing (3 x 5 min) in Blotto buffer, the membrane was incubated for 1 h with peroxidase-conjugated goat anti-rabbit IgG antibody (1 : 3000) (Goat anti-rabbit IgG HRP, ab6112; Abcam, Cambridge, UK). Blots were revealed for peroxidase activity by enhanced chemiluminiscence.

Indirect immunofluorescence

Isolated spermatozoa obtained after swim-up and human frozen testis slides provided by Zyagen Company (California, USA) were used to identify the localization of POMC in human sperm cells and testis, and to analyse the effect of beta-endorphin on PKC-signalling pathways.

Cells were fixed in 4% paraformaldehyde for 10 min, permeated in 0.5% Triton X-100 for 10 min and blocked for 30 min with 10% (v/v) foetal bovine serum in PBS. For immunofluorescence staining, samples were incubated overnight at 4 °C with different primary antibodies. We used rabbit polyclonal anti-proopiomelanocortin (1 : 500) (Santa Cruz Technologies, CA, USA) and rabbit anti-phospho-PKC (Cell Signalling, Massachusetts, USA) antiserum at a dilution of 1 : 500. Secondary antibody incubations involved Alexa Fluor 488 donkey anti-rabbit IgG (1 : 2000) (Molecular Probes, Oregon USA). Nuclei were stained with Hoechst 33258 at 10 µg/mL (spermatozoa) and propidium iodide at 100 µg/mL (testis), and slides were assembled with Fluoromount G (Molecular Probes). The specificity of the primary antibody was verified by using negative unspecific rabbit immunoglobulin fraction (normal) (Dako, Glostrup, Denmark) in the same concentration as the primary antibody, and pre-absorbing primary antibody immunoreactivity with beta-endorphin (10^{-5} M) for 2 h at room temperature before incubation. At the same time, controls for the specificity of the secondary antisera were performed by omitting the primary antiserum before addition of the secondary antisera.

Finally, the samples were examined using confocal microscopy (Olympus Fluoview FV500, Tokyo, Japan). Corrected total cell fluorescence (CTCF) per area was measured by ImageJ software (National Institutes of Health, Maryland, USA) using the following equation: CTCF = [Integrated density (Area of selected cell 9 Mean fluorescence of background readings)]/Area of selected cell. We measured the green fluorescence of at least 200 cells.

Incubation media and treatments

Isolated spermatozoa were treated at 37 °C under 5% CO_2 with different doses of beta-endorphin (10^{-5}, 10^{-7} and 10^{-9}M). Sperm samples were divided into aliquots of 0.1 mL in G-IVF (Vitrolife) and one of the different concentrations of beta-endorphin was added to each aliquot. An equal volume of solvent was used as control. In addition, to ascertain the specificity of the action of the peptide, beta-endorphin (10^{-9}M)-treated sperm cells and control samples were also co-incubated with naloxone, an antagonist of opioid receptors, at high (10^{-5}M) and low (10^{-8}M) concentrations. High naloxone doses (10^{-5}M) block the three opioid receptors and low doses (10^{-8}M) are able to block selectively the mu-opioid receptor. Sperm cells were treated with naloxone for 10 min before beta-endorphin addition. In all experiments, sperm cells were incubated with beta-endorphin for 60 min. Finally, to evaluate the effect of beta-endorphin on progesterone induced acrosome reaction, samples were also co-incubated with 10^{-9}M beta endorphin and 10^{-6}M progesterone. After 1 h of incubation with beta-endorphin, samples were treated with progesterone for 15 min.

Treated spermatozoa were used for subsequent experiments

Flow cytometry

In all experiments, acrosome reaction was measured by flow cytometry. We used Fluorescein IsoTioCyanate (FITC) anti-human CD46 (for 60 min at room temperature; BioLegend, California, USA) and Hoechst 33258 (2 min at room temperature; Sigma-Aldrich, Missouri, St. Louis, USA) as acrosome reaction molecular marker and viability dyes respectively. Samples were checked visually by confocal microscopy to verify the signal of the dyes. Green positive cells represented acrosome-reacted spermatozoa. Fluorescence data from at least 100.000 events were analysed in a flow cytometer (FACScalibur; Becton Dickinson, San Jose, CA, USA). To ensure fluorescence data were from live spermatozoa, the percentage of Hoechst 33258-positive events was determined by subtraction of background fluorescence in each histogram. We also analysed the effect of beta-endorphin on PKC signalling pathways using flow cytometry. Capacitated spermatozoa obtained by Percoll gradient followed by a swim-up procedure were incubated for 3 h in GVI-F medium. A minimum of $3x10^6$ cell/mL was collected and treated as we described before. Collected spermatozoa were fixed and permeated in suspension in 0.5% Triton X-100 for 10 min. Samples were washed twice in PBS by centrifugation at 800 g for 5 min and incubated in blocking medium (PBS/10% (v/v) foetal bovine serum) for 30 min. For immunofluorescence staining, samples were incubated overnight at 4 °C with rabbit anti-phospho-PKC (Cell Signalling) antiserum at a dilution of 1:500. On the next day, the samples were centrifuged in PBS at 800 g for 5 min and incubated with Alexa Fluor 488 donkey anti-rabbit IgG (1 : 2000) (Molecular Probes) in the dark, at room temperature for 1 h. Nucleus was stained with 0.1 μg/mL Hoechst 33258 for 2 min. Finally, samples were washed twice by centrifugation in PBS at 800 g for 5 min, suspended in PBS and kept in the dark until analysis. Negative controls were performed by omitting the primary antibody before secondary antibody addition and by using negative unspecific rabbit immunoglobulin fraction (normal) (Dako) in the same concentration as the primary antibody. Fluorescence data from at least 100.000 events were analysed. To measure the green fluorescence only from spermatozoa, the percentage of Hoechst 33258-positive was determined by subtraction of background fluorescence in each histogram. Histograms were analysed using the Summit v4.3 software (Beckman Coulter, California, USA).

Measurements of sperm intracellular free Ca^{2+} concentration $[Ca^{2+}]_i$

For measurement of $[Ca^{2+}]_i$, spermatozoa were adjusted to a concentration of $10x10^6$ cell/mL in corresponding medium. They were then incubated with the acetoxymethyl ester form of Fura-2 (Fura-2/AM, $8x10^{-6}$ M; Molecular Probes) for 60 min at room temperature in the presence of the non-cytotoxic detergent pluronic acid (0.1%; Molecular Probes). After loading, the cells were washed and resuspended in G-IVF solution and used within the next 2–7 h. Sperm aliquots (1 mL) were placed in the quartz cuvette of a spectrofluorometer (SLM Aminco-Bowman, Series 2; Microbeam, Barcelona, Spain) and magnetically stirred at 37 °C. The emitted fluorescence was measured at 510 nm.

Lehenengo eta behin U50488H agonistak SPANX-A/D proteina familiaren lokalizazioan eraginik zuen aztertu zen inmufluoreszentzia bidez giza espermatozoideetan. Horretarako, espermatozoideak 1 µM agonista espezifikoarekin tratatu ziren 1 minutuz. Zelulak fixatu, permeabilizatu eta blokeatu ondoren, anti-SPANX antigorputza erabili zen tindaketarako. Esperimentua birritan egin zen eta estatistika egiteko gai izan ez baginen ere, emaitzek tendentzia argia erakusten zuten. Hain zuzen ere, U50488H gehitu eta gero, SPANX-A/D proteina familia akrosoma, flagelo eta nukleoa bezalako konpartimentuetan ugariagoa zen. U50488H tratamenduak ordea, erdiko piezan SPANX-A/D proteina gutxiago metatzea eragiten zuen (I.Irudia).

Horren arabera, badirudi KOR hartzailearen agonistak SPANX-A/D proteina familia endogenoaren lokalizazio aldaketa eragiten duela giza espermatozoideen zelula barneko konpartimentu desberdinetan. Emaitza horretan oinarrituta U50488H agonistak SPANX-A/D proteina familiaren interaktoreetan aldaketarik sortzen zuen aztertu genuen. Horren ikasketarako lehenengo eta behin espermatozoideak agonistarekin tratatu ziren 1 minutuz (1 µM) eta 3.3.5 atalean azaltzen den metodologia jarraitu zen ondoren laginak masa espektrometria bidez aztertzeko.

Lehenengo eta behin, tratamenduarekin eta hori gabe SPANX-A/D proteina familiaren interaktoreen artean agertzen edo desagertzen diren proteinak aztertu genituen. Horretarako, interaktore berdina baldintza batean bestean baino 3 kasu gehiagotan agertu behar zen gutxienez. I. Taulan eta II.irudian ikus daitekeenez, tratatu gabeko laginetan SPANX-A/D proteinak 9 koprezipitaturekin elkarrekingo luke. Tratamenduarekin ordea 9 proteina horien elkarrekintza desagertuko litzateke eta TSG101, RAB1A, EFHC2, WDR63 eta PARL bezalako proteinekin interakzio berriak emango lirateke. Hala ere, orokorrean bi baldintzetan agertzen eta desagertzen diren interaktore posibleen funtzioa eta zelulan barreneko lokalizazioari erreparatuta, antzeko rola betetzen duten proteinak daudela esan dezakegu (I.Taula). Beraz, emaitza hauekin momentuz, U50488H tratamenduarekin giza espermatozoideen SPANX-A/D proteina familiari lotzen zaizkion interaktore posibleak aldatzen direla soilik esan dezakegu.


U50488H
Control
SPANX-A/D/DNA

	Acrosome	Midpiece	Flagella	Nucleus
Control	17,5	22	40	6,5
U50488H	30	10,5	63	23,5

I. Irudia. U50488H agonistaren efektua giza espermatozoideen SPANX-A/D proteinaren lokalizazioan. **(A)** Immunofluoreszentzia bidezko azterketak U50488H (1 µM, 1 minutuz) agonistak SPANX-A/D proteinaren lokalizazioan duen eragina aztertzeko. Nukleoak (DNA) Hoescht markatzailea erabiliz tindatu ziren. Argazkiak Apotome mikroskopio konfokalarekin atera ziren. Handipena: x63. Eskala-barra: 5 µm. (N=2) **(B)** U50488H tratamenduak SPANX-A/D proteinaren zelulan barreneko konpartimentalizazioan duen eragina erakusten duen taula X ardatzak giza espermatozoideen konpartimentu desberdinak adierazten ditu eta Y ardatzak kontrol eta U50488H-ez tratatutako zeluletan konpartimentu bakoitzerako SPANX-A/D-rako positiboak ziren zelula kopurua adierazten du. Totalean 200 espermatozoide zenbatu ziren baldintza bakoitzerako.

Beste alde batetik, agonistarekin tratatutako eta tratatu gabeko espermatozoideen SPANX-A/D proteinen interaktore berdinen artean ugaritasuna aldatzen zen aztertzeko interaktore berdina tratatutako zein tratamendurik gabeko lau errepliketan derrigorrez agertu behar zen. Scatter plot itxurako grafikoan U50488H tratamenduarekin eta tratamendurik gabe 9 proteinek SPANX-A/D-rekin era ugariagoan elkarrekiten dute kontrolarekin konparatuta (II.Taula, III. Irudia). Alde batetik, zitoeskeletoarekin erlazionatutako ODF3, FAM154A, CCDC familia eta C4orf47 bezalako proteinak ugariagoak dira. Gauza bera gertatzen da mRNA splicing prozesuarekin erlazionatutako SNRNP70 proteinarekin, proteinen sintesirako beharrezkoa den EIF-3 konplexuaren osagai den EIF3L proteinarekin eta histonen metilazioan diharduen SETD9 proteina nuklearrarekin. Aitzitik, ubikinol-zitokromo erreduktasaren konplexuaren osagai den UQCRH proteina mitokondrialak ugariago elkarrekiten du SPANX-A/D proteina familiarekin trataturiko gabeko laginetan. Aipatzekoa da, tratamenduak SPANX-A/D proteinaren interaktoreen ugaritasunean eragiten dituen aldaketak ez direla proteina desberdinen sintesiaren, edo degradazioaren menpekoak (2. Kapitulua, Supplemental Figure S2).

Hori horrela izanda, badirudi SPANX-A/D proteina familiak interaktore desberdinen bahiketan parte hartuko lukeela U50488H agonista gehitzerakoan. Horrela interaktore desberdinek duten funtzioa oztopatuta suertatuko litzateke. Esaterako, giza espermatozoideak tratatzerakoan zitoeskeletoarekin erlazionatutako proteinak SPANX-A/D proteina familiarekin era ugariagoan elkartuko lirateke. Emaitza hauek bat datoz 2.kapituluan deskribatzen diren emaitzekin, izan ere, U50488H-k giza espermatozoideen mugikortasuna inhibitzen du 1 minutuko tratamenduaren ostean. Gainera, agonistak SPANX-A/D proteina familiaren eta kaltzioaren seinaliztapen bidezidorrarekin erlazionatuta dagoen EFHC2 proteinaren erreklutazioa sustatzen du. Emaitza horiek bat datoz KOR hartzaileak kaltzioaren bidezidorra modulatu dezakeen emaitzekin.

I. Taula. U50488H tratamenduaren ondorioz desagertzen eta agertzen diren SPANX-A/D interaktore posibleak. Interaktore berdina baldintza batean bestean baino 3 kasu gehiagotan agertu behar zen gutxienez.

	Gene name	Protein name	Function	Localization
CONTROL	**FAM170A**	Protein FAM170A	Acts as a nuclear transport factor that positively regulates the expression of Heat shock genes	Nucleus
	RAD23B	UV excision repair protein RAD23 homolog B	Modulation of proteasomal degradation	Nucleus
	PGP	Glycerol-3-phosphate phosphatase	Lipid and energy metabolism	Mitochondria
	FLAD1	FAD synthase	Synthesis of FAD	Mitochondria
	CSNK1G2	Casein kinase I isoform gamma-2	Serine/threonine kinase	Cytoplasm
	GOLGA6A	Golgin subfamily A member 6A	Unknown	Golgi Apparatus
	COPA	Coater subunit alpha	Protein transport	Golgi Apparatus
	SSSCA1	Sjoegren síndrome/scleroderma autoantigen 1	Unknown	Centromere
	SPERT	Spermatid associated protein	Unknown	Unknown

	Gene name	Protein name	Function	Localization
U50488H	**TSG101**	Tumor susceptibility 101	Protein transport	Nucleus and endosomes
	PARL	Presenilins associated rhomboid like protein	Proteolitic activity	Mitochondrial
	RAB1A	RAS Related protein RAB1A	Protein transport	Cytoplasm Endoplasmic reticulum Golgi apparatus

	WDR63	WD repeat domain containing protein 63	Dynein binding	Cytoskeleton
	EFHC2	EF hand domain containing protein member C2	Calcium ion binding	Unknown



II. Irudia. U50488H tratamenduaren ondorioz desagertzen eta agertzen diren SPANX-A/D interaktore posibleen irudikapen eskematikoa. Eskema egiteko, interaktore berdina baldintza batean bestean baino 3 kasu gehiagotan agertu behar zen gutxienez.

Bestalde, 3. Kapituluko II. Eranskinean aurkezten diren immunofluoreszentziako emaitzek ildo beretik jarraitzen dute, izan ere, agonista gehitzerakoan SPANX-A/D proteina akrosoma, flagelo eta nukleoa bezalako konpartimentuetan ugariagoa zen bertan kokatzen diren proteinekin era ugariagoan elkarrekinez. Aldiz, U50488H tratamenduak, erdiko piezan SPANX-A/D proteina gutxiago metatzea eragiten zuen. Ezaguna denez, giza espermatozoideek konpartimentu horretan mitokondrioak dituzte eta zelularen energia iturri garrantzitsuena dira. Emaitza hauek III. eranskineko III.Irudian lortutakoekin bateragarriak dira, izan ere, tratamendua gehitzerakoan UQCRH bezalako proteina mitokondrialak (Park et al.,2017) SPANX-A/D proteinarekin era murriztuagoan elkarrekiten du. Emaitza hauen arabera esan daiteke KOR hartzailea gai dela SPANX-A/D proteina familiaren elkarrekintzak erregulatzeko.

Horretan oinarrituta pentsa genezake KOR hartzailearen bidezko SPANX-A/D proteina familiaren interaktoreen aldaketa horren fosforilazioaren ondoriozkoa izan litekeela. Horregatik, U50488H agonistak giza espermatozoideen SPANX-A/D proteina familiaren isoforma desberdinen fosforilazioan eraginik zuen aztertzeko, fosfopeptido desberdinen ugaritasuna aztertu zen tratatu eta tratatu gabeko laginetan (1 µM, 1 eta 60 minutuz). III.Taulan ikus daitekeenez, fosfoproteoma azterketatik eratorritako SPANX-A/D proteina familiako isoforma desberdinei dagozkien emaitzak erakusten dira, identifikatutako fosfopeptido guztiek 0.75 baino gehiagoko lokalizazio probabilitatea daukatelarik.

II Taula. U50488H agonistaren eragina giza espermatozoideen SPANX-A/D proteinaren interaktoreetan. U50488H agonistarekin tratatutako zein tratamendurik gabeko lau errepliketan aldatzen diren interaktorei buruzko informazioa.

	Gene name	Protein name	Function	Localization
U50488H/ CONTROL>1,5	**SNRNP70**	U1 small nuclear ribonucleoprotein 70 kDa	Recognition of spliceosome and mRNA splicing	Nucleus
	SETD9	SET domain-containing protein 9	Methylation of Histones and other proteins	Nucleus
	EIF3L	Eukaryotic translation initiation factor 3 subunit L	Assembly of EIF-3 complex: Initiation of protein synthesis	Cytoplasm
	FAM154A (SAXO1)	Protein FAM154A (Stabilizer of axonemal microtubules 1)	Regulation of cillium lenght and axoneme stabilization	Cytoskeleton
	ODF3	Outer Dense Fiber 3 protein	Mantainance of the passive elastic structures and elastic recoil of the sperm tail. Cancer testis-Antigen in cancer	Cytoskeleton
	CCDC19 (CFAP45)	Coiled-coil domain-containing protein 19, mitochondrial (Cillia and flagella associated protein 45)	Tumor supressor in non-small cell lung cancers	Cytoskeleton
	C4orf47	Coiled-coil domain-containing protein 173	Component of the centrosome	Cytoskeleton
	CCDC173	Coiled-coil domain-containing protein 173	Unknown	Unknown
	TEX26	Testis expressed sequence 26	Unknown	Unknown

U50488H/ CONTROL<0,67	**UQCRH**	Cytochrome b-c1 complex subunit 6, mitochondrial	Component of the ubiquinol-cytochrome c reductase complex (complex III or cytochrome b-c1 complex), which is part of the mitochondrial respiratory chain.	Mitochondria



III. Irudia. U50488H agonistaren eragina giza espermatozoideen SPANX-A/D proteinaren interaktoreetan. SPANX-A/D interaktore posibleen U50488H/Kontrol ratioaren Log $_{1,5}$ vs. U50488H/Kontrol arteko T Student estatistikoaren $-\text{Log}_2$ ($p<0.05$). Scatter plot itxurako grafiko hau egiteko interaktore berdina tratatutako zein tratamendurik gabeko lau errepliketan derrigorrez agertu behar zen.

Aldaketa esanguratsua kontsideratzeko ondorengo baldintzak finkatu ziren U50488H/Kontrol Ratioa >1.5 eta <0.67 (Log_2 >0,58 eta <-0,58, hurrenez hurren), eta p value <0.05 (Log_2>4,32). Emaitzei erreparatuz, ez genuen baldintza horiek betetzen zituen kasu esangarririk ikusi. Beraz, lortutako datuen arabera eta markaketan oinarritutako TMT estrategia fosfoproteomikoa jarraituz, U50488H agonistak ez du 1 eta 60 minutuetan SPANX-A/D familiako isoforma desberdinen fosforilazioan eragiten giza espermatozoideetan.

Eranskin honetan lortutako emaitzei guztiei erreparatuta badirudi KOR hartzaileak giza espermatozoideen mugikortasuna erregula dezakeela SPANX-A/D proteina familiarekin elkarrekiten duten interaktoreak aldatuz. Interaktore hauen aldaketa ordea, ez da SPANX-A/D proteina familiaren fosforilazio egoeraren menpekoa. Hala ere etorkizunean esperimentu gehiago egingo lirateke emaitza horiek berresteko.

III. Taula. U50488H-ren eragina giza espermatozoideen SPANX proteina familiaren isoformen fosforilazioan.

				Log2 Fold change U50488H/Control				-Log2 Students T-test p-value U50488H/Control			
Gene name	Position	Amino acid	Localization Probability	Soluble 1min	Soluble 1 hour	Insoluble 1 min	Insoluble 1 hour	Soluble 1min	Soluble 1 hour	Insoluble 1 min	Insoluble 1 hour
SPANXB1	13	S	1	0	0	-0,025115	0,4124763	0	0	0,0548961	4,475935
SPANXB1	18	S	1	0	0	-0,106204	0	0	0	0,3127995	0
SPANXB1	34	T	0,96485	0	0	0	-0,133832	0	0	0	0,9530729
SPANXB1	53	S	0,960769	-0,026254	0,5743328	0,4217419	0,2306211	0,2371816	1,794209	2,2695776	1,4854686
SPANXD	47	S	0,960769	0,071714	0,5140495	0,788049	0,1110608	0,5882393	1,7432542	1,6114174	0,7595689
SPANXA1	13	S	0,947883	0	0	0	-0,071774	0	0	0	0,8063736
SPANXB1	54	S	0,844546	0	0	0,236605	0,4148651	0	0	1,2260415	11,381345
SPANXD	48	S	0,844546	0	0	0,602912	0,3106418	0	0	1,3857114	4,7385775
SPANXA1	28	T	0,843021	0	0	0	-0,062082	0	0	0	1,3028177
SPANXB1	55	T	0,750828	0	0	0	0	0	0	0	0
SPANXD	49	T	0,750828	0	0	0	0	0	0	0	0

5. Eztabaida

Discussion

5. EZTABAIDA/DISCUSSION

Antzutasun eta ugalkortasun arazoak betidanik kezka mediko eta sozial garrantzitsuak direla onartu bada ere, azken urteotan arazo kliniko esanguratsuan bihurtu dira. Izan ere, mundu osoan zehar adin ugalkorrean dauden bikoteen %15ak pairatzen ditu gutxi gora behera (ESHRE.,2014; Mascarenhas et al., 2012). Normalean, antzutasunaren eragileak faktore maskulinoa (%40) eta femeninoa (%40) badira ere, kasu askotan arazoaren kausa ulertezina izan daiteke (Mascarenhas et al., 2012).

Giza espermatozoideei dagokienez, ezaguna da behin isuriak direnean ez direla obozito bat *in vivo* edota *in vitro* ernaltzeko gai. Hori dela eta, emakumezkoaren ugaltze-traktuan mugikortasun ahalmena, kapazitazioa eta erreakzio akrosomikoa jasan behar dituzte gameto emearekin bat egin ahal izateko eta zigotoa eratzeko (Visconti et al., 2011). Prozesu fisiologiko horien erregulatzaile nagusiak kanale ionikoak badira ere (Hille et al.,1992), badirudi azken 10 urteotan giza espermatozoideen gainazalean deskribatutako GPCR hartzaileek ere espermatozoidearen fisiologian zeregin garrantzitsua izango luketela (Aitken, 1985; Calogero et al., 1996; Morales et al., 1998; Spehr et al., 2004; Zitta et al., 2007).

Gaur egun, gero eta ikerketa gehiago giza espermatozoideen GPCR hartzaileen ikasketan oinarritzen badira ere, gutxi dira horien azpitik induzitzen diren mekanismo molekularrak aztertzen dituztenak. Hala ere, zelula somatikoekin konparatuta, giza espermatozoideek hartzaile hauen azpitik eta proteina espezifikoen bitartez, seinaliztapen bidezidor intrazelular bakar eta bereziak piztuko lituzkete. Bereziki, ezaguna da gizakiaren gameto arrak ez duela mintzarteko adenilato ziklasarik (tmAC) adierazten eta horren ordez, bikarbonatoaz aktibatzen den forma solugarria (SACY) erakusten duela (Rojas et al., 1992; Urizar-Arenaza et al., 2018a, errebisiopean). Kaltzioaren seinaliztapen bidezidorrari dagokionez, giza espermatozoideek CatSper izeneko kaltzio kanale espermatozoide-espezifikoa adierazten dute, mugikortasun hiperaktiboaren eta erreakzio akrosomikoaren erregulaziorako ezinbestekoa dena (Brenker et al., 2012). Horrez gain, transkripzio eta itzulpen prozesuak isilik badituzte ere, MAP kinasen seinaliztapen bidezidorrean parte hartzen duten zenbait proteinen presentzia deskribatu da (Almog et al., 2008). Hori guztia kontuan hartuta, zelakoak dira giza espermatozoideen GPCR hartzaileek pizten dituzten mekanismo molekularrak? Gizonezkoaren antzutasunaren kausak konplexuak eta faktore anitzen menpekoak badira ere, seinaliztapen bidezidor horien deskribapen sakonagoa antzutasunaren diagnostikorako erabilgarriak diren proteinen identifikazioan zein antisorgailuen garapenean lagungarria litzateke (Schlyer and Horuk, 2006). Izan ere, GPCR hartzaileak industria farmazeutikoan droga anitzen itu garrantzitsuenak direla onartzen dira (Schlyer and Horuk, 2006).

Sistema opioidea, fisiologian garrantzia handia duen zelulen komunikazio sistema da (Subirán et al., 2011) eta GPCR kontsideratzen diren hartzaile opioideen bitartez jarduten du. Klasikoki, Nerbio Sistema Zentralean minarekin eta plazerrarekin (Böttcher et al., 2017) erlazionatu bada ere, azken urteotan ugalkortasunarekin eta garapenarekin harremandu da (Subirán et al., 2011). Bereziki, gure ikerketa taldeak 2006. urtean (Agirregoitia et al., 2006) MOR, DOR eta

KOR opioide hartzaileen presentzia deskribatu zuen giza espermatozoideetan, fisiologiaren erregulazioan funtzio garrantzitsua bete zezaketela iradokituz. MOR eta DOR opioide hartzaileek giza espermatozoideen mugikortasunaren erregulazioan parte hartzen zutela ikusi bagenuen ere (Agirregoitia et al., 2006), KOR opioide hartzaileak giza espermatozoideen mugikortasunean zuen funtzioa ez zen argitu. Horrez gain, hiru opioide hartzaileek kapazitazioan eta erreakzio akrosomikoan duten rola zein horien azpitik dauden mekanismo molekularrak gaur egun aski ezezagunak dira.

Hartzaile opioideek giza espermatozoideen kapazitazioan eta erreakzio akrosomikoan betetzen zuten funtzioa aztertzeko, lehendabixi beta-endorfina peptido opioide endogenoa erabili zen. Bereziki, beta-endorfina ahalmen berdinarekin lotzen da MOR eta DOR hartzaileetara (Subirán et al., 2011). Emaitzek erakutsi zutenez, beta-endorfina giza espermatozoideen erreakzio akrosomikoa estimulatzen du PKC-seinaliztapen bidezidor intrazelularraren bitartez, beste induzitzaile batzuetarako deskribatu den bezala (O'Toole et al., 1996; Vigil et al., 2011). Gure emaitzek iradokitzen dutenez, badirudi PKC hori kaltzioarekiko independentea litzatekeela (Urizar-Arenaza et al., 2016), beta-endorfinak ez baitu kaltzio intrazelularren mailan eraginik sortzen. Hori dela, eta pentsa genezake beta-endorfinak giza espermatozoideen erreakzio akrosomikoa bultzatuko lukeela bere aktibaziorako kaltziorik behar ez duen PKC baten bitartez. Ezaguna denez, ζ eta λ/ι isoformak kaltzioarekiko eta DAG-rekiko independenteak dira eta azken urteotako ikerketek erakutsi dute giza espermatozoideez gain zenbait zelula somatikoek ere adierazten dituztela (Govekar and Zingde., 2001; Steinberg., 2008; Ferrer-Vaquer et al., 2016; Urizar-Arenaza et al., 2018a, errebisiopean). Hala ere, soilik emaitza horiek kontuan hartuta, ezin dugu aitortu giza espermatozoideek mekanismo molekular bereizgarriak aktibatzen dituztela GPCR hartzaileen azpitik.

Emaitza horietan oinarrituta, GPCR hartzaileek giza espermatozoideetan mekanismo molekular espezifikoak induzitu lezaketela pentsa genezake. Hori aztertzeko, KOR opioide hartzailearen azpitik induzitzen diren mekanismo molekularrak aztertzeari eta GPCR honek giza espermatozoideen ahalmen ugalkorrean duen funtzioa ikasteari ekin genion. Analisi fosfoproteomiko eta funtzionalek erakutsi zutenez, KOR hartzaileak giza espermatozoideen mugikortasun hiperaktiboa eta erreakzio akrosomikoa inhibitzen ditu kaltzio-kanaleen modulazioaren eta espermatozoide-espezifikoak diren proteinen fosforilazio aldaketen bidez (Urizar-Arenaza., 2018a, errebisiopean). Bereziki, KOR hartzailearen ligando espezifikoak, fosforilazio aldaketak sortzen ditu AKAP3 eta CABYR bezalako proteina espermatozoide-espezifikoetan zein PKC-ren sustratuetan (Urizar-Arenaza., 2018a, errebisiopean). Jakina denez, AKAP3 eta CABYR proteinek fisikoki elkarrekiten dute giza espermatozoideetan (Li et al., 2011). Beraz KOR-ek espermatozoidearen mugikortasuna eta erreakzio akrosomikoa erregulatu ditzake AKAP/PKA eta kaltzioaren seinaliztapen bidezidor intrazelularren arteko seinaliztapenen *crosstalk*-a ahalbidetuz. (Urizar-Arenaza et al.,2018a, errebisiopean). Emaitza hauei erreparatuta, esan daiteke KOR hartzailearen azpitik espermatozoide-espezifikoak diren mekanismo molekularrak induzitzen direla ahalmen ugalkorra erregulatzeko. Emaitza hauetan oinarrituta, etorkizunean beharrezkoa litzateke giza espermatozoideen beste GPCR hartzaile batzuen azpitik induzitzen diren mekanismo molekularrak aztertzea.

Giza espermatozoideen fosfoproteoman arreta handiagoa jarriz, aipatzekoa da lan honetan gaur egun arte gameto arrean egindako fosfoproteomarik osatuena deskribatzen dela (Urizar-Arenaza et al., 2018a, errebisiopean), identifikatutako fosforilazio lekuetatik %60a baino gehiago berriak izanik. Identifikatutako fosfopeptido gehienak testikuluetako espezifikoak diren proteinetatik eratorriak dira eta hauen artean SPANX-A/D proteina familia aurkitzen da.

SPANX-A/D (Sperm Protein Associated with the Nucleus mapped to the X chromosome) familia X kromosoman kodetzen den familia multigenikoa da. SPANX geneek proteina desberdinak kodetzen dituzte eta "Cancer testis antigens" (CTA) bezala ezagutzen diren familiaren barruan kokatzen dira. Izan ere, hauen adierazpena testikuluetara eta espermatozoideetara mugatuta badago ere, zenbait minbizi motetan kasuen %40an aktibatu eta agertzen dira (Chen et al., 1997; Mirandola et al., 2011; Scanlan et al., 2004).

Fisiologikoki, SPANX-A/D familiak adierazpen postmeiotikoa azaltzen du espermatogenesian (Kouprina et al., 2004; Salemi et al., 2004; Westbrook et al., 2001) eta giza espermatozoideetan krater nuklearretan, tanta zitoplasmatikoan eta flageloan adierazten da (Westbrook et al., 2001, Urizar-Arenaza et al., 2018b errebisiopean). SPANX superfamiliaren funtzio biologikoa ezezaguna bada ere, espermatogenesi prozesuan eta giza espermatozoidearen ernaltzeko gaitasunean funtzio garrantzitsua bete dezakeela uste da (Kouprina et al., 2004; Westbrook et al., 2001). SPANX-A/D proteina familia endogenoaren interaktoma analisiak erakutsi zuenez, proteina familiak funtzio anitzak izan ditzazke giza espermatozoideen nukleoaren antolakuntza, mugikortasuna eta metabolismoa erregulatuz (Urizar-Arenaza et al, 2018b, errebisiopean). Izan ere, gure emaitzen arabera SPANX-A/D proteina familiak kromatinaren antolakuntzan jarduten duten kromatina erregulatzaileekin zein histonekin koprezipitatzen du. Horrez gain, SPANX-A/D familia espermatozoidearen mugikortasunerako beharrezkoa den energiaren lorpenean garrantzitsua litzateke, mitokondrioen metabolismoarekin zein zilio eta flageloko proteinekin elkarrekinez.

Beste alde batetik, jakina da SPANX-A/D familia muga hematostikularraren barruan kokatzen diren eta meiosia jasan duten zelula haploideetan adierazten dela, minbiziaren tratamendurako inmunoterapian itu garrantzitsuak kontsideratzen direlarik. Aitzitik, badirudi SPANX-A/D proteina familiak inmunoterapiarako baliogarriak diren ezaugarriez haratago ezezagunak diren funtzioak izan ditzakeela tumorearen biologia zelularrari dagokionez. Jakina denez, SPANX-A/D proteina familia zenbait tumoretan deskribatu da, melanoman besteak beste (Almanzar et al., 2010; Wang et al., 2003; Westbrook et al., 2004; Zendman et al., 1999, Urizar-Arenaza et al., 2018b, errebisiopean). SPANX-A/D proteina familia melanoma zelula lerro desberdinetan adierazten bada ere (Urizar-Arenaza et al., 2018b, errebisiopean), lerro primarioetatik lerro metastatikoetara arte (Westebrook et al., 2004) agertuz, gaur egun minbizian duen funtzio fisiopatalogikoa ez da oraindik argitu. Horrez gain, aipatzekoa da SPANX-A/D esklusiboki maila nuklearrean adierazten da, baina deskribatu dugunez proteina familiaren fosforilazio mailak ez du nukleoaranzko translokazioan eraginik (Urizar-Arenaza et al., 2018b, errebisiopean).

Funtzionalki, SPANX-A/D proteina familiaren adierazpen altua ondesteko minbizia pairatzen duten pazienteetan gibeleranzko metastasiarekin erlazionatzen da (Chen et al., 2010). Gure

emaitzei dagokienez, SPANX-A/D familiak melanoman ere zelulen proliferazioa eta migrazioa susta ditzake funtzio nuklearrak erregulatuz. Izan ere, beste tumoreetan ikusi den bezala, melanoman nukleoaren azalean kokatutako SPANX-A proteina, Lamin A/C proteinarekin elkarrekiten du zeina nukleoaren barneko mintzean lokalizatzen den eta nukleoaren egonkortasunean parte hartzen duen (Urizar-Arenaza et al, 2018b errebisiopean; Dahl, 2004; Swift and Dischер, 2014; Berk et al., 2013). Hau ere bat dator giza espermatozoideetan deskribatu denarekin, izan ere, SPANX-A nukleoaren azalaren parte izanda melanoma zelulen kromatinaren iristagarritasunean parte hartu lezake histonak bezalako proteinekin elkarrekinez (Urizar-Arenaza et al., 2018b, errebisiopean). Horrela, aldamio bezala jardunez, SPANX-A/D familiak nukleoaren azalean proteina konplexuak eratzeko ahalmena eduki lezake zelularen funtzio nuklearrak erregulatuz. Azaldutakoa aintzat hartuta, badirudi giza espermatozoideen SPANX-A/D familiari buruzko informazio sakonagoa ezinbestekoa litzatekeela giza ugalkortasuna ulertzeko zein antzutasun eta tumoregenesian betetzen duen funtzio fisiopatologikoa deskribatzeko.

Laburbilduz, tesi honetan jasotako emaitza guztiak aztertuz, ondorioztatu dezakegu giza espermatozoideek GPCR hartzaileen azpitik mekanismo molekular espezifikoak dituztela, zelula somatikoengandik desberdinak direnak, eta zeintzuen bidez espermatozoideraren fisiologia erregulatzen dutenak. Proteina espermatozoide-espezifikoei dagokienez, SPANX-A/D proteina familia espermatozoideetan eta melanoman adierazten den CTA ezaguna da, zeinak funtzio fisiologiko eta fisiopatologiko anitz betetzen dituen arren, nukleoko antolakuntzan parte ere hartu lezake. Tesi honetan egindako aurkikuntzak beraz, erabilgarriak lirateke antzutasuna zein minbizia tratatzeko itu terapeutiko berrien identifikaziorako eta bigarren mailako eraginak murrizten dituen antisorgailuen zein tumoreetara bideraturiko farmakoen garapenerako.

6. Ondorioak
Conclusions

6. ONDORIOAK

1.- Beta-endorfina peptido opioide naturalak giza espermatozoideen erreakzio akrosomikoa aktibatzen du PKC seinaliztapen bidezidorraren bitartez.

2.- Hartzaile opioideek giza espermatozoideen erreakzio akrosomikoa erregulatzen dute. Bereziki, MOR, DOR eta KOR hartzaileek erreakzio akrosomikoa inhibitzen dute kaltzio kanaleak modulatuz.

3.- KOR hartzaile opioideak giza espermatozoideen mugikortasun hiperaktiboa eta erreakzio akrosomikoaren inhibizioan parte hartzen du espermatozoide-espezifikoak diren seinaliztapen bidezidorrak induzituz. Bereziki, espermatozoideetan soilik agertzen diren AKAP4, AKAP3, CABYR, ODF1, ODF2 edota CCDC familiako proteinetan fosforilazio aldaketak induzitzen ditu.

4.- Azterketa fosfoproteomikoen bitartez 3527 fosforilazio leku desberdin identifikatu dira giza espermatozoideen proteoman. Horietatik 2157 berriak dira. Hauek flagelo bidezko mugikortasunean, proteinen garraioan, axonemako dineina konplexuaren eraketan, espermatozoide-obozito ezagutzan, kapazitazioan, nukleoaren antolakuntzan eta txaperona bidezko proteinen tolesketan parte hartzen dute.

5.- SPANX-A/D proteina familiak giza espermatozoideetan funtzio anitz betetzen du. Izan ere, nukleoaren antolakuntzan, mitokondrioetako fosforilazio oxidatiboan eta mugikortasunean parte hartzen duten proteinekin elkarrekiten du: NUP, FH eta TEKT1, hurrenez hurren.

6.-SPANX-A/D proteina familiaren 7 fosforilazio leku aurkitu dira giza espermatozoideetan. Fosforilazio hauek proteina familiaren zelulan barreneko translokazioan eragiten ez badute ere, SPANX-A/D-ren proteina konplexuen egonkortasunean parte hartuko lukete.

7.- SPANX-A/D proteina familiak zelulen proliferazio eta migrazioan parte hartu lezake funtzio nuklearrak eraldatuz eta laminarekin elkarrekinez.

6. CONCLUSIONS

1.- Beta endorphin, the natural opioid peptide, stimulates the human sperm acrosome reaction through the PKC intracelular signaling pathway.

2.- Opioid receptors regulate the human sperm acrosome reaction. MOR, DOR and KOR opioid receptors inhibit the human sperm acrosome reaction through the modulation of calcium channels.

3.- KOR opioid receptor inhibits the human sperm hyperactive motility and acrosome reaction inducing sperm-specific molecular mechanisms. Specifically, KOR induces phosphorylation changes in sperm-specific proteins like AKAP3, AKAP4, CABYR, ODF1, ODF2 and CCDC protein family.

4.- Phosphoproteomic approaches present the most update phosphoproteome to date with 3527 phosphosites in human sperm proteins, considered 2157 novel. These proteins are involved in flagellum-dependent cell motility, protein transport, axonemal dynein complex assembly, sperm-egg recognition, sperm capacitation, nuclear organization and chaperone mediated protein assembly.

5.- SPANX-A/D protein family is involved in processes related to nuclear pore organization and envelope disassembly, oxidative phosphorylation in mitochondria and cilium movement, by the interaction with NUPs, FH and TEKT1.

6.-Phosphoproteomic approaches reveal 7 phosphosites of SPANX-A/D protein family in human spermatozoa. Although these phosphosites are not involved in the protein translocation within the cell, they participate in the stabilization of the SPANX-A/D protein complexes.

7.- SPANX-A/D protein family may be involved in cell proliferation and migration regulating nuclear functions by the interaction with Lamin A/C.

7.Bibliografia
References

7. BIBLIOGRAFIA/REFERENCES

A

- Abou-haila A, Tulsiani DRP. 2009. Signal transduction pathways that regulate sperm capacitation and the acrosome reaction. *Arch Biochem Biophys* **485**:72–81. doi:10.1016/j.abb.2009.02.003

- Acevedo H, Tong J, Hartsock R. 1995. Human chorionic gonadotropin-beta subunit gene expression in cultured human fetal and cancer cells of different types and origins. *Cancer Res* **76**:1467–75.

- Adeoya-Osiguwa SA, Dudley RK, Hosseini R, Fraser LR. 1998. FPP modulates mammalian sperm function via TCP-11 and the adenylyl cyclase/cAMP pathway. *Mol Reprod Dev* **51**:468–476. doi:10.1002/(SICI)1098-2795(199812)51:4<468::AID-MRD14>3.0.CO;2-6

- Adeoya-Osiguwa SA, Fraser LR. 2007. Cathine, an amphetamine-related compound, acts on mammalian spermatozoa via β1- and α2A-adrenergic receptors in a capacitation state-dependent manner. *Hum Reprod* **22**:756–765. doi:10.1093/humrep/del454

- Adeoya-Osiguwa SA, Fraser LR. 2003. Calcitonin acts as a first messenger to regulate adenylyl cyclase/cAMP and mammalian sperm function. *Mol Reprod Dev* **65**:228–236. doi:10.1002/mrd.10273

- Adeoya-Osiguwa SA, Gibbons R, Fraser LR. 2006. Identification of functional α2- and β-adrenergic receptors in mammalian spermatozoa. *Hum Reprod* **21**:1555–1563. doi:10.1093/humrep/del016

- Agirregoitia E, Carracedo A, Subirán N, Valdivia A, Agirregoitia N, Peralta L, Velasco G, Irazusta J. 2010. The CB2cannabinoid receptor regulates human sperm cell motility. *Fertil Steril* **93**:1378–1387. doi:10.1016/j.fertnstert.2009.01.153

- Agirregoitia E, Valdivia A, Carracedo A, Casis L, Gil J, Subiran N, Ochoa C, Irazusta J. 2006. Expression and Localization of δ-, κ-, and μ-Opioid Receptors in Human Spermatozoa and Implications for Sperm Motility. *J Clin Endocrinol Metab* **91**:4969–4975. doi:10.1210/jc.2006-0599

- Aitken RJ. 1985. Analysis of the direct effects of prostaglandins sperm function. *J Reprod Fertil* **73**:139–46.

- Aitken RJ, Irvine S, Kelly RW. 1986. Significance of intracellular calcium and cyclic adenosine 3',5'-monophosphate in the mechanisms by which prostaglandins influence human sperm function. *J Reprod Fertil* **77**:451–462. doi:10.1530/jrf.0.0770451

- Aitken RJ, Warner PE, Reid C. 1984. Factors Influencing the Success Exhibiting of Sperm-Cervical Unexplained Mucus Infertility Interaction in Patients infertility technique. *J Androl* **7**:3–10.

- Akers SN, Odunsi K, Karpf AR. 2010. Regulation of cancer germline antigen gene expression: implications for cancer immunotherapy. *Futur Oncol* **6**:717–32. doi:10.2217/fon.10.36

- Al-Hasani R, Bruchas MR. 2011. Molecular Mechanisms of Opioid Receptor-Dependent Signalling and Behaviour. *Anesthesiology* **115**:1363–1381. doi:10.1097/ALN.0b013e318238bba6.Molecular

- Alberts B, Johnson A, Lewis J, Raff M, Roberts K, Walter P. 2002. Molecular Biology of the Cell. 4th edition. New York: Garland Science; doi:10.1002/0471142956.cy1207s35

- Albrizio M, Guaricci AC, Maritato F, Sciorsci RL, Mari G, Calamita G, Lacalandra GM, Aiudi GG, Minoia R, Dell'Aquila ME, Minoia P. 2005. Expression and subcellular localization of the -opioid receptor in equine spermatozoa: evidence for its functional role. *Reproduction* **129**:39–49. doi:10.1530/rep.1.00284

- Albrizio M, Lacalandra GM, Micera E, Guaricci AC, Nicassio M, Zarrilli A. 2010. Delta opioid receptor on equine sperm cells: Subcellular localization and involvement in sperm motility analyzed by computer assisted sperm analyzer (CASA). *Reprod Biol Endocrinol* **8**:1–11. doi:10.1186/1477-7827-8-78

- Allegrucci C, Liguori L, Mezzasoma I, Minelli A. 2000. A1 adenosine receptor in human spermatozoa: Its role in the fertilization process. *Mol Genet Metab* **71**:381–386. doi:10.1006/mgme.2000.3054

- Allegrucci C, Liguori L, Minelli A. 2001. Stimulation by n6-cyclopentyladenosine of A1 adenosine receptors, coupled to galphai2 protein subunit, has a capacitative effect on human spermatozoa. *Biol Reprod* **64**:1653–1659. doi:10.1095/biolreprod64.6.1653

- Almanzar G, Olkhanud PB, Bodogai M, Agnola CD, Hewitt SM, Ghimenton C, Tummala MK, Ashani T, Hoek KS, Kouprina N, Larionov V, Biragyn A. 2010. Sperm-derived SPANX-B is aclinically relevant tumor antigen that is expressed in human tumors and readily recognized by human CD4 and CD8 T cells **15**:1954–1963. doi:10.1158/1078-0432.CCR-08-1290.Sperm-derived

- Almanzar G, Olkhanud PB, Bodogai M, Dellagnola C, Baatar D, Hewitt SM, Ghimenton C, Tummala MK, Weeraratna AT, Hoek KS, Kouprina N, Larionov V, Biragyn A. 2009. Sperm-derived SPANX-B is a clinically relevant tumor antigen that is expressed in human tumors and readily recognized by human CD4 + and CD8 + T cells. *Clin Cancer Res* **15**:1954–1963. doi:10.1158/1078-0432.CCR-08-1290

- Almeida LG, Sakabe NJ, de Oliveira AR, Silva MCC, Mundstein AS, Cohen T, Chen YT, Chua R, Gurung S, Gnjatic S, Jungbluth AA, Caballero OL, Bairoch A, Kiesler E, White SL, Simpson AJG, Old LJ, Camargo AA, Vasconcelos ATR. 2009. CTdatabase: A knowledge-base of high-throughput and curated data on cancer-testis antigens. *Nucleic Acids Res* **37**:2007–2010. doi:10.1093/nar/gkn673

- Almog T, Lazar S, Reiss N, Etkovitz N, Milch E, Rahamim N, Dobkin-Bekman M, Rotem R, Kalina M, Ramon J, Raziel A, Brietbart H, Seger R, Naor Z. 2008. Identification of extracellular signal-regulated kinase 1/2 and p38 MAPK as regulators of human sperm motility and acrosome reaction and as predictors of poor spermatozoan quality. *J Biol Chem* **283**:14479–14489. doi:10.1074/jbc.M710492200

- Almog T, Naor Z. 2010. The role of Mitogen activated protein kinase (MAPK) in sperm functions. *Mol Cell Endocrinol* **314**:239–243. doi:10.1016/j.mce.2009.05.009

- Amann RP, Howards SS. 1980. Daily spermatozoal production and epididymal spermatozoal reserves of the human male. *J Urol* **124**:211–215. doi:10.1016/S0022-5347(17)55377-X

- Amaral A, Castillo J, Ramalho-Santos J, Oliva R. 2014a. The combined human sperm proteome: Cellular pathways and implications for basic and clinical science. *Hum Reprod Update* **20**:40–62. doi:10.1093/humupd/dmt046

- Ambrosini A, Fiorini R, Zolese G. 2010. Endocannabinoids and Human Sperm Cells. *Pharmaceuticals* **3**:3200–3211. doi:10.3390/ph3103200

- Aquila S, Middea E, Catalano S, Marsico S, Lanzino M, Casaburi I, Barone I, Bruno R, Zupo S, Ando S. 2007. Human sperm express a functional androgen receptor : effects on PI3K / AKT pathway. *Hum Reprod* **22**:2594–2605. doi:10.1093/humrep/dem243

- Aquila S, Sisci D, Gentile M, Middea E, Catalano S, Carpino A, Rago V, Andò S. 2004. Estrogen receptor (ER)α and ERβ are both expressed in human ejaculated spermatozoa: Evidence of their direct interaction with phosphatidylinositol-3-OH kinase/Akt pathway. *J Clin Endocrinol Metab* **89**:1443–1451. doi:10.1210/jc.2003-031681

- Asghari A, Marashi SA, Ansari-Pour N. 2017. A sperm-specific proteome-scale metabolic network model identifies non-glycolytic genes for energy deficiency in asthenozoospermia. *Syst Biol Reprod Med* **63**:100–112. doi:10.1080/19396368.2016.1263367

- Austin CR. 1952. The capacitation of the mammalian sperm. *Nature*. doi:10.1038/170326a0

- Avellar MCW, Siu ER, Yasuhara F, Maróstica E, Porto CS. 2010. Muscarinic acetylcholine receptor subtypes in the male reproductive tract : EExpression and function in rat efferent ductules and epididymis. *J Mol Neurosci* **40**:127–134. doi:10.1007/s12031-009-9268-6

- Azizi F, Ghafoun-Fard S. 2017. Outer dense fiber proteins: Bridging between male infertility and cancer. *Arch Iran Med* **20**:320–325.

B

- Babatunde KA, Najafi A, Salehipour P, Modarressi MH, Beigom Mobasheri M. 2017. Cancer/testis genes in relation to sperm biology and function. *Iran J Basic Med Sci* **20**:967–974. doi:10.22038/IJBMS.2017.9259

- Babcock DF, Rufo GA, Lardy HA. 1983. Potassium-dependent increases in cytosolic pH stimulate metabolism and motility of mammalian sperm. *Proc Natl Acad Sci* **80**:1327–1331. doi:10.1073/pnas.80.5.1327

- Bakalyar, Heather; Randall R. 1990. Identification of a Specialized Adenylyl Cyclase That. *Science (80-)* **250**:1403–1406.

- Baldi E, Luconi M, Bonaccorsi L, Krausz C, Forti G. 1996. Human sperm activation during capacitation and acrosome reaction: role of calcium, protein phosphorylation and lipid remodelling pathways. *Front Biosci* **1**:189–205. doi:10.2741/A125

- Baldi E, Luconi M, Bonaccorsi L, Maggi M, Francavilla S, Gabriele A, Properzi G, Forti G. 1999. Nongenomic progesterone receptor on human spermatozoa: Biochemical aspects and clinical implications. *Steroids* **64**:143–148. doi:10.1016/S0039-128X(98)00100-7

- Baldi E, Luconi M, Muratori M, Forti G. 2000. A novel functional estrogen receptor on human sperm membrane interferes with progesterone effects. *Mol Cell Endocrinol* **161**:31–35. doi:10.1016/S0303-7207(99)00220-8

- Baldi E, Luconi M, Muratori M, Marchiani S, Tamburrino L, Forti G. 2009. Nongenomic activation of spermatozoa by steroid hormones: Facts and fictions. *Mol Cell Endocrinol* **308**:39–46. doi:10.1016/j.mce.2009.02.006

- Balhorn R. 2007. Protein family review The protamine family of sperm nuclear proteins. *Gemome Biol* **8**:227. doi:10.1186/gb-2007-8-9-227

- Baluch, Koeneman BA, Hatch KR, McGaughey RW, Capco DG. 2004. PKC isotypes in post-activated and fertilized mouse eggs: Association with the meiotic spindle. *Dev Biol* **274**:45–55. doi:10.1016/j.ydbio.2004.05.030

- Bantscheff M, Schirle M, Sweetman G, Rick J, Kuster B. 2007. Quantitative mass spectrometry in proteomics: a critical review. *Anal Bioanal Chem* **389**:1017–1031. doi:10.1007/s00216-007-1486-6

- Barki-Harrington L, Rockman HA. 2008. Beta -Arrestins : Multifunctional Cellular Mediators. *Physiol Rev* 17–22.

- Basuray R, De Jonge C, Zaneveld LJD. 1990. Evidence for a role of cysteinyl leukotrienes in mouse and human sperm function. *J Androl* **11**. doi:10.1002/j.1939-4640.1990.tb01576.x

- Baxendale RW, Fraser LR. 2005. Mammalian sperm phosphodiesterases and their involvement in receptor-mediated cell signaling important for capacitation. *Mol Reprod Dev* **71**:495–508. doi:10.1002/mrd.20265

- Baxendale RW, Fraser LR. 2003. Immunolocalization of multiple G?? subunits in mammalian spermatozoa and additional evidence for G??s. *Mol Reprod Dev* **65**:104–113. doi:10.1002/mrd.10295

- Ben-Navi LR, Almog T, Yao Z, Seger R, Naor Z. 2016. A-Kinase Anchoring Protein 4 (AKAP4) is an ERK1/2 substrate and a switch molecule between cAMP/PKA and PKC/ERK1/2 in human spermatozoa. *Sci Rep* **6**:1–13. doi:10.1038/srep37922

- Berkovitz A, Dekel Y, Goldstein R, Bsoul S, Machluf Y, Bercovich D. 2018. The significance of human spermatozoa vacuoles can be elucidated by a novel procedure of array comparative genomic hybridization. *Hum Reprod* **33**:563–571. doi:10.1093/humrep/dey019

- Bild AH, Yao G, Chang JT, Wang Q, Potti A, Chasse D, Joshi MB, Harpole D, Lancaster JM, Berchuck A, Olson JA, Marks JR, Dressman HK, West M, Nevins JR. 2006. Oncogenic pathway signatures in human cancers as a guide to targeted therapies. *Nature* **439**:353–357. doi:10.1038/nature04296

- Birnbaumer L. 2007. Expansion of signal transduction by G proteins. The second 15 years or so: From 3 to 16 α subunits plus βγ dimers. *Biochim Biophys Acta - Biomembr* **1768**:772–793. doi:10.1016/j.bbamem.2006.12.002

- Bodnar RJ, Klein GE. 2004. Endogenous opiates and behavior: 2003. *Peptides* **25**:2205–2256. doi:10.1016/j.peptides.2004.09.005

- Boehm V, Gehring NH. 2016. Exon Junction Complexes: Supervising the Gene Expression Assembly Line. *Trends Genet* **32**:724–735. doi:10.1016/j.tig.2016.09.003

- Bossis I, Stratakis CA. 2004. Minireview: PRKAR1A: Normal and abnormal functions. *Endocrinology* **145**:5452–5458. doi:10.1210/en.2004-0900

- Böttcher B, Seeber B, Leyendecker G, Wildt L. 2017. Impact of the opioid system on the reproductive axis. *Fertil Steril* **108**:207–213. doi:10.1016/j.fertnstert.2017.06.009

- Brasseur F, Rimoldi D, Liénard D, Lethé B, Carrel S, Arienti F, Suter L, Vanwijck R, Bourlond A, Humblet Y, Vacca A, Conese M, Lahaye T, Degiovanni G, Deraemaecker R, Beauduin M, Sastre X, Salamon E, Dréno B, Jäger E, Knuth A, Chevreau C, Suciu S, Lachapelle J -M, Pouillart P, Parmiani G, Lejeune F, Cerottini J -C, Boon T, Marchand M. 1995. Expression of MAGE genes in primary and metastatic cutaneous melanoma. *Int J Cancer* **63**:375–380. doi:10.1002/ijc.2910630313

- Breitbart H. 2002. Intracellular calcium regulation in sperm capacitation and acrosomal reaction. *Mol Cell Endocrinol* **187**:139–144. doi:10.1016/S0303-7207(01)00704-3

- Brenker C, Goodwin N, Weyand I, Kashikar ND, Naruse M, Krähling M, Müller A, Benjamin Kaupp U, Strünker T. 2012. The CatSper channel: A polymodal chemosensor in human sperm. *EMBO J* **31**:1654–1665. doi:10.1038/emboj.2012.30

- Brown PR, Miki K, Harper DB, Eddy EM. 2003. A-Kinase Anchoring Protein 4 Binding Proteins in the Fibrous Sheath of the Sperm Flagellum. *Biol Reprod* **68**:2241–2248. doi:10.1095/biolreprod.102.013466

- Buffone MG, Wertheimer E V., Visconti PE, Krapf D. 2014. Central role of soluble adenylyl cyclase and cAMP in sperm physiology. *Biochim Biophys Acta - Mol Basis Dis* **1842**:2610–2620. doi:10.1016/j.bbadis.2014.07.013

C

- Caballero-campo P, Buffone MG, Benencia F, Conejo- JR, Rinaudo PF, Gerton GL. 2014. A Role for the Chemokine Receptor CCR6 in Mammalian Sperm Motility and Chemotaxis. *J Cell Physiol* **229**:1–23. doi:10.1002/jcp.24418.A

- Cain SA, McGovern A, Small E, Ward LJ, Baldock C, Shuttleworth A, Kielty CM. 2009. Defining Elastic Fiber Interactions by Molecular Fishing. *Mol Cell Proteomics* **8**:2715–2732. doi:10.1074/mcp.M900008-MCP200

- Calogero AE, Hall J, Fishel S, Green S, Hunter A, D'Agata R. 1996. Effects of γ-aminobutyric acid on human sperm motility and hyperactivation. *Mol Hum Reprod* **2**:733–738. doi:10.1093/molehr/2.10.733

- Candenas L, Lecci A, Pinto FM, Patak E, Maggi CA, Pennefather JN. 2005. Tachykinins and tachykinin receptors: Effects in the genitourinary tract. *Life Sci* **76**:835–862. doi:10.1016/j.lfs.2004.10.004

- Castillo J, Amaral A, Oliva R. 2014. Sperm nuclear proteome and its epigenetic potential. *Andrology* **2**:326–338. doi:10.1111/j.2047-2927.2013.00170.x

- Cejudo-Roman A, Pinto FM, Subirán N, Ravina CG, Fernández-Sánchez M, Pérez-Hernández N, Pérez R, Pacheco A, Irazusta J, Candenas L. 2013. The Voltage-Gated Sodium Channel Nav1.8 Is Expressed in Human Sperm. *PLoS One* **8**:1–13. doi:10.1371/journal.pone.0076084

- Chan JS, Chiu TT, Wong YH. 1995. Activation of type II adenylyl cyclase by the cloned mu-opioid receptor: coupling to multiple G proteins. *J Neurochem* **65**:2682–2689.

- Chang MC. 1951. Fertilizing Capacity of Spermatozoa deposited into the Fallopian Tubes. *Nature* **168**:697–698. doi:10.1038/167365b0

- Chávez JC, de la Vega-Beltrán JL, Escoffier J, Visconti PE, Treviño CL, Darszon A, Salkoff L, Santi CM. 2013. Ion Permeabilities in Mouse Sperm Reveal an External Trigger for SLO3-Dependent Hyperpolarization. *PLoS One* **8**:1–13. doi:10.1371/journal.pone.0060578

- Chen W, Yuan Y, Shi Q, Zhang X. 2000. Effect of protein kinase C on guinea pig sperm acrosome reaction induced by progesterone. *Acta Pharmacol Sin* **21**:787–791.

- Chen Y-T, Scanlan MJ, Sahin U, Tureci O, Gure AO, Tsang S, Williamson B, Stockert E, Pfreundschuh M, Old LJ. 1997. A testicular antigen aberrantly expressed in human cancers detected by autologous antibody screening. *Proc Natl Acad Sci* **94**:1914–1918. doi:10.1073/pnas.94.5.1914

- Chen Z, Li M, Yuan Y, Wang Q, Yan L, Gu J. 2010. Cancer/testis antigens and clinical risk factors for liver metastasis of colorectal cancer: A predictive panel. *Dis Colon Rectum* **53**:31–38. doi:10.1007/DCR.0b013e3181bdca3a

- Chien CL, Wu YS, Lai HL, Chen YH, Jiang ST, Shih CM, Lin SS, Chang C, Chern Y. 2010. Impaired water reabsorption in mice deficient in the type VI adenylyl cyclase (AC6). *FEBS Lett* **584**:2883–2890. doi:10.1016/j.febslet.2010.05.004

- Cicero T, Meyer E, Wiest W, Olney J, Bell R. 1975. Effects of Chronic Morphine Administration on Reproductive System of Male Rat. *J Pharmacol Exp Ther* **192**:542–548.

- Clermont Y. 1972. Kinetics of spermatogenesis in mammals: seminiferous epithelium cycle and spermatogonial renewal. *Physiol Rev* **52**:198–236. doi:10.1152/physrev.1972.52.1.198

- Comb M, Seeburg PH, Adelman J, Eiden L, Herbert E. 1982. Primary structure of the human Met- And Leu-enkephalin precursor and its mRNA. *Nature* **295**:663–666. doi:10.1038/295663a0
- Correia J, Michelangeli F, Publicover S. 2015. Regulation and roles of Ca2+stores in human sperm. *Reproduction* **150**:R56–R76. doi:10.1530/REP-15-0102

- Cullen PJ. 2003. Calcium signalling: The ups and downs of protein kinase C. *Curr Biol* **13**:R699–R701. doi:10.1016/s0960-9822(03)00644-4

D

- Dahl KN. 2004. The nuclear envelope lamina network has elasticity and a compressibility limit suggestive of a molecular shock absorber. *J Cell Sci* **117**:4779–4786. doi:10.1242/jcs.01357

- Dan JC. 1954. Studies on the Acrosome . III . Effect of Calcium Deficiency. *Biol Bull* **107**:335–349. doi:10.2307/1538583

- Dang E, Yang S, Song C, Jiang D, Li Z, Fan W, Sun Y, Tao L, Wang J, Liu T, Zhang C, Jin B, Wang J, Yang K. 2018. BAP31, a newly defined cancer/testis antigen, regulates proliferation, migration, and invasion to promote cervical cancer progression. *Cell Death Dis* **9**. doi:10.1038/s41419-018-0824-2

- Danshina P V., Geyer CB, Dai Q, Goulding EH, Willis WD, Kitto GB, McCarrey JR, Eddy EM, O'Brien DA. 2010. Phosphoglycerate Kinase 2 (PGK2) Is Essential for Sperm Function and Male Fertility in Mice1. *Biol Reprod* **82**:136–145. doi:10.1095/biolreprod.109.079699

- Darszon A, Beltrán C, Felix R, Nishigaki T, Treviño CL. 2001. Ion transport in sperm signaling. *Dev Biol*. doi:10.1006/dbio.2001.0387

- Darszon A, Nishigaki T, Beltran C, Trevino CL. 2011. Calcium Channels in the Development, Maturation, and Function of Spermatozoa. *Physiol Rev* **91**:1305–1355. doi:10.1152/physrev.00028.2010

- Davidson A, Vermesh M, Paulson RJ, Graczykowski JW, Lobo R a. 1989. Presence of immunoreactive β-endorphin and calcitonin in human seminal plasma, and their relation to sperm physiology. *Fertil Steril* **51**:878–880. doi:10.1016/S0015-0282(16)60684-2

- de Gandarias JM, Irazusta J, Gil J, Fernández D, Casis L. 1993. Brain soluble and membrane-bound Tyr-aminopeptidase activities during the stages of estrous and proestrous in the female rat. *Brain Res* **620**:146–148. doi:10.1016/0006-8993(93)90282-R

- De Jonde C. 2005. Biological basis for human capacitation. *Hum Reprod Update* **11**:205–214. doi:10.1093/humupd/dmi010

